

2

**HIZKUNTZA MINORITARI  
BATZUREN AZTERKETA  
KRITIKOA**

# HIZKUNTZA MINORITARI BATZUREN AZTERKETA KRITIKOA

## 1. KATALUNIA

1. **Katalunia ez da “herri minoritari” bat**
2. **Katalunia, Katalunia Gran eta “Paisos Catalans”**
3. **Hizkuntza mintzatuaren egoera:**
  1. **Printzerria (Barcelona, Tarragona, Lleida, Girona):**
    - a) **Inmigrazioa eta elebitasuna**
  2. **Balears, Valencia**
  3. **Rosselló**
4. **Katalanaren beherakada eta “Renaixença”**
5. **Literatur batasunaren problema**
6. **Erakunde aurrerapenak**
7. **Egungo Berbiztearen zenbait zantzu**

## 2. GALIZIA

1. **Galiziako geografi egoera eta jende kopurua**
2. **Portugal eta Galizia**
3. **Galegoaren hizkuntz egoera**
4. **Galegoaren egoera Galizian**
5. **Galiziako sozio-ekonomi egoera**
6. **Aitzindariak**
7. **1930-1936ko erakunde proiektuak**
8. **Galego literatur produkzioaren goraldia**

## 3. IRLANDA

1. **Irlanderaren hizkuntza keltarra da**
2. **Gaelieraren beherapena: kausa eta datu kuantitatiboak**

3. "Gaelic League"-ren ekintzak
4. Gaelieraren beherakada zifratan
5. Gaeltacht-en ingurune sozio-ekonomikoa
6. Gaeltacht-etako hizkuntz textuingurua
7. Gaeltacht-etik kanpoko hizkuntz arazoa
8. Egoeraren beste zinu adierazgarriak
9. Irlandera ez-gaelieradun errejioetako eskoletan
10. Irlandera azko literatur produkzio
11. Intelektualen problema
12. Azken burutapen batzu

#### 4. GALES

1. Funtsezko zenbait zifra
2. Kymbruera eta demografia
3. Kymbrueraren egoera
4. Kymbrueradun taldearen gizarte eraketa
5. "Eisteddfod"
6. Gales herriko irakaskuntzaren gorabeherak
7. "Playd Cymru" alderdi Nazionalista sortzen da
8. Cymdeithas yr Iaith
9. Liberapen harmatua Gales herrian
10. Gales herriko egungo egoera zenbait alorretan

#### 5. ISRAEL

1. Funtsezko zenbait zifra
2. Hebraieraren tipologi egoera
3. Hebraieraren beherakadako aldia
4. Israelgo politik-erlijiozko haustura sortzen da
5. Hebraierari buruzko posturak
6. Mugimendu sionistaren jaiotzea
7. Fonetika eta elkarrulerpenaren aldetiko problemak
8. Egin abaleginak neurtzeko zenbait datu
9. Amaitzeko zifra batzu.

#### 6. FINLANDIA

1. Finlandiaren geografi kokapena
2. Finlandia eta Karelia
3. Suomieraren egoera tipologi ikuspegitik behatuta
4. Gaurko egoera Finlandian: suediar aldea eta suomitar aldea
5. Suomiera, hizkuntza debekatua Finlandian
6. Suomieraren 1918 aurretiko instituzio aurrerapenak
7. Finlandiar gizamailak eta hizkuntz borroka
8. Suomieraren egungotzea

# HIZKUNTZA MINORITARI BATZUREN AZTERKETA KRITIKOA

## 1. KATALUNIA

Katalanez mintzatzen direnen lurraldeak 64.200 km<sup>2</sup> ditu, 8.400.000 bateko populazioarekin, hautariko gehienak beren hizkuntzaz baliatzen direlarik.

Gure ikuspegitik behatuta, katalan kasuak, hemen aztertuko ditugun beste hainbat hizkuntz problemak baino alde eredutsu eta baliagarri guttiago aurkezten digu. Hala ere, beharturik ikusten gara bere kasua hemen sartzera, kidetasun handiak aurki bai ditzakegu Madrilgo alderdi politiko eta gobernuek euskal eta katalan talde linguistikoeekiko dauzkaketen jarrerak eta egiten dituzten planteiaketak kontutan hartuz gero.

## 1. KATALUNIA EZ DA “HERRI MINORITARI” BAT

Euskal lurraldetzat jo ohi dugunak 20.000 km<sup>2</sup> apenas gainditzen baditu, “Paisos Catalans” deituek (Printzerria, Balearak, Valentzia, Rosellon) zifra horren hiru halako zabalgoa dukete, Europako zenbait Estatu arras ezagunen parean jartzen direlarik:

Belgika .....	30.513 km <sup>2</sup>
Holanda .....	33.612 km <sup>2</sup>
Suitza .....	41.288 km <sup>2</sup>

Danimarka.....	43.069 km <sup>2</sup>
Irlanda .....	70.280 km <sup>2</sup>
Austria .....	83.849 km <sup>2</sup>
Hungaria .....	93.030 km <sup>2</sup>

Gauza berdintsua aurki genezake “Paisos Catalans”-eko demografi kopurua Europako beste Estatuekin gonbaratuz gero:

Finlandia .....	4.684.000	bizilagun
Danimarka .....	4.966.000	bizilagun
Suitza .....	6.345.000	bizilagun
Austria .....	7.456.000	bizilagun
Bulgaria .....	8.540.000	bizilagun
Portugal .....	8.668.000	bizilagun
Grezia .....	8.726.000	bizilagun
Belgika .....	9.726.000	bizilagun
Hungaria .....	10.364.000	bizilagun

Kataluniak, ondorengo koadro konparatibo honetan dakuskegenez, sozio-ekonomi egitura moderno batez gozatzen du:

	Sektoreak		
	Lehena	Bigarrena	Hirugarrena
U.S.A.-k	12	36,5	% 51,5
Suediak	20	41	% 39
Kat. (Prin.)	19	51	% 30

Katalanek ez dute, inondik ere, galtzear dauden herri minoritarien ohizko guttiagotasunezko konplexurik. Aski dukegu Andorrara ikustalditxo bat egi-tearekin. Ttipia herria, baina katalan agresibitate bortitzekoa inondik ere: 1968/VI/28 dekretuaren bidez, agintariengana zuzenduriko eskakizun guztiek katalanez eginak behar dute izan, eta beren egoitza Andorran duten merkatal elkarteez, katalanez aurkeztu behar dituzte beren kontu-garbiketak, agiriak, erabakiak... nahiz eta gero beren etxe barrurako nahi luketen hizkuntzan egiteko eskubidean egon.

Agian, Bartzelona dukegu agresibitate bortitz modernista horren eredurik hoberena.

Hiri garrantzitsua bere bizilagunengatik (1.745.000 egoile), bere ekonomi ahalmenarengatik (Espainiako Estatuako etekin orokorraren % 20), bere itsas-portuarengatik, mendean zehar beren egoitza bertarako erabaki duen arrotz andana izugarri hori eta guzti, Bartzelonak, hizkuntza ofizialak bertakoa oso neurri ttipi batetan besterik gaintu ez duen hiri bat izaten dirau.

Hau da: eragozpen guztiakin topatu izan arren, Bartzelonak Kataluniako hiriburu eta burumuin izaten dirau.

## 2. KATALUNIA, KATALUNIA GRAN ETA “PAISOS CATALANS”

Etniaren ikuspegitik behatuta, eta alderdi honi lotu nahi litzaioke batipat lan hau, ez luke inongo zentzurik izanzen katalan arazoa espainiar Estatuako lau probintzia ezagunen herrialde geografikora murriztuko bagenu, eta are guttiago ofizialki onhartua izan zaion 1833ko probintzi eraketaren araura hartuko bagenu.

Jakina denez, badago “Ipar Katalunia” bat frantziar Estatu barruan: Rose-llo izenez ezaguna, nahiz eta deitura hori herrialdeko alderdi bati besterik ez dagokion. Kataluniaren zatibiketa, 1659an datza, Espainia eta Frantziak Piri-nioko Tratatu sonatuaren bidez egundainokoxe mugak erabaki zituztenetik, hain zuzen, bai Euskaldunak eta bai Katalanak zatibitan ebakitzen gintuztelarik.

Jakina da, bai eta, Andorrako Printzerria 452 km<sup>2</sup> eta 19.000 bizilaguneko katalan hutsezko Estatu ttipi bat dela, eta katalana duela bere hizkuntza ofizia-la.

Harridura handiagoa sortzen du, ordea, gaztelaniaz “Levante” (Castellon, Valentzia eta Alicante) deitu lurraldeak, eta Balear irla taldeak, eta bai eta Ara-goa ekialdeko lur-zerrendak ere, inongo duda-mudarik gabe, Països Catalans-en zati bat izateak (katalanezkoak direla esan nahi da noski).

“Katalunia Gran” izenez deitzen dena, ez dugu *Katalunia etnikoaren dei-tura besterik*.

Gauza hauk ezagutzen dituzte, alde batetik, hizkuntzalariek. Hauek bada-kite, adibidez, Elx-en (Elche), Eivissa-n (Ibiza), eta Mequinençan (Mequinenza), hots, ohizko Kataluniatik kanpo, katalanez mintzatzen direla egun ere; eta badakite, bai eta, esperientzia zuzen batez eta bizi izan dutelako, alde horietatik ibiltzeko aukera izan duten katalanek ere.

Alabaina, beste aldetik, katalan arazo hori xahutu eta zatikatzeko, folklo-re huts eta Vich-en saltxitxoi batetan bilaka erazteko egin izan diren etengabe-ko eginahal horiek ere izan dute beren zerikusi geografikoa. Eta era horretan beste inongo hizkuntzak baino gehiago ez duen dialekto desberdintasunean oin-harrituz, sartu izan da zenbait burutan eta halako arrakastarekin gainera, ezja-kintasun mailaren arabera noski, sartu izan dela diogu, gauza bat dela Katalu-nia eta beste bat Valentzia, eta are urrunagoko zerbait Rosellon.

Izan ere, arras ezaguna zaigu katalan dialektoen artean datzaten desberdin-tasunen jatorria, nahiz eta beren artean ez bada sekulan halako elkar ezinuler-turik egon izan ere: Erdi Haroko azken aldera katalan Estatuak lur jo zuenean, zenbait lurralderen arteko giza loturak lasatu edo eten egin ziren, eta, jakina, dialektotzearen bideak ere erraztu.

Ondoren bezala, desberdintasunak, dudagabeko hizkuntz batasun baten baitan izanik ere, sakonagutu eginen dira, egungo “Països Catalans” deituek honako eskualde eta demografi dentsitate hartzen dituztelarik (1966).

### *Printzerri*

Bartzelona, Tarragona, Lleida, Girona ..... 4.743.051 bizil.

### *Llevant*

Valentzia, Castellon, Alacant ..... 2.832.553 bizil.

### *Balear Irlak*

Mallorka, Minorca, Evisia ..... 506.410 bizil.

*Rosello* (gutti gorabehera) ..... 250.000 bizil.

*Andorra* ..... 19.000 bizil.

### *Aragoako Katalunia*

Ribagorça, la Llitera, Baix Cinca, Natarranya ..... 80.000 bizil.

Gutzira 8.331.014 bizil.

Zerrenda honetaz gainera, Sardinia (Italia) irlako Alguer sardu hiria ere sartu behar litzateke hor. Beronen jabe egin ziren katalanak Erdi Haroan (1353), eta bere 30.000 bizilaguneko populazioak oraindik katalan dialekto berezi bat egiten du. Eta, harritzekoa bada ere, iragan mende guztiak eta ere, oso desberdintasun ttipiak daramatza kontinenteko katalanarengandik.

## 3. HIZKUNTZA MINTZATUAREN EGOERA

Jeneralean uste ohi denez, populu kopuru honen % 75 katalanez mintzaten da, 6.000.000 baino gehiago beraz. Eta Joan Coromines irakaslearen eritziz, berriz, 7.000.000-etatik gertuago ibiliko litzateke errealitatea.

Nahiz eta katalan mintzatuaren egoeraren ezagupen zehatzak bere zailtasunak erakartzen dizkigun, eman dezakegu zenbait funtsezko datu hainbat herrialde berezietako egoerari dagokionik.

### 1. **Printzerria** (Barcelona, Tarragona, Lleida, Girona)

Lehen baieztapen bezala, esan dezagun *bertako* populazioak jatorrizko hizkuntzari bere giza maila guztietan eta lurraldearen zabalgo osoan eutsi izan diola.

Berrikitsu egin izan diren inkesta batzuri jarraiki, legegizon eta medikuak beren kontsulta profesioaletako % 80tan katalanez mintzaten dira. Unibertsitari kursoak katalanez ematen dira sarri askotan, espainol erabaki ofizialen kontrajarrera garbi batetan. Populuarentzat “arrotz” eta “gaztelanidun” hitzak esan nahi berdinekoak dira: “à aucun moment les classes populaires n’abandonneront davantage un sens plus vague, mais parfois plus violent, du groupe: pour elles tout homme qui ne parle pas catalan est un étranger” (Vilar).

Hala ere, inkestaren egileek diotenez, eta iragan denborari buruz batipat, nabari izan da hizkuntzarenganako halako zapuzketa bat aristokrazia eta goi burjeseriaren baitan: “katalan noblezia ez da iadanik ez noblezia eta ez katalana. Momia antzeko zerbait besterik ez, Egiptokoen antzera. Gorputz bizi bat

zen lehen, indartsua, ahaltsua; izpiritu eta hizkuntza kendu zitzaizkion eta gorputz baten hezurak biltzen dituen narru zikin, zahar, zimur batetan bilaka du denborak. Zapuztu zuen katalantasuna, eta ez da deus gaur”, zioen Prat de la Riba-k.

Katalanen erabateko postura orokor hau zihurtasun honetatik datorke, hots: Katalunia, ez bada katalanez, ez dela Katalunia pentsatzetik, hain zuzen. Zentzu honetan mintzatzen zaizkigu behintzat ikerlariak “hizkuntz abertzaletasun” bortitz batetaz dihardutenean.

#### a) *Inmigrapena eta elebitasuna*

Printzerrian gaztelani elebakartasunaren arazoa etorkinen, ez-katalanen artean eta hauen inguruan planteiatzen da gehienbat, populuaren zati garrantzitsu bat osatzen dutenez gero.

Duela urte gutti arte, nahiz eta kultur eta politik lanabesen ausentzia osoa ukan, eta 1939az geroztiko hizkuntza ofizial bakarra gaztelania izan, inmigrante edo etorkinen integrakuntza berehalaxe gertatzen zen. Elebitasun problemen espezialistek diotenez, ordea, asimilatzekeko posibilitateek joak dituzkete beren azken mugak. Honela, Guy Herau-en eritziz, “L'acculturation des immigrants se fait aujourd'hui plus difficile; et l'on peut craindre que le seuil de saturation soit atteint” (*L'Europe des Ethnies*, 136 or.).

Populazioaren zati baten gaztelaniazko elebakartasunak, hirietan batez ere eta Llobregat hibaiaren luzeroan, administralgo ofizialaren babespean, katalan arazoaren ezezagupenean jarraituz, ekar dezake hizkuntzaren beherapena diglosiko sasi-elebitasun epe maltzur baten ondoren.

Jabeturik daude katalanak arrisku horretaz, eta honela, ohar gintezke gaur “elebitasun ofizialezko” soluzio ororen aurkako indarragotzeaz.

Jaume Rossinyol-ek dio bere liburu bikainean: “Il n'y a pas, et il n'y a jamais eu, stricto sensu, des peuples bilingues, mais seulement des états de transition, accidentels, de bilinguisme, qui doivent se résoudre, tôt ou tard, par le retour à la langue vernaculaire, lorsque celle-ci refuse de disparaître, ou par le triomphe définitif de la langue imposée. La situation substantiellement instable et inconfortable des états de bilinguisme débouche inéluctablement dans un monolinguisme” (*Le Problème National Catalan*, 218 or.).

Instituzio edo erakunde mailan elebitasuna onhartzeak ere ondoren berdinera eramanen luke: “Katalanaren suntsipenera” (Rossinyol), “ezin bait daiteke inola ere elebitasun izenekoaren jite edo aiurri artifiziala, aldi batetakoak denez gero, ahantz”.

Elebitasun jaioberriaren sagaratze ofizial posible batek larri bizi bat sortzen du katalan “intelligentsiaren” baitan (eta honetaz pentsarazi behar liguke Euskal Herriko zenbait giro “moderatueta” aurkitzen den optimismo tajugabeak), azken hogeita hamasei urte hauetan gaztelaniak Katalunian egin duen aurre-erapenaren ezaugarri daitekeenez gero. Ouellette Quebec-dar idazlearen esaldiak dakartzkigu Rossinyol-ek: “dans un milieu de bilinguisme il n'y a pas de coexistence, il n'y a qu'une agression continue de la langue du groupe majoritaire” (218 or.). Eta gero, R. de Gourmont-i hitzak mailegatuz, jarraitzen du: “(Le bilinguisme est) une étape de transition (qui est aussi une étape de déca-



dence et de désordre), qui aboutit à l'utilisation maladroite, imprécise, dégénérée des deux langues”.

Eta larri hori datu objetibo askotan oinharritua dago. Badia i Margarit irakasleak, 1964ean Bartzelonako hiskuntz problemaren inguruan eginiko inkesta batek funtsezko bi ondoren hauk ematen zituen:

1. Katalunian bertarakotu diren etorkinetako hiruren bat bakarra heldu dela elebidun izatera (katalandun eta gaztelaniadun).
2. Etorkinen seme-alabetako % 93, katalana ezagutu arren, gaztelaniaz mintzatzen dela bere familietan.

Horrela bada: etorkin mugimendu edo uholdearen estatistik datuak, *Bartzelonari bakarrik* gagozkiolarik, ondorengo hauk ditugu:

1900/1960: 967.938 etorkin.

Beraz: 14.465 urte bakoitzeko.

Mugimendu hori bizkortu egin zen 1954 eta 1960 urteen artean. Urte horietako bakoitzari 26.753 etorkinen kopurua dagokio Konthiriratueta.

Guzti honek ez-katalanen hazkuntza desproporzionatu bat sorterazi du hirian:

<i>Urtea</i>	<i>Ez-katalan etorkinak</i>
1900	denetatik, % 28,9
1910	denetatik, % 21,5
1920	denetatik, % 29,6
1930	denetatik, % 34,3
1940	denetatik, % 30,4
1950	denetatik, % 35,3

Gaur egun, uste denez, Bartzelonako populazioaren % 40 ez-katalana da. 700.000 bat pertsona, beraz.

Hauetako “hiruren bat” (Badia) bakarrik bait da katalanez mintzatzeko gauza, garbi denez, une honetan Bartzelonako milioi erdi bat bizilagun gaztelaniazko elebakardunak dira. Ez dago dudarik bada, katalan mintzatuaren atzerapena, hiriburuan, nabarmen aski gertatzen dela gaur.

Ez-katalan guztien % 26,4, Kataluniako beste industri multzoetan kokatua dago. Bartzelonako hizkuntz egoeraren antzeko sortzen duelarik. Hau, batez ere, Llobregat hibaiaren bi ertzetan baieztatu daiteke.

Muntaner i Pascual-ek dienez, *Printzerrirako* etorkinen zifra osoak hauk lirarteke:

1901 - 1950 .....	946.687 etorkin
1951 - 1960 .....	441.724 etorkin
1961 - 1965 .....	<u>414.062 etorkin</u>
	1.802.473 etorkin

Honen astuna eta larria dugu fenomeno hau katalan mailan bertan, ze gizarte oinharriak nabarmenkiro aldatzen doaz eta. Ez da harritzeko, bada, katalan giroetan “els altres catalans” horien masa izugarriak gero eta beldur handiagoa sortzea.

Faktore turistikoari dagokionez (udako inmigrazioa, bigarren egoitzetarako lurren saltzeak, etab.), katalanaren egoeran okerragotu besterik ez du egiten eta, bego aipamen hutsaz.

Textuinguru honetan bakarrik uler daiteke katalan intelektualen ezinbesteko jarrera bortitza.

Manuel Pedrol soziologoak dio: “Avant d’arriver cependant à une situation (bilinguisme) qui ne nous permettrait pas de nous défendre, parce que nous aurions cessé d’exister comme peuple, notre instinct de défense et notre volonté de survivre nous conseillent de mettre les points sur les ‘i.’”

“Euskaltzale” sutsuenak ere, textuinguru honetan, euskal hizkuntzaren oso defendatzaile pelak bezala gelditzen zaizkigu.

## 2. Balearak, Valentzia

Ez da erraza herrialde hauei dagozkien datu zehatzak eskuratzea.

Berorietan industri fenomenoak Printzerrian baino garrantzi ttipiagoa badu ere, turismoa, aldikako inmigrapen hori, oso bizia da, Irletan batipat.

Bestalde, valentziar eta balear errejioak “Katalunia” ofizialeko lau probintziak baino deserrotuagoak legozke beren katalanismoan.

Badaude, gainera, Valentzia eta Alacant-en, Murtzia eta Teruel-ekin dauzkaten mugen ondoan, katalana galdu edo inoiz ere ukan ez duten lurraldeak (ikus alboko mapa): Segorbe, etc. Valentziaren Mendebaldean, zenbait puntutan Mediterraneotik 20 Km.-tara bakarrik, gaztelaniazko lurralde zabal bat hasten da, hedadura ezberdinetakoa (70 km.-taraino gehienez) eta Ipar-Hego 150 km. luzerokoa. Horrelako zerbait gertazen da Oriola-ren (esp. Orihuela) inguruan ere, hegoaldeko puntan, ez bait da hemen ere katalanik eza gutzen.

Horretaz aparte, hiri garrantzitsuenak ere (Alacant, Valentzia) eta industri herriak (Sagonte), arras zabal-sakonki gaztelaniatutako lurraldeak ditugu.

Ez dugu, beraz, uste (datu estatistiko zehatzagoren faltaz), katalanak Llevant eta Valentzia aldean duken egoera, Printzerrikoarena baino eskasagoa dela esaten ausartegi jokatuko genukeenik.

## 3. Rossello

Ipar Euskadirekiko Pyrénées Atlantiques-ekin gertatzen den bezalaxe, “Pyrénées Orientales” deitu frantziar Departamentua ez dator bat Rosello katalan lurraldearekin, eta horregatik oso zail gertatzen da estatistik datu zuzenik erdiestea. Pyrénées Orientales deitu Departamentua bi eskualdek osatzen dute: katalan aldea bat (Elna —Illiberri iberieraz— hiriburu zaharraren lurraldea) eta okzitaniarra bestea, Fenouilledes deitu lurraldea: Sournia, St. Paul de Feunouillet, Latour de France.

Rosello oso lotua egon izan da Bartzelona eta Printzerriko bizitzari mende osoak zehar.

Ez da ahaztu behar, bestalde, Perthur ateak —nazioarteko kamioak gurtzatzen du berau eta estatu frontera da 1659az gero— 285 metroko altura besterik ez duela. XIX. mendearen azken aldera hasi zen muga ofizial

hau benetako muga izaten, ekonomi eta politik alorretan batipat, eta bertan behera lur jo zuen Rosello-ko ekonomiak. Horrelaxe hasi zen, Ipar Euskal Herrian bezalaxe, odolustutzen, eta oraindik ere badirau atzerriratu behar honek, urteko 500/1.000 katalan gazteren galera suposatuz.

Oinharriko fenomeno horietaz aparte, aipatu behar da, bai eta, nola lurraldea ez-katalanei saltzen ari zaien, ez-katalan horik frantziarrak edo beste nazionalitatekoak izan. Rosello alde osoa “bigarren egoitzezko” eremu ikaragarri bat bilakatzen ari da.

Oso nabarmena da Ipar Euskadiren kasuaz duen kidesuna.

Gaur egun, Rosello-ko 11 komunek beren lurretako % 20 baino gehiago atzerritarren eskuetan dituzte, eta beste 5ek % 50 baino gehiago salduak. Eta kontu egin behar da, bestalde, gelditzen diren 80 eta % 50-tako lur zati handiak frantziarrenak direla: hauk, definizioz, ez bait daude atzerritartzat joak.

Roselloko lurrek utzi zioten katalan izateari. Eta hau datu esanguratsu eta oso batez frogatzen dugu: oneritiztat jotzen denez, lurralde guztietatik % 60 baino guttiago legoke gaur egun berorien eskuetan.

Udako turismoak eta bai eta neguak ere (ehiza, mendi) lurperatu egiten ditu benetan katalan herriak. Argeles-en, esate baterako, jendetza 20 aldiz gehiagotzen da udan; % 95 arrotz gehiago, beraz, garai horretan. Katalantasun ororen deuseztapen aldizkako hori gauza gertatukotzat ematen da herrialde gehiengotan. Honela Colliure-n, Port-Vendres-en, Bañul-en, etab.

Asimilatzeko makineriak ez du funtzionatzen Ipar Katalunian: etorkinak (funtzionarioak, turistak, oligarkak, frantziar erretiratuak) ez dira katalana ikasi beharrean sentitzen: “Il n’ y a plus d’assimilation, ni même d’intégration, des apports extérieurs de population” (Barnardó/Rieu).

Ezarrria dago iadanik diglosiaren egoera arriskutsua: populuaren zati batek ulertzen du katalana, ez du erabiltzen ordea. Zuzenki mehatxatua dago katalana Rosello-n.

Eritzi hedatu bat denez (*Serra d’Or*, 1970), Perpinya herriko hiruren bat bakarra da gauza katalanez mintzatzeko. Egin, familia giroan besterik ez badu egiten ere. Era berean, nekazari giroko bi hirurenak bakarrik ezagutzen dute. Kontu egiten badugu Rosello aldeko jendetzaren funtsezkoena Perpinyan dartzala, pentsa daiteke Ipar Kataluniako populazioaren erdia apenas dela gauza katalanez mintzatzeko. Eta, kontu egin behar da, bai eta, nekazari giroko % 25 bakarra —eta hauk zaharrak— dela benetan elebakarduna.

Galera hori mende honetan gertatu da, zeren kronistek diotenez, oraindik XIX. mendeko azken aldian ere Perpinya bertako elizetan katalanez egiten zen predikua.

Urte luzetan Ipar Kataluniako eskoletan irakurri ahal izan den manuak (“Soyez propre, parlez français”) eman ditu bere fruituak; eta suntsitzeko arriskuan jarri du bertako hizkuntza. Ez dugu ahaztu behar manu hori herriaren sozio-ekonomi hondamenaren garaian eman zela, behin herrialdea bere jatorrizko burutik (Bartzelonatik) ebakia izan zenean, hain zuzen.

“Irakaskuntzak, Bernardok idazten duenez, katalantasunaren azken urratsak garbitzen dihardu gaur egun, Katalan hizkuntzaren sustraiaren azken apurrak bezala dauden azentu eta horrelako beste urratsei ekiten die”.

Gaur, Ipar Katalanek, egunean 5 minututako irratsaioaren beste eskubiderik ez daukate beren hizkuntzan; eta noizik behingo eta ongi tartekaturiko 30 minututako teleaioaren eskubidea. Eskolak, administralgoak, etc., ez dute frantsesa beste hizkuntzarik ezagutzen.

Hizkuntzaz aparte (eta hau, erabiltzen den neurrian, jakina), kultur alorreko bereizgarri orokor bakarra “nova cançó catalá”k Roselloko lurraldeetan gero eta handiagoa duen arrakasta da: kantariak arrakasta berdinarekin abesten dute mugaren bai Iparraldean eta bai Hegoaldean.

Baina katalan politizapena, erabatekoa Hegoaldean, pizoihaletan dago oraindik hemen. Eta gazteen artean hori, zeren pertsona helduetako 98 eta 99 %k, katalan kezka deusik ere gabeko frantziar alderdiei ematen bait diete beren boza. Horrela bada, sozio-ekonomi mailan Rosellok Korsika gogorarazi badezake ere, politik kontzientziaren alorrean izugarritzko atzerapenean datza. Horregatik, gai hauetako zenbait jantziren eritziz (Bernardó/Rieu), berehalako aldaketa politikoak espero dira Rosello aldean.

#### 4. KATALANAREN BEHERAKADA ETA “REINAIXENÇA”

Katalana ez da gaztelaniaren edo frantseraren dialekto bat. Katalana ez da portugesa edo errumaniera baino landugabeagoa. Ez da, ez eta ere, Piriniotako frantses-espainol nahasketa hibridoa. Katalana, hizkuntza erromaniko bat da, frantsesaren, okzitanieraren eta gaztelaniaren kidekoa. Estatu hizkuntza bat, Erdi Haroan eta geroago ere. Frantsesaren pare-pareko egon zen Erdi Haroaren luzero osoan. Eta ez badu hazkunde berdina ukan ondoren, arrazoin politiko hutsengatik izan da.

Behin pellokeriazko oroitzapen labur hori egin ondoren, goazen katalana erromaniko hizkuntzen textuinguruan lekutzerara.

Erromatar Enperadoregoak V. mendean lur jo zuenean, kristau haroko lehen mendeetan nabarmentzen hasiak ziren dialektoen bereiztasunak areagotu egin ziren, eta horrela, poliki baina pausorik galdu gabe, “hizkuntza erromaniko” edo latinoak deitzera eman izan den hizkuntzak sortu zitzaizkigun.

Iadanik IX. mendean zenbait textuk garbi aski aurkezten digu katalanaren bereiztasun zehatzetarikorik.

Ikuspegi zientifiko hutsetik behatuz gero, arazo hauetan jaio direnek (ikus C. Camproux-en “*Les Langues Romanes*”, adibidez) *hamaika hizkuntza erromaniko* bereizten dituzte, eta hauetariko bat bakarra suntsitu da gaurdaino, XIX. mendearen azken aldera: dalmaziera, gaur eguneko Yugoslaviaren itsas egian mintzatua. Beste hamar hizkuntzak, Mendebaldetik Ekialdera aipatuz gero, hauk ditugu: portugesa (bere lurrez kanpoko dialekto den galegoarekin), gaztelania, frantsesa, okzitaniera, katalana, frankoproventzala, reto-friulera, sardiera (Sardiniakoa), italiara eta errumaniera.

Baina katalanak ez dauka bakarrik hizkuntz nortasun bat, Erdi Haroko *Katalan-Aragoatar Estatuaren hizkuntza ofiziala* ere izandu zen ordea.

Honek ematen digu mende haietako katalan hizkuntzaren hedaduraren arrazoia, berau Kataluniaren hegoaldera eta bai eta Mediterraneoko zenbait puntutara ere iristen zelarik. XIII. eta XIV. mendeek osatzen dute bere Urre Haroa, eta katalan nazional kontzientzia bera ere oso sendoa zen garai hartan.

Aldi honetako obrarik funtsezkoenak katalanez idatzi ziren. Ramon Llull (1235-1316) katalan filosofo ospetsuarenak, esate batetarako. Erdi Haroko katalanez idatzia, honen lanak 30 liburuzko multzo bat osatzen du. Beste idazleren artean, hor dugu bai eta Sant Ramón de Penyafort ospetsua...

Katalanaren beharakada, katalan errege leinua suntsitzean hasten da (1410ean), eta areagotu XV. mendearen azken aldira, espainiar Estatuaren bateratzea Gaztela ingurua egiten dela eta.

Beste zartada berri bat, katalantasanari eta hizkuntzari, XVIII. mendearen haseran ematen zaie, “usatges” edo foruak ezeztatzen zaizkienean. Baina arazoaren zokoratze hau goi mailatan bakarrik jazoten da, ze gero eta kutsu herrikoia goa hartzen bait du bitartean: “Il y a, d'autre part, abandon par la noblesse et une partie de la haute bourgeoisie du catalan au bénéfice du castillan”. (Rosinyol, 206).

Hemen gogorarazi egiten dugu, “politik-administral faktoreak” direla eta, aurreko kapituluan esan guttia.

### *Eman den bidea*

Berbizte edo errenazimendu bidea XIX. mendearen aurrean aldira hasten da, eta lehenengo katalan idazleek Kataluniaren eta katalan hizkuntzaren alde egiten dute. Baina, gaztelaniaz ordea.

1859. urtean ematen dira lehen aldiko “Jocs Florals” edo Lore Jokoak, Europako beste hainbat puntutan bezala, hemen ere komunitatearen balore etniko eta berezgarrien kontzientzia suspertzearen adierazgarri bat bezala. Joan Cortada-k 1860an (bere *Catalunya i els Catalans* liburuan) dioenez, katalan arazoak “katalan etniaren izaera apartekoan” dauzka bere sustraiak, eta apartekotasun horren faktorerik funtsezkoena —eta beraz katalantasanaren ongien zertzen duena— hizkuntza da.

“Jokoek”, gaur oso folkloriko bezala ikus baditzaie ere, bete zuten beren eginkizuna iragan mendearen bigarren aldira, eta zenbait idazle aski ezagunen literatur profesiorako tranpolintzat balio ahal izan zuten. Verdaguer bati (1845-1092) Kataluniako “poeta nazionalari”, esate batetarako: 1877ko Jokoetan sari-tua izan zen. Eta honen atzetik hor dugu bai eta Joan Maragall (1860-1911), katalan letra eta politikako irudi ospetsuenetakoa.

XIX. mendearen azken alditik, “Jokoak” gero eta politizatuagoak agertzen zaizkigu, lehenengo kutsu folklorista eta erromantikoa zokoratu: “Hizkuntza batez mintzatzeko den herria berbiztu gabe, zioen Pico i Campanar-ek, eta herri horri mintzatzeko beharrezko lituzkeen baldintzak eman gabe, hizkuntza bat berbiztu dadin nahi izatea, gorputz hil bat berriz mintza dadin nahi izatea bezala litzateke, baina lurperatua izan den hilobitik atera gabe, noski”. Ez dirateke, beraz, oso urruti Prat de la Riba-ren eztenkadak.

1879an “*Diari Català*” sortu zen, katalanezko lehen egunkaria, eta 1880an lehenengo “Congreso Catalan” zelakoa biltzen zen, berehalaxe erregionalist

eztandaren lehen zantzu bezala agertuz. Izan ere, honek eraman bait zituen alderdi nazionalistak “Estat Catalá” batetara eta Boterearen bortizki hartzeko estrategiara.

## 5. LITERATUR BATASUNAREN PROBLEMA

Bere zortera abandonatua izan zenez gero (famili arteko, ahoz-ahozko eta analfabeto huts transmisio batetara beraz), katalana, XIX. mendearen haseran dialekto askotan banatua aurkitzen zen: “la langue catalan était devenue un dialecte rural eta un parler domestique rempli de calques”.

Literatur berbiztea *katalanez* egiten hastean, Erdi Haroko tradizioa oso urruti zegoen, herriak ez zuen ezagutzen eta ez zitekeen hartaz balia, mendetako zaputzaren ondoren, egungotzeko eginahal ikaragarri baten ondoren baino. Eta idazleak berak ere, beren bizia ebakia luketen herri guztietakoak bezala, *dialektoen desberditasunaren* aurrean aurkitzen ziren.

Literatur hizkuntzaren batasuna, beraz, beharrik premiazkoenetako bezala sentitzen zen.

Eta horrela, XX. mendearen haseran, Pompeu Fabrak (hizkuntza mintzatuaren eta literatur hizkuntza zaharraren ezagutzailerik zorrotzenetako honek) bere esku hartu zuen katalan idatziaren birbateratasun eta egungotzearen eginizun izugarria.

1913an, zenbait katalan erakunde pribaturen babesari esker, aurkeztu ahal izan zituen katalan batuari buruzko bere tesisaren oinharriak. Herriaren sentimendu abertzale sakonaz sumatzen ez zekitenen harridura osorako, populu osoak gogo beraz onhartu zuen ortografi araudi berria; eta, beharrenez kontzientzi kolektiboaren erakusketa bat egin nahiz bezala, ikasteari eta erabiltzeari ekin zion. Fenomeno honi buruz P. Vilar-ek idazten zuen: “On a pu voir au XX siècle en Catalogne ce spectacle peu banal: tout un peuple, dans ses couches sociales les plus diverses, acceptant spontanément, et comme gaiement, de plier son langage aux lois du grammairien Pompeu Fabra... C’est pourquoi il est vain de la parte des adversaires du catalanisme d’ironiser sur Pompeu Fabra, de l’accuser d’avoir “fabriqué” un catalan moderne, ‘artificiel’ ou ‘ressuscité’ une langue morte. Plus l’oeuvre sera convaincue d’artifice, plus il serait significatif d’en enregistrer le succès”.

Kolektibitatearen kontzientzi hartzeak komunikabideko tresneriaren batasuna eskatzen zuen, eta Pompeu Fabraren erabakiak kolektibitate eraikuntzaren erabateko laguntza bezala onhartuak izan ziren.

## 6. ERAKUNDE AURRERAPENAK

Bi hitz bakarrik saio honen mugetatik ez ateratzearren.

Mende honen haseran uhin boteretsu baten antza hartu eta ekonomi, politik eta hizkuntz alorrak garbitzen zituen katalan mugimendu horrek ez zuen luza-roan itxaron beharrik izan bere irrikarik minenak beterik ikusteko.

Burjeseria katalana eta bere “Lliga”-ren gorabeherak alde batera utzirik (“Mancomunitak” zelakoaren entsegua, etc.), gogora dezagun 1928an, Maciaren eraginpean, eta hango kolonia katalanak ikustatzeko asmoarekin Amerikara egindako bidaiak zela eta, *Constitució de l’Havana* deituraz ezagutuko zena idatzi zen. (Honetaz gero, espainol Errepublikaren etorreran proposatua izan zen “Nuria-ko” Estatutoaren oinharritzarako baliatu ziren). Eta gure saioari dagokionez, bertan “katalan hizkuntzaren aiurri ofiziala “A TITULO EXCLUSIVO” aldarrikatzen zen.

Katalan *elebakartasunaren* hildoaren barruti honetan, 1913an, Maciak Katalan Errepublika bere aldetik aldarrikatu ondoren, 1913ko Apirilaren 16an, katalana Printzerriko hizkuntza ofizial bakartzat deklaratu izan zen: 5. Art.: “Katalan hizkuntza, Kataluniako HIZKUNTZA ofiziala izanen da”.

Katalan eskolaren nahita-nahiezko tasuna deklaratu zen Printzerri osorako. Hamar urte bete arte *katalanez bakarrik* egin behar zen irakaskuntz gobernamendu hau; 8 ikasturtez bete ahal izan zen errejimen hori.

Hala ere, hizkuntz integrakuntzaren aurkako taldeei zilegi zitzaien espainiar eskolak eratzeko eskubidea; hauetan ere beharrezkoa zen, ordea, katalanaren irakaskuntza, asignatura bezala bederen.

Autonomi garaian (1931-1938) 23 egunkari eta 400dik gora aldizkari argitaratzen ziren Katalunian katalanez.

Autonomi erakundeen lurperatzeak, denok dakikegun geldialdia ekarri zuen.

## 7. EGUNGO BERBIZTEAREN ZENBAIT ZANTZU

Literatur alorrean, eta zenbait bosturtetako lozorroaren ondoren, katalan litaraturaren berbizkundera inoiz baino bortitzagoa dugu. Oraindik oraintsu “Times”-ek zioen: “The Catalan is certainly the most vigorous literature being produced in the Iberian Peninsula today, as well as the most varied”. Katalan literatura, Britainia Handitik, Penintsulako literaturetan boteretsuena eta aberatsena bezala ikusia da.

1960/1965 urte garaian argitara emaniko estatistikek diotenez, urtean 300 bat liburu argitaratzen ziren katalanez, eta 1937an, urteko 500 bat liburuko multzora iritsi zen.


Literatura Unibertsaleko obrarik garrantzitsuenak sistematikoki katalaneztatzen dira, eta gertatu izan da, bai eta, maiz aski, zenbait obra iraunkorrak lehenago ikusi izan duela argia katalanez, gaztelaniaz baino.

Unibertsitate bat gertutzen ari da azken 6 urte honetan, katalanez eta maila orotan, ahalik azkarren egungotu dadin. Prades-eko (Rosello-n) Udako Unibertsitateak izugarritzko aurrerapena egin du, eta orain 6 urte entsegu apal eta apetatsu bat besterik ez zenak (75 partaide), iragan urteko bi ekitaldietan espezialitaterik desberdinenetariko 1300 ikasle eta 300 irakasle bilerazi ditu.

Bere finantza iturriak “Paisos Catalans”-eko hiru kultur erakunde pribatu-  
ren fruitu kolektiboa izan da. Hala-nola: Bartzelonako “Omnium Cultural”-ek,

Printzerritik; Valentziako “Secretaria d’Ensenyament”, Llevant-etik; eta “Obra Cultural Balear”-ek Irletatik. Frantziako gobernuak, Perpinyako bere prefekturaren bitartez, 130.000 pèzetetako multzoarekin lagundu du.

Etorkizuneko katalan unibertsitatearen aitzinirudi izan nahi lukeen Pradeseko Unibertsitatean, gai hauk eman dira katalanez: Katalan Hizkuntza, Hizkuntzalaritza, Soziologia, Arte Plastikoak, Arkitektura, Teatroa, Zinema eta Artearen Didaktika.







# 2. GALIZIA



- galegoaren muga
- ..... probintzial muga
- . - . - . estatal muga

## 2. GALIZIA

“Nahiz eta gure begiak ahalik gehien zabaltzen ditugun —idazten zuen Castela galegoak— Espainian ez dugu lau nazionalitate besterik ikusten... lau herri: Gaztela, Katalunia, Euskal Herria eta Galizia”.

Eta, hala ere, euskal eta katalan arazok halako herrikoitasun batez gozatzetik izan badute ere (hauen gauzarik funtsezkoenen ezagupen lauso bat bederen ukan dute penintsulako eta hemendik kanpoko sektore zabal askiek), ezin mintza gintezke era berean galegotasunaren jite bereziari buruz.

Alde batetik, batzuek ez dute ikusten “galego arazo” deituak zergatik izan behar duen portugez arazoari dagokion kapitulu sinple batez aparte gauza bat; adibidez, flandestar eta alsaziar arazoak nederlandar eta aleman herrien kapitulu extra-territorial huts bezalatsu ikusten dituzten bezala.

Eta, beste aldetik, galegoek berek ez bide dute beti beren etni jatortasun propioaren kontzientziarik. Baieztapen honetara, 1964ean galegoa Liturgian erabiltzeaz eginiko inkesta baten ondorioek —arras etsipengarriak bestalde— gakitze. Jesus Alonso Monterok mingoztasunez beterik dioen bezala: “Nekazal herri mailatako apaiz multzo eder bat, jaiotzetiko hizkuntza gaztelaniarekin identifikatuz... honen alde atera zen” (*Galizia Hoy*, 32 or.).

### 1. GALIZIAKO GEOGRAFI EGOERA ETA JENDE KOPURUA

Galizia ofiziala espainiar Estatuko Ipar-Mendebaldera aurkitzen da, lau probintzia hauetan kokatuz: A Cruña, Lugo, Ourense eta Pontevedra; 29.500 km.<sup>2</sup>ko zabalgoaz eta 2.676.000 bizilaguneko jendetza dauka gaur.

Etni problemek gertutik jarraitzen dieten guztiek dakite galego mintzatuaren errejioak muga ofizial horik errez gainditzen dituela (katalan mintzatuaren eskualdea Aragoako lurretan barrena sartzen den bezala) eta entzun bide dute, gutti edo gehixeago, “Bierzo-ren Problemaz”. Benetako beste-mugapeko Galizia berau, berrerosteke, Leongo Ponferradako lurraldeetan.

Galego abertzaleek hitz egiten dute bai (Castelao), “Ourense eta Lugorekin mugatzen diren beste lurraldeez”, eta gaur administralgoaren aldetik Galizia ofizialetik zatituak aurkitzen direnetaz.

Beste era batetara esateko: Galizia ofiziala, Galizia etnikoaren administral laburpen bat besterik ez da.

Galizia, berez, keltar herrietako bat da. Bere folklorea, adibidez, Britainia, Gales Herri eta Cornwalles-ekoaren antz berdineko da, nahiz eta bere hizkuntza, erromatarkuntzarengatik, Erdi Haroaren hastapenetan suntsitu bazen ere.

Galego-portugesaren zer-izan keltarra oso garbia da, eta horrelaxe azpimarratu izan da galegoaren hizkuntz bereiztasunei buruzko estudio guztietan bereziki.

## 2. PORTUGAL ETA GALIZIA

Castelaok badu espainiar Galizia portuges Galiziarengandik bereizten duena definitzeko esaldi mamitsu eta bitxi bat: bata, Galizia “que se foi” (joan egin zena), eta bestea, Galizia “que se quedou” (gelditu egin zena), izanen lirateke; “Gaztelari elkartu zitzaion” Galizia, eta “Portugal sortu zuen” Galizia, halegia.

Eta hau da Historiaren egia.

Ezjakintasun eta alienazio guztien gainetik, portuges eta galegoen baitan ere bai, ez dago errealitate objektiboa eztabaidatzerik. Zientziaren ikuspegitik, ez dago inongo zalantzarik Galizia eta Portugal enbor bat beraren bi adar direnentz. Galiziarrek berek “galaiko-portugesak”-z hitz egiten dute enbor horretaz dihardutenean.

XV. mendetik, gertakizun politikoen zerikusiaz, galaiko-portugesaren batasun linguistiko-soziologikoa zartatzen hasten bada ere, galegotasunak eta portugesitasunak ez dute inolako jite berezgarririk 1640 arte, zeren urte honetan apartatzen bait da Portugal Espainiatik behin betirako.

Errege Katolikoentzat, iadanik —XV. mendearen azken alderako menperatu zuten lurralde hori—, ez dago Galiziarik, Galizia bezala.

Galiziar klase zuzendariak gaztelaniaratuak dira, herri xeheari bere gidari hoberenak ebasten dizkiote, eta Galizia, politik mailan, “errejio” berezi bat bilakatzen da... Zamoratik gobernatua! Hots: Galiziaz kanpotik, ez-galegoek eta galegoen interes eta pentsamoldeei uko eta trufa eginez.

Honelaxe hasten da “gelditu egin zen” Galiziaren nortasuna desegiteko bidea.

Bata bestearengandik apartatu egiten dira bi adar senideak. “Joan egin zenak”, Minho eta Duororen artean Kontherri autonomo bat bezala apalki sortu zenak, ondoren Lisboa eta Bejaraino zabaldu zenak, eta geroago, Historiaren inperiorik handienetako bat jasoz, Angola, Mozambique, Brasil, Goa, Timor-eraino hego egin zuenak, ahaztu egin zuela zirudien “gelditu egin zen” Galizia; Galizia apala, bere jatorrizko mugetatik sekulan atera ez zena. Eta horrela, ezjakin eta ahaztua, pobreziaren, masiboki desherriratzearen eta despertsonalpen etnikoaren zorigaiztoa jasan behar izan du hiru mende osoak zehar.

## 3. GALEGOAREN HIZKUNTZ EGOERA

Hizkuntza bakarra, “galaiko-portugesak” (apenas honengandik desberdintasunik baduten portuges ofizialak eta galegoak), bederatzi hizkuntza erromani-

koetako bat dugu, errumanieraren edo gaztelaniaren garrantzi berdinekoa.

Castelaok ongi aski definitzen zenez, galegoa “latinaren seme da, gaztelaniaren anaia eta portuguesaren aita”.

Minho hibaia iragatean galziarrak harritzen dituen “desberdintasun ttipi” horietarikorik badago ere, galego eta portugesen arteko elkarrizketa berahalaxe askatzen da. Eta esan daiteke, eta behar da, zientziaz hitzeginez gero, Brasilen, Portugalen, portugese kolonia izanetan eta Galizian, hizkuntza bat bera egiten dela: galaiko-portugesa. “Oraindik ere, Castelaok dioenez, 60 milioi baino gehiago arimekiko harremanbide gerta dakigukeen” hizkuntza da hori.

Estatu arteko mugek ezertarako balio ez balute bezala, galego idazleak portugese hizkuntzaren idatzi hautatueta agertzen dira. Eta, aldrebes, galego herriak inolako zailtasunik gabe uler diezaike portugese eta brasildar idazleei.

Galaiko-portugesa, egun, 80 bat milioi pertsonak mintzatzen du.

Brasilen .....	64.000.000 lagun
Portugalen .....	9.000.000 lagun
Port. Kol. izan. ....	1.500.000 lagun
Galizian .....	<u>2.000.000 lagun</u>
	76.500.000 lagun

Hizkuntza boteretsu, landu eta guztiz egungotu bat dugu, beraz. Baina legeek galiziar lurraldean, mende luzeak zehar, erabat baztertuta eduki dute.

Ikuspegi honetatik, galego hizkuntzaren arazoak gertuago daude Quebecoko frantziar etniak ezagutzen dituenetatik, esate batetarako, edo eta, adibidez, euskarak edo hebraierak bezala, ezagutzen dituztenetatik.

#### 4. GALEGOAREN EGOERA GALIZIAN

Guzti hori esan arren, galaiko-portugese hizkuntza, Galizian, landugabeko hizkuntza, “patois” da, “basa dialekto” bat, ezkutatuturik dagoena, hiri giroan eta herriko agintari edo jauntxo artean zeharo zapuztua.

1813ko agindu argiez gero (urte honetan agertzen da beharrezko edo derri gorrezko bezala irakaskuntzako lehen maila), Galiziako eskola gaztelaniazkoa da den dena, eta ez dira ezertarako kontutan hartzen bertako izaera bereziak.

Galaiko-portugesa, Brasilen eta Portugalen ofiziala izaki, Emilio Ferreiren hitzetan, “lingoa proletaria de meu pobo” da Galizian; mendeetan goitik behera aiena erazia administralgoan, irakaskuntzan eta Liturgian bertan ere.

Gogora dezagun, azken hari honetan prezeski, II Batikanoak elizetan bertako hizkuntzak erabiltzeko eman agindua bete ahal izateko, Unibertsitateko ikasle talde batek arduratu behar izan zuela (1965ean) “A Santa Misa” deitu bildumari zegozkion textuak gertutzeko.

Gales Herrian edo Flandesen baino areago, galegoa, "Historia sofritzen dutenen" hizkuntza da, Alonso Monterok esaten duen bezala. Zeren, nortzu mintzatzen dira galegoz? "Nekazari mundua, errejioko % 75". Honek explikatzen du 2.000.000 galego mintzodun bezala eman ohi den zifraren gehiegiaren arrazoia, zeren gaur nekazaritzatik bizi den jendetza ez bait da % 75ra iristen, Castelaok idatzi zuen garaian bezala.

Galizian, galegoaren (ala gaztelaniaren) erabilpena klase diferentziaren ezaugarri garbi bezala gertatzen da: "hiriko burjeseria zaharrak eta teknik sektoreek gaztelania erabiltzen dute". Horretxegatik oihukatzen zuen Alonso Monterok: "Mende oso batez, galegoz idaztea, nekazarien, desherriratuena, langileen, artisauen, arrantzaleen hizkuntzan idaztea da". Ez da harritzeko, beraz, egungo galego literatura gizarte kontestatari eta aurrerakoiaren zinu nabarmenekin aurkezten bazaigu. Orain mende bat ere, bestalde, zeinu beretsuak zituen Rosalia de Castroren lumak.

## 5. GALIZIAKO SOZIO-EKONOMI EGOERA

Izan ere, galego hizkuntzaren egoera pattal hori, mintzatzen duten maila herrikioen zorigaiztoko egoerari dagokio.

Europako herri guztietan froga daitekeenaren alderantziz, Galiziako jendetza, ugaldu ordez, gero eta urritzenagotuz doa gelditu gabe:

1955 .....	2.634.386 bizil.
1960 .....	2.631.018 bizil.
1965 .....	2.619.605 bizil.

Oso ezaguna odolustutze horren arrazoina: Galiziako gazteriaren talde handiak atzerriko bideetan aurkitzen dira, Europa eta Amerikan batipat.

1911 eta 1930 urteen artean, 733.176 galiziarrek alde egin zuten (urtean 37.000 inguru).

1940 eta 1960 urteen artean, *Amerikara bakarrik*, 352.843 galiziarrek alde egin behar izan zuten.

Eta 1960 eta 1965 urte bitartean (Europa eta Amerikara) 118.139 joan ziren (24.000 bat urte bakoitzeko, mendearen lehen urteetan baino guttixeago, ikus daitekeenez).

Etengabeko odolustutze honen kausa (300 galeko elkarte baino gehiago Buenos Aires-en bertan), inondik ere, ekonomi alorrean aurkitu behar da: galegoak Galiziatik, malakoak begietan, ez doaz hainbat abentura-zalekeriaz, bertan ezin biziaz eta nonbait bizi beharrez baino. Langabeziagatik alde batetik, eta bertako soldata, espainiar Estatukoaren aldean (hau bera Europako edozein herritakoa baino eskasagoa izanik), hiruren batez urriagoa delako, beste aldetik. Miseria beltza da atzerriratze izugarri horren ama, eta ez inola ere, noizbait aditzera eman izan den bezala, galegoen izaera berezi bat.

Ez da fenomeno berri bat atzerriratze hau: Rosalia de Castroren liburu

ospetsuenak ere (Follas Novas, 1880) salatzen zuen Galiziak jasan behar zuen zorrotenezko odolustutze hura.

Zerbaitegatik izanen da galegoa “saudade” hitza, hori erabiltzen bait da gehienetan, hizkuntza arrotzetan ere, aberritik urruntzeak eman ohi duen herri-mina adierazteko.

## 6. “AITZINDARIAK”

Galegoaren berbiztea ez da gaurkoa, eta ez da hutsetik hasten ere.

Gaztelar errege Alfonso el Sabioren “Cantigas” sonatuetaraino jo gabe (galegoz idatziak izan ziren eta XIII mendearen azken aldera), etendurak, hutsuneak, hala ere, hiru mende baino luzeago iraun du.

Galaiko-portugesaren goren aldia XV, mendean aurkitzen dugu, Galizia eta Portugal batasun baten zati zirenean, hain zuzen. Eta 1530 urtea eman ohi da galegozko produkzioaren azken muga bezala, Camoës-ek bere *Os Lusíadas*-ekin hizkuntza gorengo mailetatara jasotzen duen unean, zehazkiago esateko.

Lehenengo “Lore Jokoak” 1861ean eman zirenez gero, ez da batere zail, substrazio simple baten bidez, Galiziako literatur produkzioan egon den hutsuneaz jabetzeko, produkzio hori “bai zenbatusunean eta bai nolatasunean oso eskasa” gertatzen delarik. Horra bada 330 urtetako hutsunea. Elizak, bere “Señorio” eta horrelako beste tituluengatik 1423 leku bere esku eduki arren, ez zuen deus ere egin bertako hizkuntzaren alde.

Baina, behin XIX. mendeko erdi aldeaz gero, aski ezagugarri gertatzen zaizkigu galego mugimenduaren berbizkundeko zantzuak:

1843-1846: Narvaez Gudalburuaren aurkako askatasun lehiaketek zorigaitz hutsean bukatzen dute.

1855: Vicetto eta Murguiak, Coruñan, *El clamor de Galicia* egunkari errejionalista sortzen dute.

1856: Santiago ondoko Conxo-n, Murguia eta bere emazte Rosalia de Castreokin, joera ezberdinetako galegozale talde bat biltzen da Galiziako ekonomi eta kultur berbizkunderari bultzada bat emateko asmoz. Eta hauen artean, bai eta Antonio Falarde ere, 13 urte lehenago bere askatasun xedeetan frakasatu zuena.

1861: Lehenengo “Galiziar Lore Jokoak”.

Horratx bada, oso llaburki bada ere, “aitzindarien” ekintza. Ekintza honen ume bait da urteak geroago sortuko den galiziar sozio-ekonomi mugimendu errejionalista edo, nahi bada, garbiki nazionalista.

## 7. 1930-1936KO ERAKUNDE PROJEKTUAK

Brañes-en *El Regionalismo* liburua agertzen den urtetik (1899), *Castelaoko Partido Galleguista* sortzen duen arte (1931), eta ondorengo *Autonomi Estatu-*

toaren aldeko kanpaina arte (elebitasun ofizialarekin), galego mugimenduaren hizkuntz eta politik erradikalpena edozein behalari inposatzen zaion fenomeno bat da.

Federalista porrokatu (“Gu ez gara separatismo zaleak ez Espainia eta ez Europarekiko”) eta galaiko-portuges etnista ttipiago ez zen Castelaok (“galego eta portugesei, gure lurrak bezalaxe, geuron arimak elkartzea bakarrik falta zaigu”), 1832an Pontevedrako diputatu hautatu zuten gero, galegismoaren uhin berria bideratu eta mamitu egiten du. Eta lau puntu aurrerakoi hauetan bildu bere egitarau politikoa:

- 1.—Autonomia oso Galiziarentzat Espainiako Estatuaren baitan.
- 2.—Espainiar Errepublikaren eta Portugalen arteko Konfederakuntza.
- 3.—Iberiar Konfederakuntza Europako Batasun Federalean.
- 4.—Mundu Federakuntza.

### *Estatuto kanpainari dagozkion zenbait funtsezko datu*

Hona kanpainaren daturik garrantzitsuenak:

1929: O.R.G.A. (Organización Republicana Gallega Autónoma) sortzen da, bere ekintzailerik argitsuenetariko Castela eta Casares Quirogarekin.

1930-3-16: *Lestrove-ko Paktua* (errejionalist joerakoa) zenbait indar galegisten artean.

1930-9-26: *Pazo de Barrantes-ko Juntak* “Galiziaren handitasuna lortzeko bideak erraz ditzakeen politik eta administralgo autonomi osoaren” aldeko definitzen dira.

1931-5-6: Galego Estudioen Mintegiak *Seminario de Estudios Gallegos*, ORGA-k eta beste indar autonomistek elkartzea erabakitzen dute “Partido Galleguista” sortzeko asmoz. Castela izanen da honen arima, eta Espainiako Estatu barruan Autonomi Estatutoa erdiestea bere helburu.

1931-5-6: Galego Estudioen Mintegiak (*Seminario de Estudios Gallegos*), lan hori agindu zitzaionez gero, Autonomi textuaren xedeak aurkezten ditu.

1931-5-20: Galiziar Biltzarreak (*Asamblea Gallega*) Estatutoaren aldeko kanpainan eman beharreko urratsak erabakitzen ditu.

1932-12-19: Galiziako 256 udalen ordezkari, Galiziako Herriaren 80 %ko ordezkari, Santiagon biltzen dira, eta *Autonomia eskatzen dute Galiziarentzat*.

1933-1936: Lerroux eta Gil Robles-en gobernuek, administralgoaren bidez, luzapenak ematen dizkiote galegoen eskakizunari.

1936-otsaila: Herri Frentearen poderioa heltzerakoan, autonomi estatutua gogortzen da.

1936-6-28: Bozketa Autonomi Estatutoari buruz. Galizia, 76 %ko bozez, Autonomiaren alde ateratzen da.

1936-7-15: Diputatu galegoek bozematearen ondorioetan oinharrituz, Estatutoa berehalaxe eman diezaieten eskatzen diete espainiar Gorteei.

1936-7-18: Militar Altzamendua, eta gerla zibilaren hasera. *Concello de*



*Galizia* delakoak, Buenos Aires-etik bakarrik bete ahal izanen ditu bere egin-kizunak.

Orain bada, ahal den neurrian hizkuntz ikuspegitik begiratu, hau dugu eta lan honen asmoa, labur ditzagun hitz bitan Galiziako Estatuto galduaren erabakiak.

Katalunian eginaren parean, galegoa “hizkuntza ofizialtzat” erabakitzen zen Galiziarako, lau prohibintzien lurralde osorako, gaztelaniaren pareko, honek ere bere ofizialtasuna gorde egiten bait zuen. Gobernu zentralarekiko eta beste herri autonomoekiko ere (Katalunia eta Euzkadi), gaztelania hartzen zen hizkuntza ofizialtzat.

Beren egoitza Galizian zeukaketen Estatuko funtzionari guztiak elebidunak izan behar zuten; galegoz mintzatu behar zuten, beraz.

Lehen mailako irakaskuntza, ofiziala eta pribatua, elebidun deklaratu izanen zen Galizia osorako.

Bigarren mailarako, Hizkuntzaren, Literaturaren, Geografiaren eta Galiziako Historiaren katedrak sortzen ziren Galiziako Instituto eta Eskola Normal guztietarako.

Projektu hutsean geratu zen dena, noski; eta Curros Enriquez-en estatuen apurketek ongi adierazten zuten zer-nolako etorkizuna zegokien hizkuntza eta literatura galegoei giro politiko sortu berri hartan.

## 8. GALEGO LITERATUR PRODUKZIOAREN GORALDIA

Gerla zibilaren aurretik, Galiziako literatur mugimenduak eman zituen iadanik mundu zabalean ezagun diren hiru idazle: Lehenago aipatu dugun *Rosalía de Castro*, *Eduardo Pondal* eta *Curros Enriquez*, “Aires d’a miña terra” liburu ezagunaren egilea. Baina 1931 eta 1936 urteen artean bakarrik argitaratu ziren 300 liburutatik gora galegoz (liburu bat aste bakoitzeko).

Gerla garaian eta ondorengo urteetan behar handia nabaritu zen produkzio horretan (eta hori Buenos Aires-ko koloniak eutsita).

Baina 1958az gero, galiziar mugimendu literarioak ekin dio berriz ere abiadari, eta, 1958 eta 1963 urte bitartean ikusi ahal izan dute argia 200 tituluk.

Gaur egun gauditua daroke gerla aurreko literatur produkzio maila. Eta 1963az gero, galiziar idazle eta literatur zaleek “Galego Letren Eguna” (Día de las Letras Gallegas) ospatzen dute.

\* \* \*

Beste herrialdeetako nortasunez jabetzearen fenomeno hori hasia da Galizian ere. Intelektualak, gazteak, eta bai eta ezkertiarak ere (Union do Pobo Galego, adibidez) hasiak dira Galiziaren kausa hizkuntzarenarekin bat egiten.

Oharturik berbizite mugimendu hau, bere “leader” Castelao bezala (duela 26 urte atzerrian hila), “oraindik galego bagara hizkuntzari esker” direla, gero eta gehiago identifikatuz doaz, 1965eaz gero batez ere, galego hizkuntzaren eskubideen baieztapenaz.

Eta baieztapen hori, ezpairik gabe, gero eta politizatuagoa agertzen da, zeren gizaldi berriak ongi baino hobeto daki hizkuntz problema ezin daitekeela Galiziak egun borrokatzen dituen soziopolitik problemetatik at, eta are guttiago aurka, konpon.

### 3. IRLANDA

*“Nahi dugu, ez Irlanda libre bat bakarrik, irlanderaduna ere  
baizik;*

*Nahi dugu, ez irlanderadun Irlanda bat bakarrik, librea ere  
baizik”*

*(Terence Mc Swiney-ren manua. Gero 1916eko altxatuak bere-  
na eginen zuten.)*

Irlandaren kasua (Eireko Estatu nazionala sortuz, hizkuntzaren erabateko finkapenik gabe) Israelgoaren kontraposturan jartzen da, beherago aztertu-ko dugenez.

Bertako keltar hizkuntzaren zoria, letra hauk idazten dihardugun garaian, artean erabakitze dago. Halere, alde guztiek ikustera ematen dutenez, baldin eta gizaldi gazteak nazional hizkuntzaren aldeko borroka gogor bati lotzen ez bazaizkio, Irlandak, ingelesa hartuko du egiazko hizkuntza eta komunikabide bakartzat; bere askatasunaren aldeko heroen borondatearen aurka, Irlandako Konstituzioko textuen aurka eta zenbait irlandar alderdi politikoren agirien aurkako postura garbi batetan.

Zentzu honetan, Irlanda, kasu bakartzat jo beharko genuke, hots: bere nazio askatasunaren aldeko borroka garaipenarekin amaitu, eta Estatu nazionala lortzean eskuratu duen botere politiko eta instituzional hori ez du batere erabili bere etni hizkuntza indarberritu eta komunikabide normaltzat jartzeko.

Hainbat informazio iturritatik eskuratu ditugun datuak aztertu ondoren, nahiz eta hauk maiz aski kontraesanetan erortzen zaizkigun, irlandarrak hizkuntz egoera harrigarri horretara eraman ditzaketen kausak agertzen saiatu-ko gara.

## 1. IRLANDERA HIZKUNTZA KELTARRA DA

Jakina denez, irlandera edo “gaeliera” nahi bada -bere deitura berezitik ger-туago dagoke eta— hartzen duen keltar hizkuntz taldea, indoeuropar taldeari datzeko. Hizkuntz talde honek Europako ia hizkuntza guztiak hartzen ditu, honako hauk izan ezik, hain zuzen: Kaukasoko hizkuntzetako batzuz, finlandiar-hungariarretako taldea (suomiera, estoniera, laponiera, hungariera) eta, jakina, euskara.

Keltar hizkuntzek, gaur egoera eskasean badaude ere, ukan zuten beren indarra eta zabalgoa aitzinako garaietan.

Gaur eguneko Espaina, Frantzia, eta Italiako Estatu lurraldeetako zati handi batetan keltar herriak bizi ziren erromatarren aurreko garaian. Hizkun-

tzok kontinenteko lurraldean erromatar enperadorego garaian suntsitu ziren gehienbat, eta Galizian berriz (keltar folklore-duna, jakina denez), Erdi Haroko aurren aldian.

Badirau oraindik “irla bezala” keltar hizkuntz talde batek baino gehiagok, baina hiltzear, egia esateko.

Erdi Haroaren haseran (V-VI) *kymbruera*, Gales Herria deituan erabilia, bretoi penintsulara “exportatua” izan zen, bertan suntsitua zen galieraren antzeko hizkuntza bat birlandatu.

Honen eboluzio berezitik datorkigu gaur egun “*bretoi*” hizkuntzaz deitzera eman izan dena. Honetantxe datza bata eta bestearen, “*Bretainia*” eta “*Britainia Handia*”-renak esan nahi da, deituren arrazoina.

*Kornik* hizkuntza, kymbrueraren senidea, eta gaur Britainia Handiko Cornwallis-en keltartzale batzuk erabiltzen dutena, duela bi mende suntsitu zen hizkuntza mintzatu bezala.

Hirugarren keltar talde batek, azkenik, orain aztertzeraz goazen *irlanderak* du oinharritzat.

Berarizko indarra ezagutu zuen irlandarak Erdi Haro garaian, eta bai eta luze-zabalgoko kontsideragarri bat ere Irlandatik Britainia Handirako migrapenaren bidez: *Eskoziako gaeliera*, adibidez (gaurdaino Highlands-etan eta iparraldeko irletan iraun duena). Hizkuntza hau ez da Erdi Haroan (V-VI mendeetan) lurralde horietara ekarri zen irlanderaren kera gaurkotu eta bertakotu bat besterik. (ikus oharra.)

---

Oharra: Espezialistek argitaratu zifrei dagokienez, gaelieradun populazioak Eskozian eman duen eboluzioa —egun zeharo elebidun aurkitzen da—, honako hau da:

1901:	230.806	bizil.	(% 5,6)	populazio osoarekin gonbaratuta
1911:	202.398	bizil.	(% 4,6)	populazio osoarekin gonbaratuta
1921:	158.779	bizil.	(% 3,5)	populazio osoarekin gonbaratuta
1931:	136.135	bizil.	(% 2,8)	populazio osoarekin gonbaratuta
1951:	94.282	bizil.	(% 1,8)	populazio osoarekin gonbaratuta

1951. urtean 2.652 irlandar gaelieradun elebakardun bakarrik gelditzen ziren, eta adin aurreratukoak denak.

Kanpoko Hebri irletan, ekonomi krisi bete-betean aurkitzen dira, eskoziar gaeliera diglosi egoeran dago, baina zerbait bizirik hala ere gaurdaino.

1931:	35.239	bizil.	(% 91,9)
1951:	30.682	bizil.	(% 89,5)

Irla horietan *Stornoway Casette* ingeles-gaelieradun astekaria argitaratzen da, bere 12.000 aleko salmentarekin, 1968an. Stornoway, arrantzale herria da, eta 1951n bertako bizilagunetako % 76,2k gaelieraduna zela aitortzen zuen.

Eskoziako alderdi Nazionalistaren aurrerapen izugarriak, Alderdi Marxista-Leninista keltartzale bat ukaitak, etc., ez du ematen, gaurdaino behinik behin, hizkuntz alorrean berbize mugimendu bati sorrerarik eman diotenik.

## 2. GAELIERAREN BEHERAPENA: KAUSA ETA DATU KUANTITATIBOAK

Nahiz eta egia izan bere izate ofiziala 1501ean galdu zuela, gaeliera mintzatuaren atzerapena Cronwel irlaz militarki jabetu zenetik (1649) hasi zen, borrokan 500.000 irlandar nazionalista opaldu ondoren.

Irlandarrak, gaur egun britainiar expansionismoaren justifikapen ideologiko bat eman dezakeen Erreforma protestantearen aurka zeuden, eta honetatixe sortu zen egun ezagutzen dugun “Irlanda katolikoaren” eta “Britainia Handia protestantearen” arteko etsaigoa. Erlijio diferentzia hau klase diferentziaz bat zetorren: bertako katolikoak ez ziren deusen jabe; protestante etorkinek, berriz, Harmada menperatzailearen babespean, dena kontrolatu zuten. Ingeles harmadaren sarreraz —bertako erresistentzia deuseztatu ondoren, lurjabe arrotzeko (protestante eta ingeles mintzodun) talde boteretsu bat landatu zen; eta bertako jabeak, katoliko eta gaelieradunak, beren lurrik emankorrenetatik (irlaren Ekialdetik batez ere) kanporatzera bortxatuak izan ziren. Gaelieradun eta katoliko hauk, era horretan menperatuak, lurgabetuak eta beren kultur nortasunean erasoak, edo irlaren Mendebaldera (ekonomi ahulekoa berau) biltzera, edo irlatik kanporatzera behartuak izan ziren.

Eta honelaxe eman zen, dena batera, erlijio ukatzearen, ekonomi morrontzaren eta hizkuntz asimilapenaren fenomenoak.

Britainiar administralgoa, bere ohizko kolonialist hildoari jarraiki, bertakoen interes eta gurariei entzungor, eta berorien nortasun bereziarekiko itsu, Irlandaren ekonomia explotatzeaz bakarrik arduratu zen.

Era berean, Londresko Gobernuak, 1831n, Irlandan lehen mailako irakas-kuntza hedatzea erabakitzen duenean, *Ingelesezko* eskoletaz dihardu.

Hemen ez dago irlanderarik.

Ch. Garnier-ek dioenez, “ofizialki, ikasleak britainiar haurrak ziren; Inglaterra historia irakasten zitzairen, ingeles marinelak, ingeles heroiak, sekula santan berenetaz aipamenik ere egin gabe” (L’Eire, 260).

Ikusten denez, hemen ere, liburu zuri honetako zenbait aldetan agertu den kolonialist esperientzia berriztatzen zaigu.

Iragan mendean Irlandako eskoletan Haurren Irakurgaietarako erabili ohi zen liburuak, 408 orrialde zituen; “hiru lerrotara” laburtzen zuen Irlandako arazo osoa (Histoire d’Irlande, Joanon, 94).

Iadanik 1841ean (jendetza guztia: 8.175.000 bizil.), 1846 eta ondorengo urteetako gosete izugarriak baino lehen, irlako ekialdeak galdua zuen gaeliera, eta Dublin, Belfast, Derry (geroago Londonderry izenez birbataiatua) ingelese-radun herri ziren, ekialdeko kontherri eta herrixkak bezalaxe. Derry-tik Corke-rra lerro bat marratuz gero, lerro horren Mendebaldeko nekazari eta arantzaleak bakarrik gelditzen ziren irlanderadun. Herrialde horretan ere, teoriarik 1950ean bertan gaelieradun bazen ere, goiko giza mailek eta herri osoek, administralgo ofizialarekin batera, ingelesa egiten zuten ezpairik gabe.

1840 urteetako uzta txarren ondoriozko zorigaitzoak irlako lurralderik behartsuenetan gozatun ziren, normala denez; irlanderadun eskualdeetan, lur

zatiketa inon baino handiagoa zen eskualdeetan noski. Guzti honek, oso *hautagailu* diren bi elementu erakarki zituen ondorio bezala: masa osoen desherriraztea eta ahuleriazko heriotzeak.

Irlandar herriak, hamabost urtetako epean (1845-1860) hiru milioi pertsona galdu zuen.

Zenbait autoreren eritziz, 1860az gero, gaelieradun herriaren egoera etsipen osokoa zen; baina iadanik 1858az gero, desirlandartua zegoen burjeseria tipia Londresen aurka aldatzen da, "Fenian" enplegatu eta artisauen taldeak sortuz. Hori dugu I. R. B. eta ondorengo I. R. A.-ren (funtsean hiritar) hazia.

Hizkuntzalaritza hutsaren alorrean, XVIII mendearen azken aldera hizkuntzaren etorkizunari buruzko zenbait poematan nabari den kezka zorrotzago egiten da, eta horrela, gaeliera berbizteko asmoz, "Gaelic Union" (1878) eta hamabost urte geroago "Gaelic League" (1893) taldeak sortzen dira. Bigarren hau definizioz apolitiko eta akonfesional deklaritzen delarik.

### 3. "GAELIC LEAGUE"REN EKINTZAK

Esan dugu "Gaelic League" ("Connrda na Gaeilge" bere irlandarazko deituran) ez zuela ez politikaz eta ez erlijioz deus jakin nahi; eta garbi gera zedin, bere fundatzaileak —Duglas Hyde protestante doktoreak— F. Williams jesuita hartu zuen mugimenduko idazkaritzarako.

Gaelic Leaguen berehalaxe I. R. B.-ko ekintzaile asko sartu zen izkutupean, eta XX. mendearen haseran iritsi zen irla osoan 600 komite ukaitera. Elebidun aldizkari bat zabaltzen zuen; irlandar folklorea, historia eta hizkuntza zabalteaz arduratzen zen, eta irakaskuntzan eta administralgoan irlandera sartzea zuen jomugatzat.

Alabaina, 1906 arte, gaeliera irakaskuntzan erabiltzea erabat debekatua zegoen, Gaeltacht-en bertan ere.

Gaelic Leaguek gehiago lortu zuen bere ekintzaileen psikologi giroa aldatzea, hizkuntz errealtatea bera baino. Eta egia esan, horietako oso gutti iritsi ziren benetan hizkuntzaz aldatzera, nahiz eta Mendebaldeko hegietan oporraldi ugariak egin.

Ez litzateke alferrikako izaneren, bestalde, zera aitatztea: "Gaelic League"-ko exekutiboak berak ere normalean ingelesez egiten zituela bere biltzarreak, halebria. Milaka maisu-maistra bidali izan zen Gaeltachteko Kolonietara; baina, hala ere, gaeliera ez zen sekulan *beharrezko* gertatu izan organizazioaren baitan (gero ikusiko dugun bezala, ez Finlandian eta ez Israelen aurkitzen ez dugun jokaera hauxe). Gogoan eduki dezagun oraingoz Gaelic Leagueren *azaleko* itsura hau, hots: gaeliera, Leaguez kanpo, Leaguez at, proposatzen dela.

### 4. GAELIERAREN BEHERAKADA ZIFRATAN

Gaeliera husdun (elebakardun eta ez-ingeles) populazioaren eboluzioa honela gertatu da:

1880: 64.000 bizilagun  
 1890: 38.000 bizilagun  
 1900: 21.000 bizilagun  
 1910: 8.000 bizilagun  
 1921: 0 bizilagun

Beraz: Irlanda bere Eireko Estatu nazionala ukaitera iristen denerako —Ir-lako 32 kontherrietatik 26 askatzen dira—, populazio irlanderadun hutsa (ez elebiduna) suntsitua da ordurakoxe.

Gaelieradun populazio osoaren eboluzio (=gaelierazko elebakardu-nak + ingeles-gaelieradun elebidunak) eman daiteke era honetan:

1880: 930.000 bizilagun  
 1890: 760.000 bizilagun  
 1900: 580.000 bizilagun  
 1910: 415.000 bizilagun  
 1921: 280.000 bizilagun

Hortaz bada: Eireko Estatuaren sorreran irlako populazioaren % 7 baka-rik mintza zitekeen bertako hizkuntzan, eta talde irlanderadun guzti hori, gai-nera, elebiduna zen. Gaur egun, Eireko Estatu libreak 3.160.000 bizilaguneko kopurua duke, eta Ipar Irlandak, gaizki deitu Ulsterrek (honek ez ditu bederatz-i kontherrietako 6 besterik hartzen eta) 1.300.000 pertsonako populazioarekin kontatzen du.

Ez da batere harritzeko, bada, gure zenbait aberkidek, Sebero Altube eus-kaltzale sonatuak bezala, haseratiko egoera kaltegarri honen aurrean harako erizpide hura ematea: “berantegi”.

1921. urteaz gero, populazio elebidunari buruzko eritzien arteko kontraesa-nak izugarriak dira; eta arrazoi argi batengatik hori: irlandeararen zein ezagupi-de maila eta zein erabiltze maila suposatzen du “elebidun” hitzak? Eireko Esta-tuak, irlandera estudianteko *ikasgai* bezala beharrezko egin badu ere —baina ez irakas-ikaskuntzako *tresna* bat bezala—, lehenago aipatu dugun hizkuntz pro-blemarekiko *azaletiko* ikuspegi hori behin berriz baieztatuz, gauzak nahastu eta errealtatea erabat okertu besterik ez du egin, benetako gaelieradun nazio-nalistak ez sumintzearren edo. Dublingo gobernuak badaki zein izan zen hiz-kuntzaren alorrean irlandar askatasunaren ikur eragilea. Baina, hala ere, irlandar komunitatea *Irlandatik at* balego bezala jokatzan du, hau da, gaelieradun herria Irlandako bititze errealtaren abstrakzio kitatzaile bat izanen balitza beza-la. Gaelieradun komunitatea, Dublindik, *politik ihespide* bat bezala ikusten da, eta ez mamitu eta desarrolatu beharreko *barne errealtate* bat bezala.

Gaelierari, politik eskuinak hizkuntzarekiko ukan ohi duen ikuspegiz begi-ratu ohi zaio, hots: *folklorearen bitxitasun* bat bezala.

Eta horrela, gaelieradunen estatistika ofizialetan halako lausotasun bat nabari ohi da.

Alde batetik, Mendebaleko “Gaeltacht”-etako bertako elebidunen zenba-kia, zaila bada ere zehaztea, gero eta urritzenagotuz doa; hizkuntzalari eta

ikertzaile guztiek hizkuntzaren “atzerakada garbi” batetaz dihardute; eta eman daiteke gaelieradun eta erabiltzaileen gutti gorabeherako zerrenda hau:

1921: 280.000 bizilagun  
1931: 210.000 bizilagun  
1941: 150.000 bizilagun  
1951: 100.000 bizilagun  
1961: 50.000 bizilagun  
1975: 30.000 bizilagun

Beste aldetik, berriz, “irlanderan diplomatutakoen” zenbakia, nazional hizkuntzaren ezagupenaren etsamina ongi iragan dutenen zenbakia, gero eta ugaltzenagotuz doa:

1936: 480.000 diplomatu  
1946: 588.725 diplomatu  
1961: 716.420 diplomatu  
1971: 800.000 (jendetza osoaren % 28,3)

Baina ez gara geldituko zifra landugabe horietan. Fenomeno horren kausak aurkitzeko, Irlandako sozio-ekonomik eta erakunde egoera aztertu behar dugu, bere sektore gaelieradunarena bezalaxe.

zioen: populazioaren % 6 bakarrik zela “gauza mintzatzeko”, gaelieraz, hitztorriarekin. Urruti benetan % 28ko zifra ofizialetatik. Pentsa daitekeenez, beraz, 180.000 bat pertsona mintza daitezke gaelieraz. Eta horrek ez du esan nahi hala egiten dutenik, ezagutzen ez dutenak erabat oztopo gertatzen zaizkie eta erabiltzeko posibilitate horretan.

Irlandan bizitza, egun, ingelesez egiten da, frantziar prentsak argi aski frogatzen digunez: “Ikas ezazu ingelesa... Irlandan”.

Baina ez gara geldituko zifra landugabe horietan. Fenomeno horren kausak aurkitzeko, Irlandako sozio-ekonomik eta erakunde egoera aztertu behar dugu, bere sektore gaelieradunarena bezalaxe.

## 5. GAELTACHT-EN INGURUNE SOZIOEKONOMIKOA

Goragoko parrafoetan garbi utzi denez, gaelieraren beherapena komunitatearen giza krisi bete-betean gertatzen da.

Cronwel irlaz jabetzeak eta ondorengo britainiar kolonialismoak, miseria beltzera jaurti zuten gaelieradun komunitatea. Ingeles lurjabe handien (“landlords”) klasearen parean benetako britainiar “pieds noirs” batzuk gertatzen ziren.

Ez da ahaztu behar irlandar Irlanda, Mendebaldekoa, “Gaeltacht” lurraldedun kontherrietakoa: Donega, Sligo, Mayo, Connacht, Clare, Kerry, Cork,

bere ipar melankoliazko baretasunaren natur aberastasunekin politena izanik ere, pobreena dugula ekonomi aldetik.

Pobreziak eta gaelierak, horrela, hertsiki elkarganatuak dirudite irlandar gogoetan. Eta era berean, badirudi ingelesa ikasteak eta sozio-ekonomik gorapenak esan nahi berdina dutela... *kolonia* giro guztietan bezalaxe.

Dublingo ekonomik plangintza guztiak ingelesdun-protestantte jabegoaren interesetan eta gaelieradun-katolikoen kaltetan eratu ohi dira.

Itanik 1824ean, gosete handien aurretik, Gustave de Beaumont-ek idazten zuen: “Irlandarrak, amerikano beltzak baino mixerableagoak dira”.

Honela irakurtzen dugu zientifiko huts *Etudes Celtiques* aldizkarian: “Gaeliera, populazioaren gogoetan, biziera atzeratu eta mixerable bati lotua dago, eta ez luke inork horrelakorik nahi. Gazteria, masiboki desherrituz doa herrialde deseredatu horietatik”.

Eta bidezkoa: gazteriarik gabeko mintzaira, hiltzera kondenaturik dago.

## 6. GAELTACHT-ETAKO HIZKUNTZ INGURUNEA

*Administralgo publikoari* dagokionez, Eireko Estatuko legedi ofizialek, gaelieradun lurraldeetako funtzionarioei nazional hizkuntzaren ezagupen sakon bat agintzen dien arren, ez dira sekulan bete arazi izan lege agindu horik.

“Arrazoin praktikoeekin” aurkitu izan dira beti erabaki hoiengatik aplikapenari luzapenak emateko.

“Gaeltacht”-en, lanpostu ofizial batetara iristeko, hiru urteko epea ematen da hizkuntza ikas dezaten. Ba, erabaki hori ez da sekulan errespetatu izan, eta legea letra galdua bilakatu izan da. Honela, 1962an agiri ofizialak berak zioenez, Gaeltachten Estatuaren aldetik zeuden 91 lanpostu ofizialetatik, 21 bakarrik (= % 23) zeuden irlandararen ezagupenean “konpetent” zirenak, eta beste 27 bakarrik (= % 30) ezagutzen zuten “good” mailan.

Horrek zera esan nahi du: 41 urtetako Estatu librearen ondoren, gaelieradun errejioan administralgo ofizialeko % 47k ez zuela nazio hizkuntzarik ezagutzen, hategia.

*1963eko Reportek* zioenez, gaelieradun zenbait herrialdetan apaizek artean ingelesez predikatzen jarraitzen zuten (37), tradizio zahar bati jarraituz: zeren protestanteak beren garaian tradukzioak egiten saiatu zirenez gero, katolikoak, kontrajarreraz, ingelesari laguntzen saiatu bait ziren... Beste gauza adierazgarri bat: irlandar elizak gertatu berriak ditu liturgi textuak irlandaraz, eta oraindik ez dago Bibliarik gaeliera moderno batetan.

Beste alde batetik, gaelieradun prentsa boteretsurik ez egotean (nahiz eta, ofizialki, 14 argitalpen aldizkari irlandaradun egon) “mass-media” guztiek komunitateak —zenbait Gaeltacht-en azken babesak— desnaziotzen dihardute. Era horretan, gaelieradun errejioko irlandarrek, britainiar enperadorego garaian zen gauza bera izaten jarraitzen du: “familiako hizkuntza” bakarrik; Gaeltacht-en bertan ere ez deus, zeren hizkuntza hori arrotzekin erabiltzeak halako ustekabeko kuttuntasuna sortzen bait du.



Gehiago oraindik, eta gauza bitxigarri bezala aipatzen dugu: 1963eko Reporterrek salaketa bat egiten zuen gaelieradun errejioko kaminioetan, artean, herrietako letreroak ingelesez irlandera baino letra handiagoz eginak agertzen zirelako.

*Irakaskuntzaren* alorrean ere berdin-berdina da gobernuaren zabarkeria.

Noski, agiri ofizialen arauera, Gaeltacht-eko haurren lehen mailako irakaskuntza “egin daiteke” gaelieraz (“was permitted in the Gaeltacht”, Report, 10) baina Irlandako haur guztiei, *gaelieradun errejiotakoak barne*, ingelesa ikasi “beharra” kendu gabe (“English is compulsory in the National Schools. (even in the Gaeltacht)”, Fcas, 6).

Gaeltacht-en bertan, 1963an, artean irlandera zko beharrezko eskol liburutegiak jarri gabe zeuden, zeren 1963eko informeak berak dioenez, ezagutzea bait da “ez dela praktikan ezertxo ere egin” haurrei irlandera zko liburutik premia zkoenak eskuratzearen (85. or.).

Irlandar bertako mintzairaren azken gordelekuei buruzko laburpen honen ondoren, pentsa dezake irakurleak berak Errepublikako gainerako lurraldeetan nolako egoera dagokeen, eta zer esanik ez Iparraldeko Ulster-ko “inperial” herrialdean.

Kapitulu hau bukatzeko, esan dezagun, Gaeltacht-en (1066) 221 eskolak irlandera ikasgaietako “zenbaitetan” lan hizkuntza bezala (“any of their subjects”) erabiltzen duela: eta horrek, esaera errazago bateratuz, zera esan nahi du, halegia, Irlandar Irlandan bertan ere, lehen mailako irakaskuntzaren *zati bat behintzat* ingelesez egiten jarraitzen dela.

1963eko informeak onhartzen du irlandera lehen mailako irakaskuntzan “generally, not universally” erabiltzen dela herrialde horietan.

## 7. GAELTACHT-ETIK KANPOKO HIZKUNTZ ARAZOA

Badago haseratik gorde beharreko zifra bat.

Dublinen argitaratutako *1963ko Reportek* berak dioenez, Eireko Estatu libreak (1963ean) bere presupuestoko % 0,3 bakarrik ematen du herriko lehen hizkuntza ofiziala sendotzeko.

Haruntzago doa *Facts about Irish* liburua: “% 0,2/0,3 of the National Budget is beign spent on Revival” (21. or.).

Ez gaitu batere harritzen, bada, keltar-arteko *Carn* liburuak (1973) honako hau badio: “There has always been a great del of hipocrisy on the part of Irish governments towards Gaelic”. Ez da harritzeko irakurtzea zenbait aldizkaritan, eta harrandiarekin gainera, Irlandak bere misio katolikoetarako diru gehiago eman duela hizkuntz berbizkundearen eginkizunetarako baino. Hildo berean, esan dezagun, bai eta, oraindik 1968an, Coogan historigilearen eritziz, “Irlandak katoliko misioen ekintzetan xahutzen zuena, proportzioan, E.U.-k Vietnam-en egiten zuen militar gastuaren parekoa zela” (316. or. *Histoire de l'IRA*, 1970).

Dublingo Gobernuaren zabarkeriazko jokaera honen beste alderdi nabarmen bat, noski.

1973an Departamentu-Arteko Komisio bat eratu zen irlandar hizkuntzaren aurrerapenari gertutik jarrai zekion. 1939-1945 urteetan Komisioa, gerla zela eta, geldierazia izan zen; ondoren, Irlandako Gobernuua ez zen batere arduratu haren berritzeaz, eta Komisioa suntsitu egin zen. Azkenik, noizbaitean, 1958ko uztaillean, 19 urtetako ahanzi objetiboaren ondoren, Hizkuntz Komisio bat eratu zen (“An Coimisiun um Athbheochan na Gaeilge”), 1963ko Informe aipatua eta beste lanak atera zituen.

## 8. EGOERAREN BESTE ZEINU ADIERAZGARRIAK

Hainbat bider aipatu dugun 1963ko *Report* honetako beste datu bat: Irlandako Parlamentuko bi ganbaretan hitz egiten denetik % 2 baino gutxiago bakarrik egiten dute irlandaraz; eta, horrelakorik gertatzen den bakoitzean, diputatuetakoko talde batek salaketa egin behar izaten du (“occasional protests”), arrazoituz, zeren denek dakiketenez, nazioaren ordezkarietako gehienek ez bait dute gaeliera ezagutzen. Beste era batetara esateko: diputatu horiei ez zaie aski iruditzen Parlamentuan hitz egiten deneko 98 % ingelesez izan dadin, eta areago jo behar dela iruditzen zaie, hots: nazio hizkuntzaren deuseztapen osora.

Esaten da, bai eta, postura horretan sustrai “elektoralistak” datzabela: ingelesdun sektoreetako diputatuak “ez dira ausartzen” beren bozemaileekin aurrez-aurre jartzera (*Facts about English*).

1929eko Martxoan, iadanik, Gobernuari, Zuzenbideko ikasleak gaeliera (mintzairaz eta idatziz) ikastera behartzen zituen legeproiektu bat aurkezten zitzaiola eta, legegizon eta abokatuak aurka jarri ziren “gramatikarik ez zegoe-la” aitzakitizat hartuz. Horregatik, irlandera ez da sekulan erabilia izan hauzitegietan, ez eta gaelieradun populazioko mendebaldeko kontherrietan ere (*Report 1963*, 31).

Irlandar nazio himnoak badu bere ingelesezko testua, “The wearing of the green” izenez ezagutua.

Ikus dezagun irlandera zenbat erabiltzen den bulegokrazian: gaelieraz eginitako “paperketa” ez da, oro har, 2 %ra iristen, eta Estatuko enplegatuetariko % 9,5k bakarrik pasatzen du bere denboraren hiru laurdena irlandera erabiltzen den eginkizunetan.

28.000 enplegatu ofizialetatik (14.000 baino gehiago Dublinen) % 14k bakarrik dauka irlandararen hitz-etorritzko ezagupena, 10.000 baino gehiagok (% 36) ezagupenaren aztarrenik ere ez daukan bitartean.

“Politikoen” alorrean, hizkuntzarekiko *benetako* postura, guttienez agertu hori bezain lauso eta hala-holakoa da. De Valeraren aldizkariak, Irlandatik Amerikara alde egindakoen laguntzari esker sortu eta elebidun bezala pentsatuak, apenas tartetxoren bat ematen zien gaelierazko idatziei. Horrela, De Valerak berak ez zuen ezpairik ukan Gaelic League-ren beraren aurrean zera aitortzeko, hots, hizkuntz problemetan baduela “Estatuak berak ere apur ez ditzakeen mugak”...

Eboluzio honetaz arduratzen diren begirale guztiak, alabaina, ados daude puntu positibo batetan: dirudienez, gaelieraren erabilkera hedatua dagoke har-

madaren baitan. Informeak batera datoz irlandera Cadete eta Infanteriako Eskoletan "the ordinary language" dela diotenean. Eta Gaeltacht-eko soldaduekin eraturako konpainietan irlandera izan bide litzateke erabili hizkuntza bakarra.

## 9. IRLANDERA, EZ-GAELIERADUN ERREJIOETAKO ESKOLETAN

Eireko Estatuaren sorreratik bertatik (1921) Irlandar Irakasleen Organiza- zio Nazionalak irakaskuntzako araubide bat eskatu zuen nazional mugimendu- ko hizkuntz jabetzearen asmoari zegokionez, eta horrela irlandeararen sarrera- rik zabalena erabaki irakaskuntzan *ikas gai* bezala (1925): "Irish should be included among the *subjects taught* in all primary schools".

Irlandera irakaskuntz *tresna* bezala *erabiltzeari* dagokionez, legedian egin zen salbuespen batek deuseztu egin zizkion gaitasunerako posibilitate guztiak. Izan ere, oraindik tinko dirauen salbuespen honek, baldintza bikoitz bat jartzen du Irlandera irakaskuntzako *hizkuntza*, eta ez ingelesez explikatutako gai huts bat, izan dadin:

- 1) Irakasleak irlanderaz mintzatzeko gauza izan behar du;
- 2) Ikasleek behar hainbat ulertu eta ikastaroa normalki eramateko gauza izan behar dute.

Lehen puntua gainditua izan da piskana-piskana paperean behintzat, mai- suek dauden sei eskola normaletako etsaminak pasa behar izaten dituzte eta; eta diplomatuen estatistiketan oinharritzen bagara, irakasleetako % 89k ederki ezagutzen du irlandera.

Baina bigarren puntuak izorratu egiten du legearen eraginkortasuna. Irland- da. 1922 urteetan, gaur bezalaxe, bere hizkuntzatik sakonki deserrotua zego- nez gero, ikasleak ez dira inon, irakaskuntzaren haseran, *gauzak behartu gabe* ikastaroei jarraitzeko gauza. Haurrek ez dakite eta, normalean, ingelesa beste- rik.

Eta horrela, zifra hauetara heldu gara:

### Lehen mailako irakaskuntzaren eboluzio orokorra:

	Ingelesez	Irlanderaz	Denetara
1960/1961 ...	4.530	350	4.880
1966/1967 ...	4.390	295	4.685

Egia esan, gaelieradun eskolen proportzio *ttattar* bat aurkitzen da ingeles mintzodun lurraldean, eta hori, lehen esan den bezala, ingelesa beti *derrigorrez- ko* delarik, Gaeltachten bertan ere.

Benetako egoeraren froga bitxi bat, 1964eko lege harrigarri hura dugu. Hark zioenez, 10.000 baino bizilagun gehiagoko herrietan guttienez gaelieraz- ko eskola bat ezarri behar zen... Ez dateke batere alferrikako izanen erabaki hau bera ere salatua izan dela esatea, eta Dublingo egungo eskolak (Bali-Muna,

Dundrum, Talaght) gobernuarekiko aurpegiz-aurpegiko borroka baten ondoren irekiak izan direla (manifestapen, sitting, etab.), eta subskribapen publikoz. Baina senesgaitzagoa da oraindik gobernuaren gehiegikeria hori: Dun Chaoin-go eskola, Kerry kontherriko mendebaldean (Gaeltacht-en bihotzean, beraz), “hiru urtetarako” irekia izan da 1973ko udan, eta subskribapen publikoz gainera!

Ez dugu batere harritu behar, zenbait aldizkarik (euskaldunek, Okzitanok) Irlandako Estatuak oraindik zentzurik bai ote duen, eta Dublingo Gobernu “Librearen” anti-irlandar politika britainiar agintepekoa baino etnozidagoa ez ote den izan galdetzen badute.

Oso esanguratsu zaigu, bai eta, harako hura irakurtzea: (Inf. 1963): “Lehen mailako eskola bakoitzak irlandarazko liburutegi bat *eduki beharko luke*, argitalpen apainekin”.

Azken urteotan inposatu diren irlandararen berbizkuntzaren etsaiek diotenez, gaelierarenganako hoztasunaren arrazoina Eireko Gobernuak erabili dituen “bortxakeriazko neurrietan” (??) legoke; eta, beroriek diotenez, irakaskuntzako hizkuntzaren “hautapen libre” batek, “liberalismo zabalago” batez jokatu zergo, ondoren hobeak emanen lituzke.

Experiencia hori egina dago, ordea, Eskozian eta Ipar Irlandan.

Bigarren herrialde horretan, bada (Ipar Irlandan esan nahi da), 1962an, eskola guztietako % 7,7tan bakarrik ematen zen irlandera “pixka bat”, *gai bezala*; eta beherakada areagotu egin da oraindik: 1966an, britainiar Irlandako eskoletan, % 6,36 bakarrik irakasten zen irlandera “piska bat” ingelesez emandako gai bat bezala. Eskozian ez da ttipiagoa “liberal” hoztasun hori.

Hitz bitan esateko: Irakaskuntzaren alorrean garbi agertzen da Dublingo gobernuak ez duela batere deserrotu lehendik irlandarrek berek zekarten nazio hizkuntzarenganako mespretxua. Eta horrela, zenbait autorek azpimarratzen duenez, gaelierarenganako mespretxu eta ezinikusiarekin batera “ingeles mintzoko literatura eta poesiaren aldeko uhin boteretsu eta paradoxiko bat” suspertzen hasia da. Eta, jakina, informee (Re. 1963, 27) onhartzten dute irakaskuntza osoa irlandaraz ematen den eskolen *piskanako beherakada* “azken hogeit urte hauetan”.

## 10. IRLANDERAZKO LITERATUR PRODUKZIOA

Hiru xehetasun esanguratsuk markatzen digute jarraibidea kapitulu honetan.

Lehenengo, haurrentzat argitalpen bat bakarrik ez dago. Gaelieradun eskoletan ikasten duten hurrek ezin dezakete maila horretarako apropos litzakeen deus irakur.

Bigarren, aldizko prentsan gaelieraz ateratzen denaren proportzioa, % 1 baino guttiagokoa da, informe ofizialen eritziz.

Hirugarren, irlandaraz ematen diren irratsaioen portzentaia, denboran, apenas % 3ra iristen den. Haurrentzako programat berak ere erabat ingelesez egiten dira. Calway irlandaradun eskualdeko abertzaleek irrati pirata bat jarri

beharra izan dute bertarako, irlandera, era honetan ezinezko “legeztapen” bat behartu nahiz.

Datu hauen ondoren ez gaitzake, iadanik, ezerk harri. 1926 eta 1961 urteen artean, “An Gum” elkarteak, bere ekintza urteak honuntz beherakadan badoa ere, 1187 titulu (34 urteko) argitaratu ditu, horietako 346 ipuin eta nobela berriak, eta 600 bat era askotako itzulpen.

“Bord na Leabhar Gaeilge” elkarte pribatuari dagokionez (Estatuak laguntza ttipi bat ematen dio), 124 liburu argitaratu ditu 10 urtetan (10 liburu urte bakoitzeko). Bi argitaldarien gastuak batera, 1962an, “An Gúm” elkarteak bakarrik 1937an eginikoak baino ttipiagoak dira.

Hizkuntz batasunaren aldeko lanak babes ofiziala hartua duke, 1958an “Gramadach na Gaeilge” izenarekin definitu ohi den gaeliera ofizial batuaren aldarrikapenaren ondoren; eta laguntza garrantzitsu bat izan da, bai eta, era berean, Tomas Bhaldraithe-k 1959an argitaratu duen 864 orrialdeko English-Irish Hiztegia.

## 11. INTELEKTUALEN PROBLEMA

1929an eskuindarrek ezarri zuten zentsurarengatik, irlandar intelektual gehienek atzerrira jo zuten, alde batetik; eta bestetik, berriz, batzutan faszist antzeko gobernu aparatoaren eta gazteria aurrerakoiaren artean etendura osoa sortu zen.

Horrelaxe gertatu zen, literatur produkzioaren alorrean, zenbaitek “benetako intelektual desertutzat” deitzera eman izan duena. Edozein inizatiba edo Fritika aurrerazale, berehalaxe Dublinek “nazioaren aurkako erasotzat” hartzen zuen. Joera atzerakoi honek 1967. urtera arte tinko iraun du, urte horretaz gero halako liberatze apur bat nabaritzen delarik.

Honatz, esate batetarako, Irakaskuntzako Komisioak 1950ean definituriko eskolaren funtsezko oinharria: “Gurasoen (eta eskolaren) lehen eginkizuna, haurrei Jainkoarenganako beldurra eta maitasuna irakastea da”. Horregatik, “lehen mailako eskolak parrokiako erretorearen edo honen ordezkorearen begiradapean jartzen dira”.

Gaelieradun poeta handiena, Mairtin o Cadhain, Connacht-eko Gaeltachten jaioa (Galway ondoan), 1970eko Azaroan hil zen, bere literatur etekinaren erdia baino gehiago argitaratu gabe utzirik. Dublingo Gobernuak 1939 eta 1945 urte artean gartzeletan edukia, IRA-ri lotua, bere anti-britainiar sentimenduengatik irakasleen zerrendatik garbitua, 1962 arte ez zuen lortu Trinity College Unibertsitate ingeleszaleko gaelieradun katedrara iristea (Dublinen berau).

Irlanderazko 25.000 liburu saldu zen 1968an Irlandan. Titulu ezberdinen zenbakiaz jabetuz gero, aise atera daiteke gaur egun ez dagoela mila bat irlandar baino irlandarazko libururik erosten duenik; eta irakurle guttiago oraindik, irlan dauden lau milioi baino gehiago bizilagunetatik.

## 12. AZKEN BURUTAPEN BATZU

Hizkuntz berbiztearen mugimendua, eta bai eta politik eta militar mugimendu nazionalista ere, *ingeles hizkuntzazko* mugimenduak izan dira Irlandan. Irlandar etniaren hiltzoria, etnografi sinpatiaz ikusi dutenen mugimenduak, baina irlandararen *beharrezkotasuna* bizitzako inongo alorretara, ez eta organizazio nazionalistetara ere, eramán ez dutenen mugimenduak izan dira. “Irlandera ez da benetan beharrezko, zenbait egoeratako proportzio ttipi-ttipi batetan izan ezik”, zioen S. O. Tuana-k bere *Facts about Irish* liburuan 9. or.).

Irlandar hizkuntzaren eskakizun ofiziala, *eguneroko bizitzaz* kanpoko *folklorezko* eskakizun bat izan da, eta halaxe izaten dirau.

Martxa horretan, birreraikuntza, ez daiteke irudimenezkoa baizik izan.

Elite mailan, ez da egon izan irlandar arazoaren *identifikapen objetibo eta efektiborik*, irlandar kultura berenganatuz eta ingelesa benetan zapuztuz, organizazio mailan behinik behin; baizik eta badirudi gaelieradun herria, giro irlandazaleetan, *komunitate arrotz* bat bezala hartua izan dela. Begi onez ikusia, baina berarekin identifikatzeko erabaki sendorik gabe. Oraindik oraingo idazleetan, adibidez, bir-gaelizapen bat proposatzen jarraitzen da Dingle (Kerry kont); Dungloe (Donega Kont) eta Galway errejioetarako. Hots: nekazari girotik hasita (kanpotik beraz) berbiztu nahi da hizkuntza, beherakadan doazen giza mailatan oinharriturik, eta irlako errejiorik eskasenetan. Ez dute ulertu nahi hizkuntzak giza-baldintzapen horietan *suntsitzen direla*, hain zuzen! Hizkuntzek *hirietan, intelektual giroetan eta gorakako giza-mailetan bakarrik* izaten dituzte berbizteko posibilitateak. Irlandar gobernariak, beren politik mentalitate atzerakoiarengatik, ez dute begien bistan dagoena ere ikusten. Herri *irrealak* eta *kanpotik*, bertako geografia eta ekonomiatik at, defendatzeko borondate hori oso nabarmen eta berarizkoa izan ohi da mugimendu *folklorista* sasipolitikoetan, nola European hala Amerikan.

Irlandar politik mugimendua eskuindar gidariek erabili dute gehienbat, eta horientzat, gaeliera, irlandar benetako arazoetatiko *ihespide* bat besterik ez da izan.

O. Connell superkatolikoak berak (kleroaren eta nekazari jendearen babes osoarekin kontatzen duelarik), jatorriz gaelieraduna bazen ere, eta Unamunoren antzeko jokaerari jarraiki, beren hizkuntza jatorra, irlandera, zapuz zeza ten eskatzen zien bere jarraitzaileei, eta ingelesa har zezaten. Eta ez zuen inolako kezkarik ukan Irlandako Mendabaldean ingeles mintzaira erabiltzeko, Shakespeare-ren hizkuntza XIX. mendeko hasera haietan erabat ulerka itza bazen ere nekazari giroan. O. Connell-ek horrela jokatu zuen, 1847 aurretik, antibritainiar mugimenduaren aitzindari izanik ere, irlandar nazio hizkuntzaren etsai porrokatu bat bezala. Irlandar nazionalismoa zertu duen separatismo merke eta “wes-britton”-aren eredu egokia, inondik ere (“nire aberriari uzten diot nire gorputza, eta Erromari nire bihotza”) idazten zuen 1847an bere hilibiko idazpururako.

Ereina zegoen politik alorrean antibritainiar hazia, *zertua, finkatua*; baina ideologi hezurrak, *zertzailea*, eta euskarria, bazterreratua izan zen, sarri askotan gertatu ohi den politik metonimiaren fenomeno batez.

Haserako *etnik* arrazoinari (eta bizirik zirauen artean, 1916ko matxinada garaian), emeki-emeki arrazoin integrista eta arrotz batek kendu dio bere postua. De Valerak traizio egiten zien, horrela, Pearse-ri, Connolly-ri, IRA errebeldeari... irlandar eskuinak bere egin dituen O. Connell-en manu atzerakoi eta britainiazaleei leialki jarraituz. "Irlandar herria", Mendebaldeko komunitate beherakoi eta ahaztu bat bilakatu da; eta gaelieraren arazoa, berriz, barne exportaziorako abstrakzio druidiko eta morfinazko bat.

Pearse eta Connolly-ren garaipenak, agian, aldatu egingen zuen irlandar herriaren bidaia. Alferrikako dugu, ordea, hala suposatzea.

Dublingo gobernuak atzea eman die bere iraganari eta bere martiriei. IRA-Probisionalaren garaipenak aldatuko bide du, ausaz, gertakizunen etorkizuna. Joe Cahill-ek nonnahi eta beti azpimarratu izan du bere gogoia Irlandar irla batu eta gaelieraduna egitean datzanaz. Eta horrela agertzen du aipatu mugimendua-ren hamar puntutako Egitarauaren zortzigarrenean: "Irlandera, nazio hizkuntza, inposatu eta ikastera behartu eskola guztietan". Hala ere, ez dira ahaztu behar Konstituzioko textuak, ez eta politik alderdien agiriak. De Valerak, gartzelatik atera eta IRA-rekin moztean (1926) sortu zuen Fianna Fail-ek ere, paperean, irlaren birbatasuna eta irlandera maila guztietan ezartzea proposatzen zuen. Ondorenak, irakurri ahal izan ditugu, ordea, azterketa labor honetan.

## 4. GALES

"Violence for political ends EVERYWHERE indicates that some people reached the point where they see no other way out"  
(Ned THOMAS)

Gales Herria, "Cymru" deitzen diote bertakoek (gutti gorabehera "kúmri" ahozkatzen da), "United Kingdom" edo Erreinu Batuaren zati bat da 1536az gero, eta britainiar irla handiaren mendebaldera aurkitzen da 20.700 km<sup>2</sup> bateko zabalgoaz.

Bertako jende kopurua, 1971n, 2.721.201 bizilagunekoa zen. Zifra honetara iritsiak ziren gutti-gorabehera mende honetako hogeigarren urteetako ekonomi atzerapen latzaren garai haietarako.

Jendetza horren bostetik bat gauza da galestar mintzaira erabiltzeko (565.000 kymbrueradun 1971n; hots, oro har % 20). Meatze industriadun eskualdea, hizkuntzaren aldetik ia erabat asimilatua. Hizkuntza bera duen tankeraz, Europakoengandik alderatua, eta demografi kopuruaz eta luze-zabalgoaz gure Herriaren antzekoa izateak hainbat arrazoin gehiago ematen digu gure arreta gales arazoari zuzen diezaiogun.

### 1. FUNTSEZKO ZENBAIT ZIFRA

Gales jendea ez dago, ez eta aldekorik ere, bere lur-zabalgoan berdinki hedatua.

Demografi kontzentrapen handi bat ikusten da Hegoaldeko meatze indus-triadun eskualdean, Caerdydd (ingel. Cardiff) hiriburu inguruan (honen “hinter-lan” delakoa bi bat milioikoa da), herrialdearen gainerakoa ia erabat hutsik gelditzen delarik. Aberystwyth itsas hegi aldeko hiriak, esate batetarako —Mendebal hegiko erdi aldera, unibertitate propioarekin eta Gales Herriko psikolo-gik zilbortzat hartua denak—, ez du 10.680 bizilaguneko kopurua besterik (1971). Wrecsam hiriak, berriz, iparraldekoetan garrantzitsuena izanik, 18.955 bizilaguneko jendetza du (1971). Gainerantzeko hiri-kontzentrapena, salbues-penik gabe, Hegoaldean aurkitzen da, Caerdydd inguruko eskualde meatze indus-tritsuan.

Hona hemen Cymru edo Gales Herriko hamabi hiri garrantzitsuenen zerrenda. Begiratu huts batez aurki daitezke n.º 1 mapan. Bertako deituren-gatik arras bereizten direnean bakarrik eman ditugu beren ingeles izenak parente-sis artean:

1. Caerdydd .....	358.000 biz. (in. Cardiff)
2. Abertawe .....	170.000 biz. (in. Swansea)
3. Casnewydd-ar-Wyig .....	112.000 biz. (in Newport)
4. Merthyr Tudful .....	55.000 biz.
5. Aberafan .....	50.000 biz. (in. Port-Talbot)
6. Y Barri .....	42.000 biz.
7. Caerffili .....	40.000 biz.
8. Wrecsam .....	39.000 biz.
9. Aberdar .....	37.000 biz.
10. Pont-y-Pŵl .....	36.000 biz.
11. Pont-y-Pridd .....	34.000 biz.
12. Cwmbran .....	31.000 biz.

Alboko mapari egin lekiokoen axaleko so batez, aise ohar daiteke bat, herrialdeko zatirik handiena, giza egitura moderno eta urbano bat dagerrena prezeski, hegoaldean aurkitzen dela, Morgannwg (ingel. Glamorgan) eta Mynwy (ingel. Monmouth) kontherrietan hobeki esateko. Gainerako lurralde zabal osoan, dentsitate ahuleko eta turismo eta nekazariduna bereziki, galestar jen-detzaren zati ttipi bat besterik ez da aurkitzen.

Zenbait zifrak argituko digu ideia hori.

1971. urtean, Gales Herriko jendetza, gorago esan den bezala, 2.721.201 bizilagunekoa zen. Eta hegoaldeko aipatu kontherriek honela zeukaten, bakoi-ztari zegokionez:

Morgannwg .....	1.258.730 bizil.
Mynwy .....	462.171 bizil.
Guztira .....	<u>1.720.901</u> bizil.

Beraz, Gales Herriko populazioaren % 63.



## 2. KYMBRUERA ETA DEMOGRAFIA

Egoera horretatik, aise igarri dezake irakurleak zein izan daitekeen kymbrueraren egoera. Kymbrueradunei buruzko portzentaiak (denak elebidunak badira ere) honela ziren 1971ean:

Morgannwg-eko kontherrian ..	% 17,2
Mynwy-ko kontherrian .....	% 3,4
Bien arteko bataz bestekoa ...	% 13,5

Hau da: Caerdydd inguruan, soziologikoki moderno, industriatsu eta jende ugari herrialdean (guk gutti gorabehera lehen aldean aipatu dugun hegoaldeko bi kontherri horiekin identifikatuan) % 12,5 bakarrik ezagutzen du kymbruera. Zifrak alderantziz, zera esanen genuke: Gales Herriko jendetza osoaren % 63 aurkitzen den lurraldean, % 86,3 pertsonak ez dutela ezagutzen hategia bertako hizkuntza. Gainerako nekazari lurraldean, oster, jendetza guztia- ren hiruren bat bakarria osatzen duen lurraldean, % 38,3k ezagutzen du kymbruera (1971).

“Fro Cymraeg”-ek beraz (= Gales Herriko kymbrueradun errejioak), Irlandako Gaeltacht-en azkenetaraino ez bada iristen ere, tankera kezkarri bat erakusten digu: herrialde nekazaria, atzerakoia, migrapenduna, ekonomi egitura zaharreko. Errejo asimilatuak, aldiz, modernotasunaren alderdi guztiak eskaintzen ditu: soziologikoki hirikoia, dinamikoa, etorkin korrontearekin, industri proletalduna, etc.

Datu hauen ondoren, XIX. mendeko galestar literatur eta etnik berbizkunda, ez zitekeen “nekazari” girokoa baino izan; eta bere politik esangura arras atzerakoia eta kontserbadorea noski, zeren gizarte berriztapenak eta hizkuntz alienazioak gauza bera esaten bait zieten.

Galestarren eta gainerako keltofonoen arteko elkar ulerkortasuna ia hutsa da. Irakurleak berak frogatzen dezake hori hemen beheratxoago bitxitasun gisa handiak berak ere (1839an jaioa), katolikoa izaki, zenbait alde anti-modernista aurkezten ditu, beren jatorria berdinkatze honetan dutenak: modernotasuna = ingelestapena.

## 3. KYMBRUERAREN EGOERA

Esan da, Irlandari eskainitako kapituluan, kymbruera keltar hizkuntza dela; bretoierarekin senide, beraz, alde batetik, eta gaelierarekin, irlandera eta Eskoziako kornikerarekin bestetik.

Galestarren eta gainerako keltofonoen arteko elkar ulerkortasuna ia hutsa da. Irakurleak berak frogatzen dezake hori hemen beheratxoago bitxitasun gisa erakarri ditugun bi testu, kymbruerazko eta bretoierazko, hauetan. Bi biak W. Crwys Williams galestarraren “Melin Trefin” (Trefin Eihara) poesiaren itzulpe-

nak dira, "Al Liamm" bretoi aldizkariak (22. or.) ematen digun bezalaxe honaturik:

(Kymbrueraz) Nid yw'r felin heno'n malu  
Yn Nhrefin ym min y mô;  
Trodd y merlyn olaf adre  
Dan el bwn o drothwy'r ddô;  
Ac mae'r rhod fu gynt yn rhygnu  
As yn chwyrnu drwy y fro,  
Er pan farw'r hen felinydd,  
Wedi rhoi ei holaf dro".

(bretoieraz) N'eman ket ar vilin fenozn o valan  
En Trevin war vord ar mor;  
Mont a reas ar pone diwezhan d'ar gê  
Dindan e samm diwar treuzioù an nor;  
Hag ar rod a voe kent o wigourat  
Hag o trouzal dre ar vro,  
Abaoe, m'eo marv ar meliner kozh,  
He deus graet he diwezhantré".  
(Le Pays de Galles, Le Calvez, 77. or.)

Kymbruerak, azken hamar urte hauetan ehun bat mila kymbrueradun galdu baditu ere, mendeetako literatur eta hizkuntz bizitasuna ezagutu izan du. Eta Gales Herria Erresuma Baturatu ondoren ere, galestar hizkuntzak bistako atzerapenik gabe eutsi zion maila herrikoietan Gales Herriaren zabalgo osoan. Honek ez du esan nahi, noski, Londresko Gobernuak, konstituzionalki, komunitate arrotz, berezi, eta *etni ez ingeles* baten bai-izatea ontzat emana zuenik. Aldrebes baizik: Londresko Gobernuak, gales "atzeratuei" "zibilizazioa" zekarkien aitzakiarekin, beti asimilapeneko politika antigalestarrari babesa ematen ihardun izan du.

Zifra zerrenda batek argituko digu, lehen batez, kymbrueraren beherapen orokorra zenbakiz:

Urtea	Populazioa	Kymbrueradunak
1891	1.660.000 bizil.	% 54,4
1901	2.000.000 bizil.	% 49,9
1911	2.420.000 bizil.	% 43,5
1921	2.656.474 bizil.	% 37,2
1931	2.593.332 bizil.	% 36,8
1951	2.598.675 bizil.	% 28,9
1961	2.653.200 bizil.	% 26,0
1971	2.721.201 bizil.	% 20,8

Ez da ahaztu behar, bestalde, zifra hauen erlatibismoa. Inkestaren galdikizuna "gauza zara kymbrueraz mintzatzeko?" izanik, ez da zaila pentsatzea,

alde batetik, batzuentzat kymbrueradun eta galofono eskastu berdintsu dela; eta, bestetik, “mintzatzeko gauza” direla dioen galestar askok ez duela osoaldi bakanetan baizik egiten, elebakardun giro ingelesetan aurkitzen direlako bati-pat. Kymbruera mintzatuaren benetako egoera, koadru horen irakurpen axaleko batetik atera daitekeena baino askoz larriagoa da.

Estatistika errealistagoa izanen litzateke elebakardunei dagokiena:

<i>Urtea</i>	<i>Ingeles elebakardunak</i>	<i>Kymbrueradun elebakardunak</i>
1911	% 56,5	% 15,1
1931	% 63,2	% 4,0
1951	% 71,1	% 2,1
1961	% 74,0	% 1,0
1971	% 79,2	% 0,2

Elebidunek hizkuntz zeinu propiorik ez dutenez gero (gogo erabaki bat izan ezik, edo diglosiarengatiko baldintzapena), egoera markatzen dutenak elebakardunak izan ohi dira eta. Horregatixe, komunitetako batek bere azken elebakardunak galtzen ditueneko une berean, biena ez den hizkuntza minoritarioa berehalako hondamenera erortzen da, bai famili mailan eta bai nazio mailan.

Kymbrueraren beherakada azkar hori garbi agertzen zaigu, orobat, eta bereziki, kymbrueraz mintzatzeko gauza diren eskola garaiko haurrei buruzko portzentaiak kontutan hartzen ditugunean. Honela, lehen eta bigarren mailatako haurrak hartuz, zera datorkigu:

1950 — % 17,7 batek “hitz-etorritz” mintzatzeko zela zioen.

1961 — % 13,4 bakarrik esaten zuen gauza bera.

Ondoren hauk era berdintsuan beste estatistika batetan baieztatzen ditugu. Estadistika hau N. Thomas-ek zuzentzen duen *Planet* aldizkarian agertu zen (1971an) eta kymbrueradunak adin mailatan banatzen zituen (ikus zenb. 28, 1975 Abuztua, 30. or.).

<i>Adina</i>	<i>Portzentaia</i>
“Welsh mintzatzeko gai”	(“able to speak Welsh”)
3-4 urte	% 11,3
5-9 urte	% 14,5
10-14 urte	% 17,0
15-24 urte	% 15,9
25-44 urte	% 18,3
45-64 urte	% 24,8
65etik gora	% 30,9

Zifra hauk irakurtzean ikus daitekeenez, eta gorago aipatu izan den bezala, zeinu positiboko inflexio arin bat gertatzen ote den ematen du, eskolaren bitartez.

## 4. KYMBRUERADUN TALDEAREN GIZARTE ERAKETA

Gorago aditzera eman dugun bezala, industri eskualde/nekazari eskualde dikotomia, ia oso-osorik beste honi dagokiola ematen du, hots, ingelesdun eskualdea kymbrueradun eskualdea dikotomiari halegia.

Baina dikotomia hori, era horretan agertuta, berria zen herrian. Fenomeno hori oso egoki markatu izan du zenbait autorek. Hau dio Le Calvez-ek bere *Le Pays de Galles* lan bikainean: “nekazaritzak aske utzi zituen besoak industri-gintzan erabiliko dira. Beren sorreratik bertatik ingeles mintzodun hiri ttikiak, galestar mintzodun jendez gainezkatuak dira, historian lehen aldiz; baina ikatz meatzen eskualdeek ezagutzen dute ingeles kalifikatuen inmigrapena ere” (51. or.). 1846 urte garaietako goseteen ondoren, milaka etorkinek, Irlanda eta Hego Ingalaterratik etorriak, Cardiff Newport, Swnsea eta Llanelli-ko lantegi eta meatzetara jotzen zuten lan bila.

Esan nahi bait da, XIX. mendean zehar, industri fenomeno a zela medio, haserako lurjabe-aristokratak/herrikoi-klaseak dikotomia (ingelesdun klaseak/kymbrueradun klaseak dikotomiari zegokiona), egungoan bilakatuz joan zela. Baina *klase* dikotomiaren izaera hori, eta klase agintari ingelesdun/klase zapaldu kymbrueradun elementuen arteko aurkakotasuna, itsuraz besterik ez da aldatu. Eta dikotomia horren konponketa zuzenean, edo okerrean, datza, hain zuzen, galestar nazionalitatearen etorkizun osoa.

## 5. “EISTEDDFOD”

Historikoki, garbiki kymbrueraren aldeko bezala agertzen den lehen manifestapena, urtero egiten den “Eisteddfod” deitu herri jaia da. Benetako herribesta hauxe (kymbruerazko liburuen azoka, kymbruerazko ikuskizunak, kymbruerazko txapelketak, kymbruerazko kantak, etc.), 1819. urtean hasi zen sistematikoki ospatzen, eta Llangollen-go Eisteddfod sonatuaren (1858an) ondoren bereziki.

Folklore eta artezko manifestapen honen sustraiak Erdi Haro misteriotsuan galtzen dira. Iadanik 1167an ospatu zen Eisteddfod antzeko bat Cardingan gogatzeluan, eta badago datu zehatzik Camarthen-goari buruz ere (1450ean ospatu zen berau).

Gehienbat ingelesez egina 1950 arte (hizkuntza hori zen eta eratzailen barne hizkuntza mende bat baino gehiagotan), egungo hizkuntza bakarra, bai eta organizazio barruan ere, kymbruera da. Baina kymbruera zaleak ere, irlandarrak bezalaxe, “kanporako” postura itsurati, folklore hutsezko eta besteentzako ikuskizun bezala eratzeko joera honetaz nabarmendu dira XIX. mende osoa zehar eta XX. honen lehen erdi aldean ere. Eta, jakina, Herriak bere hizkuntza galtzera eraman ditu postura horrek; Herriarengandik aparteko folklorezko sinbolu huts batetan bilaka erazi zuten eta. Postura hau, liburu honetan behin eta birritan ikusiko dugun bezala, atzerakoitasunaren zeinu argi bat da,

eta herri guztietako eskuindar nazionalisten atxekia bereziki. Erakunde gauzei Herriari baino garrantzi gehiago ematearen ondoren zuzen bat, noski.

Aitzinako "Eisteddfod"-en izpirituaren zenbait etsenplu bitxi baina esanguratsu ematearren, honako hauk gogoraraziko ditugu:

– Kymbrueraren berbizkudearen aitzindari Emrys ap Iwan-ek (1851-1906), bere eskutitz pribatuak ingelesez egiten zituen.

– Bata bestearen ondoren Eisteddfod-en saritutako hiru poeta ospetsuek, ingelesez bakarrik hitzegiten zieten beren seme-alabei.

– Beriah Gwynfe Evans teatrogileak (1848-1927), peridiosta eta kymbrue-  
ra eskolan sartzearen aldekoak, "Welsh not" grabaturik zeraman eraztuna era-  
biltzen zuten bere eskolan bertan...

Ikuskizun posturaren eta benetako posturaren arteko bikoiztaun hau ez zaio batere kontrajartzen, ez eta aldekorik ere, XIX. mendean garbi ikusten den beste hari: Erdi Haroko kymbruerazko testu zaharrak argitaratu eta Arkeologik Elkartek *ingelesez* sortzeko posturari, halegia.

Hala ere, "Eisteddfod" izan zen kymbrueraren aldeko lehen manifestapen kontziente eta zuzen. Bidezkoa da kymbruera, lehendik, adibidez erlijiozko liburuen idazpenetan erabilia izatea. Baina hizkuntza hori "Eisteddfod" aurretik erabiltzen bazen, pragmatismo hutsarengatik egiten zen, galestar herri xeheak ez bait zuten beste hizkuntzarik ezagutzen, eta, inor beregana hurbilduko bazen, kymbrueraz egin beharko zuten derrigorrez.

"Eisteddfod" moderna sortzean, kymbruererekiko posturan aldaketa kua-  
litatibo bat somatzen da; eta inportanteena (eta normala, nahiz eta ez hala eman behar) zera da: hura galestar herrietan eta herriko goi mailatan sortzen dela, hots, etendurak sortzen hasten diren maila haietan, hain zuzen. Kymbrue-  
raganako zaletasuna, hizkuntza galtzen hasten den giroetan, eta *horretxegatik*, hasten da sortzen. Nekazari giroetan, Kymbruerak osotasun batetan dirauen lekuetan, eta kultur eskasia ere handia denetan bidebatez, hizkuntz diferentzia-  
ren ausentzia oztopo gertatzen da etni kontzientzia errotzeko. Nazionalist mugimendua, gorputz zatiketaren mehatxua nabar den giroetan sortzen da.

Galestar kultur mugimenduaren politizapena ere aurrerapenaren beste etsenplu bat dugu.

Diruaz eta eguneroko borrokaz, kanpoko kymbruera "garbiaren" destino "apolitiko" hartatik, galestar mugimenduaren lehen garai haietatik esan nahi dugu, ezer gutti gelditzen da gaur egungo Gales Herrian. (Badirau oraindik ere "purista" joerak, eta honen eritziz, esate batetarako, kymbruera lantzeak ez omen luke ordaindua behar izan). Le Calvez-ek ongi aski dioen bezala: "Gaur beren hizkuntzaren etorkizunaz arduratzen diren galestar guztiek ongi dakite eskastasun handiegian gelditzen dela kultur ekintza hutsa. Hizkuntz problema ez daiteke gainerako galestar problemen osotasunetik aparta; eta, beste aldetik, eskakizunak ez dira onhartuak izanen, baldin eta ez bada politik mailako ekintza baten bidez" (184-185. or.).

Eritzi berdineko agertzen zaigu Ned Thomas ere, zera dioenean: "Zu ezin zintezke hemen, iadanik, kultur hutseko nazionalista izan" (*The Welsh extremist*, 37. or.).

Itzuliko gara beherago kymbrueraren politik textuinguruaz ihardutera.

## 6. GALES HERRIKO IRAKASKUNTZAREN GORABEHERAK

XIX. mende osoan eta nazional kontzientziaren sorrera arte, eskola, galestarrentzat, beharrezko erakunde bat zen, eta deseatua gainera askotan, ingelesaren (Estatu hizkuntzaren) ezagutpen onuragarri batetara iristeko, Kymbruera bera, eskola mailan erabiltzen bazen ere, hizkuntza zerratuko eskualdeetan esate baterako, ingelesara *pasatzeko* (hori zen eta helburu bakarra) beharrezko gertatzen zen tresna bezala bakarrik erabiltzen zuten.

Baina bortxazko metodoak ere ez ziren oso urriak izaten. Orandik XIX. mendearen azken aldera, "Fro Cymru" galofonoko eskoletan haurrek debekatu zedukaten kymbrueraz egitea. "Haur batek besteri kymbrueraz entzuten zion bakoitzean, maisuari jakinerazten zion, eta honek berehalaxe "Welsh not" (= Ez-galestarra) letrezko medailatxo bat ipiniko zuen errudunaren lepotik zintzilik, eta honek, bere aldetik, letrerotxoa beste bati kymbrueraz egiten entzun ziezaion arte eraman behar zuen. Orduan, berriz hasten zen letereroaren "txangoa". Eta horrela eskolatik irten arte. Une hartan zeramanak, eskuan errege-lazo bat jasotzen zuen (O. M. Edwrads).

Ingelesa bigarren mailako hizkuntza bezala ikusia izaterako, urrats luze eta ugari asko eman behar izan da Gales Herriko lehen mailako eskoletan. Eta, kymbruera, oinharriko kultur tresnatzat hartua bada ere, irakaskuntzako bigarren mailara iristea, oso nekez onhartuko litzatekeen intelektual ausardi eta atrebentzia bat ematen jarraitzen du gaur egungo Gales Herrian.

Britainiar eskola sistemak (Gales Herrian ere berbera erabiltzen da) ikasketako hiru maila bereizten ditu:

1. Lehenengoa: 2 urtetatik 11tara
2. Bigarrena: 11 urtetatik 15etara
3. Unibertsitate maila: 16 urtetatik aurrera.

Lehen mailako irakaskunta bera (1972-73tik) beste hirutan zatitzen da Gales Herrian, eta beren egoera orokorrari dagokionez honelatsu ziren aipatu garaian:

2/5 urtetan: inude eskolak, "nursery-schools". 1.235 ikasle, 122 irakaslerentzat.

5/7 urtetan: haur-eskolak, "infant-schools".

7/11 urtetan: "juniors-schools". 311.368 ikasle, 12.582 irakaslerentzat.

Orain, 1964ean, 34 eskola zeuden *berez* kymbruerakoak, irakaskuntza kymbrueraz ematen zutenak, 3.634 ikaslerekin. Zenbaki horrek ez du herri guztiko % 1,1 besterik suposatzen, nahiz eta beste eskola elebidunetan ere kymbrueraren (ikasgai bezala) klaseak ematen diren (3 bat ordu asteen).

Lan horren fruituak, oraindik murrizta bada ere, ez du itxoiterik izan. Eta horrela 1964an, urte batetik bost urtetarako eskola mailan, % 13 haur kymbrueradun baziren, 1971an (11 urtetatik 15 urtetarako eskola mailan, noski) % 17 izatera iritsi dira. % 4ko irabazia eskolari esker egin da, zenbait ehuneko haur taldea kymbrueradun bilakatzen delarik.

Era berdintsuan, 1964ean bigarren mailako bost lizeo elebidun zeuden (Camarthen-en, Denbigh-en, Flint-en, hiru hauetan bana, eta Glamorgan-en beste biak). Eskola hauetan, denetara, 1192 ikaslerekin, erlijioa, historia, geografia eta eskulanetarako kymbruera erabiltzen zen lan-hizkuntza bezala. Honek, maila horretako ikasle guztietatik, % 0,5 suposatzen du.

Ondoren (1967) ireki izan da elebidun lizeo gehiago, Rhydfelen-goia adibidez, 534 ikaslerekin. Hemen, matematika eta zientziak ez gainerako irakaskuntza osoa kymbrueraz ematen da. Eta, azkenik, eman dezagun Pnt-y-Pont-eko abangoardiako zentroa. Ikastetxe honetan, 50 ikasle besterik ez badute ere, irakaskuntza osoa kymbrueraz ematen da.

Portzentaia horietatik (% 1 lehenengo mailan eta % 0,5 bigarreanean) eta apuntatu ditugun beste gogapenetatik ateratzen den bezala, irakaskuntza, gaur egun, alienazio biderako lanabesik boteretsuena dugu. Eta eman diren aurrerabideko urratsak ez dira sinbolikotzat baino hartu behar. Bakarrik, serbi dezakete, minoria kontzientziatuaren aurrerapena neurtzeko (hau sarritan gertatzen ari bait da ingeles mintzodun eskualdeetan, non gurasoetako % 78k beren haurrei kymbruera irakatsi izan dakien nahi bait dute), eta ez hainbeste nazio hizkuntzaren beharapena geldierazteko.

## 7. "PLAID CYMRU" ALDERDI NAZIONALISTA SORTZEN DA

1925. urtean, hay da, galestar populazioa, oro har, lehenengo aldiz behertzen hasten denean (gero eta migrapen handiagoo dela eta Herriko kymbrueradun eskualdeetatik batez ere), hizkuntzaren defentsa borroka *politikoz* eta *politik nazional* erakunde propioen bidez bakarrik egin daitekeenaren zihurtasunak, badu gazte talde bat Sander Lewis 34 urteko ikasle eta ekintzailaren inguruan bilerazteko hainbat indar. Eta horrela, Galestar Nazionalist Alderdia, laburki "Plaid Cymru" deitu alderdia, sortzen dute.

Ordurako Gales Herria, liberalen atzerakada nabarmenarekin, biziki sozialista litzatekeen herrialde bat bezala agertzen hasten da, hots, britainiar "Labour Party"-ren benetako "fief" bat bezala.

Batez ere jite linguistiko bat eman zion Plaid Cymruk galestar politik mugimenuari bere Lehendakari S. Lewisen eraginpean, eta horrela irlandar "Gaelic League"-ren kideko bezala egiten zuen. Aurrerapena, beraz, oso mantsoa izan zen, eta giza maila atzerakoietan bereziki. S. Lewis-ek bere "Egwyddorion Cenedlaetholdeb" (Nazionalismoaren Oinharriak) 1926 Manifestuan, zera aldarrikatzen zuen:

- kymbrueraren nagusigoa (ez kidegoa), irakaskunta eta bizitza osoan.
- Gales Herriko hizkuntza ofizial bakarra: kymbruera.
- Era berdintsuan, kymbruera komunikabideetako tresna bezala, irratia eta gainerako "mass-media"-tan.
- Gales Herriaren ordezkaritza zuzen bat O. N. U.-n.

Aurrerako urratsak, oso astiro eman ziren. Ez litzateke alferrikako izanen “Plaid Cymru”-ko lehen diputatua 1966ko ekainean izan zela hautatua gogoraztea. Diputatu hau, Gwinfor Evans, mundu gerla aurretik galestar ekintzaile bezala ezaguna, eta estudioaren bidez kimbrueradun, Camarthen-go kontherrian aukeratu zuten.

Gaur egun Plaid Cymru arrakasta handia lortuz doa hauteskundeetan (170.000 bozemaile). 1974eko urrian hiru diputatu nazionalista izan ziren hautatuak (Evans, Thomas eta Wigley), eta beste 6 diputatugai, berriz, bigarren postuetaraino iritsi ziren.

## 8. CYMDEITHAS YR IAITH

1937an ekintzaile talde batek, S. Lewis barne, aurrerapen nazionalisten baretasunaz asperturik, bortxazko ekintzara jotzen du, eta lehenengo antibritainiar sabotaia egitea erabakitzen. Gertakizun honen ondorio bezala, S. Lewis harrapatu eta gartzeleratua izan zen, eta ia-ia zisma bat sortu Plaid Cymru-ren baitan. Ez zen halakorik gertatu, ordea, mundu gerla zela medio.

Ondorengo urteean, planteiamendu elektoralisten eskastasunarengatik eta Alderdiaren jatorrizko tesisei buruzko berrikustapen gogoarengatik, gero eta egonezin handiago bat sortuz joan zen.

Galestar mugimenduaren zatirik gogorrena, S. Lewis-en inguruan behin berriz, elebitasunaren aurka jartzen da, jokaera hau kymbruera emeki-emeki suntsierazteko jukutria bat besterik ez delakoz: “ni ere —zioen Lewis-ek 1962an, bere 71 urteetan— elebitasunean kymbrueraren heriotze baketsu eta ohoretsu, eta ez malko eta ez lanturik gabeko ehorzketa ikusten duen guttiengo burugabe horretako nauzue”. Eirwyn Morgan Irakasleak esaten digu, berriz: “Bi hizkuntzen elkar bizitzak, gehiengoaren garaipenean amaitzen du beti”. Ideia berdin-berdinak Williams Irakaslearen lumatik ateratakoak ere: “ez da munduan herri ttipi batetako bizilagunek, gobernatzen dituen nazio boteretsuaren hizkuntza mintzatzen jakin eta berenari eutsi diotenaren etsenplu bat baka-rrik ere aurkitzen”.

Giza-politik alorrean, gero eta giro kontestatariago bat sortuz joan zen gazte ekintzaileen artean.

Horrela, “Cymdeithas yr Iaith” taldea sortu zen. Honek “hizkuntz ekintza iraultzaile ez-bortxazko” bat egin nahi zuen (hizkuntz alorrean bere inspiratzaile zen S. Lewis-en hitzak erabiliz).

Hitz batetan esateko: gose grebak, barrikadak kaminotan, zergarik ez ordaindu, manifestapen baketsuak, etc. Talde honek, beste alderdi klasiokoetatik zerbait berezi bezala definituz, beretzat egiten du S. Lewis-en tesis hura, hots: “Kymbruerak XXI. mendearen haseran hizkuntza mintzatu izateari utzi-ko dio”, baldin eta funtsezko aldaketa batzu ez badira lortzen. S. Lewisentzat, “autogobernuak berak baino ere garrantzi gehiago du hizkuntzak”; nazio askatasunerako “harma eragilea” da hizkuntza. Borrokak, horrela, batez ere hizkuntz alorreko erakundeen erdiespenetara jo behar du.

Ez zitzaion asko itxaron beharrik izan errepresioari. Gero eta ugariagoak



dira multak eta atxiloketak 1962az gero, eta ekintzaileen adin erdia gero eta beherago doa bien bitartean. 1968an, Daffyd Iwan galestar “pop” abeslaria (Euskal Herrirako Maite Idirin bat edo Britainiarako Alan Stivell bat izanen litzatekeena), orduan arkitekturako estudiante zelarik, “Cymdeithas yr Iaith”-eko lehendakari hautatu zuten. Urte bat baino geroxeago, 1970eko urtarrilean, Gales Herriko ingelesezko letreroak (kaminoetakoak) gainetik zikintzeko kanpaina bortitz batetan hogeit bat lagun atxilotu ondoren, azkenean D. Iwan bera harrapatzen dute, izugarrizko haserrearekin sortzen delarik herrian. Eta “Iaith” mugimenduaren erradikalpen politiko eta herrikoia areagotu egiten da horrela.

Oraindaino mugimenduko ehun bat lagunek bisitatu dituzte Gales Herriko gartzelak; eta Plaid Cymrutik bai ideologiaz eta bai metodoz gero eta urrunagotuz doan talde garbiki sozialista bat sortzen ari da “Cymdeithas yr Iaith”-en baitan. Joera honen buruan Gareth Meils idazlea dagoke bere 1972ko “Cymru Rydd, Cymru Gymraeg, Cymru Sosialaidd” manifestuarekin. Manifestu horretan proposatzen denez, Gales herri libre, kymbrueradun eta sozialista nahi litzateke.

## 9. LIBERAPEN HARMADA GALES HERRIAN

1967an, eta Plaid Cymru eta Cymdeithas yr Iaith gaudituz, ekintza hartuzko organizazio bat sortu zen: “Byddin Rhyddid Cymru”, 1967ko Azaroko zenbait sabotaiaren aita. Ez zitzaion Plaid Cymruren aldetiko erantzunari asko itxaron beharrik izan: erabat kondenatzen zituen horrelako metodoak.

S. Lewis borrokalari zaharrak, aldiz, terroristen defentsa hartu zuen, horrelako postura batek atsekabe berriak eta bere 76 urtetan unibertsitateko postuaren galera zekazkiolarik.

Zenbait harrapaketa egin zen 1968an; eta 1969an, Swansea-n, B. R. C.-ko ekinkideen aurkako hauzia muntatu zuten. Abokatuak hauzi aretoan sartzean, publiko osoa zutik jarri zen eta galestar himnoa abestu. Bartzuren ustetan, herria Irlandako borroka gogoratzen zuen aldi berri batetan sartzen ari zen.

Baina gartzeleratze horien ondoren, suntsitu bide da harmada edo ezkutuko borroka hori.

## 10. GALES HERRIKO EGUNGO EGOERA ZENBAIT ALO- RRETAN

Bukatzeko, literatur eta irrati-telebista dagokien zenbait datu emanen dugu laburki.

Liburuen argitalpenari dagokionez, honek bazuen lehendik halako ospe eta tradizio luze bat. XIX. mendean esate batetarako, 8.425 liburu desberdin argitaratu zen kymbrueraz (urteko 84 baino gehiago). Egundun, 200 liburu baino gehiago argitaratzen da, urtean:

1971: 177 liburu

1972: 203 liburu

Argitalpen guztien laurdena baino gehiago haur eta gazteentzat gertuturiko liburuei dagokie (46 liburu 1971an). Salmenta osoa, 220.000 liburutakoa da, horietako % 60 haurrentzat gertutzen delarik.

Hala ere, kymbruerazko argitalpenek ez dute irabazpiderik ematen (salmenta osoari dagokionez, 750 bertsoz, eta 1.000 prosaz), eta subentzio ofizial eta pribatuen beharrea aurkitzen dira.

Bestalde, kymbruerazko liburuaren banaketak ere, negozio aldetik ez duke irtenbide handirik. Horregatik, "Cymdeithas" edo beste elkarteren baten babesean bakarrik eutsi diezaiekete kymbruera hutsezko liburu dende beren buruei.

Kymbrueraren Akademia (Yr Academi Cymraeg), 1959an sortua, gehiago arduratzen da galestar idazleak elkartu eta horik laguntzen, eta hauen literatur eginkizun eta problemetan, hizkuntzaren batasunari edo beste etnik ekintzei eragiten baino. Hala ere, hizkuntzaren egungotzeak, dialektoak batuz eta hiztegia gaurkotuz, maila guztietan dihardu gertatzen. Zientziak eta matematikaren alorrean, kymbruerazko irakaskuntza maila hauetan atzeratua dago eta, gertutu dira iadanik 2.000 hitz zientifiko (bata bestearen ondorengo 12 hiztegitan).

"Y Gwyddondd" hiru-hilabetekariak alor hauetan hitz teknikoei buruz hartzen diren erabakien berri ematen du aldiro-aldiro.

Irratiari eta Telebistari dagokienez, egoerak honela eboluzionatu du:

1962an BBC eta Teledu Harlech-ek ordu saio hauk ematen zituzten:

BBC — 4 ordu asteen

T. H. — 5,5

Guztira: 9,5 ordu asteen.

Kanpaina askoren ondoren, hobetu da piska bat egoera:

Irratiak: 13 ordu asteen (=saio ordu guztien % 3,1)

Telebistak: 12,5 ordu asteen (=saio ordu guztien % 6,7)

Galestar nazionalista guztiak bat datoz ingeles hizkuntzazko Telebista, gaur gaurkoz, etsairik boteretsuentzat jotzerakoan: "the present state of television in Wales is fast undermining our efforts", idazten du Alwyn Rees-ek.

Bestalde, 1963an ba zeuden 14 galestar astekari (hauetako bederatzik bakarrik jarraitzen diote beren lanari egiaz), eta zortzi egunkari apur bat elebidun.

## 5. ISRAEL

*"Le drame linguistique du Juif est infiniment plus grave et plus fréquent qu'on ne le croit, et que le Juif ne l'avoue". (Memmi, La libération du Juif, 157)*

Kulturaz zerbait jantzitako jendarte batetan Israel hitza aipatu hutsarekin berehala ohartuko gara sarritan sortzen den isiltasuna gero eta handiago, gero

eta astunago gertatzen delarik, solaskideek jasan behar izan dituzten nahiga-beengandik datorrela. Inork ez du bere burua antisemitatzat agertzen; baina, erizpideen desberdintasuna dela medio, zihur aski, Israel arazoak tabu izaten dirau gure gizartean.

Bere populazioaren hiru laurdenak oraindik atzerrian dituen herri batek, nahiz eta bere buru-azkartasuna nabarmena izan, alfabetatutakoak eta eskuindik-ezkerrerako batez idazteko lujoa ametitzen duen herri batek; 1975. urtean ez baina 5736an gaudela dioen herri batek; modako kosmopolitik garai bete-bete honetan fermuki nazionalista den herri batek, eta erlijio-gabetasun eta materialismozko barreialdi oso honetan milaka sinagogatan milioika sinesdun sutsu dauzkanak, Hitlerren manupean zeuden eskualdeetako bere aberkideetako % 73,4 bat gaz ganbaretan erhanik triskatua izan den herri ttipi batek... "Burua tente" eta patu berezi bateko herri horren aurrean, ezin zitekeen, eta ezin da, inor axolakabe gera.

Eta delako herri honek, estudio honen lana den hizkuntzaren alorrean, beste ikuskizun bakar bat eskaintzen digu: Liturgiarako bakarrik zen hizkuntzarena. Hilik zegoen komunikabide bezala azken 1700 urte hauetan, eta beheakadatik iadanik Kristo aurreko VIII. mendean bere judu nazioan bertan. Eta gaur Israelgo herriaren hizkuntza mintzatu, eraginkor eta benetako bilakatu zaigu. (Azken estatistikek diotenez, % 95, poliglotaxeago edo ez, hebraieradunak dira.)

Irakurleari zenbait funtsezko datu agertzen saiatuko gara orain, hizkuntza hil baten *berbizkundeko* kasu bakar hau uler dezan.

## 1. FUNTSEZKO ZENBAIT ZIFRA

Israelgo Estatuaren zabalgo ofizialak (ondorengo "de factozko" eranspenik gabe) 20.700 km<sup>2</sup> ditu; eta 3.200.000 bizilaguneko jendetza (1973an): 500.000 arabiar eta 2.700.000 judu. Bere fundapen garaian, 1948an, 800.000 bizilaguneko jendetzarekin kontaktatu zuten, eta hauetariko 650.000 arabiar izanik.

Hiru hiri garrantzitsuenak, beren demografi ordenan, hauk dira:

Tel Aviv .....	388.000 bizilagun
Jerusalem .....	266.000 bizilagun
Haifa .....	209.000 bizilagun

Hiruretan lehenengoa, hutsetik sortua da 1909an, hamar bat judu familien artean. Eta fenomeno hau ez da, ez eta urrundik ere, bakarra: Beer Sheba (69.500 bizil.), Bene Berak (64.700 bizil.) eta Bath Yam (62.000 bizil.) hiriak apenas baziren benetan mende honen haseran. Israel, nazio berri bat da.

Judu jendetza osoa, beste alde batetik, 1940an baino 3.000.000-<sup>ez</sup> tikiagoa dateke gaur. Beste era batetara esateko: naziek egindako 6.093.000 juduen triskantzak oraindik astun jarraitzen du demografi maila hutsean ere.

Judu gehienek oraindik "Diasporan" jarraitzen dute: 11.000.000 "atzerri-ratu" 1973an, ehun bat Estatu desberdinetan barna.

Kolektibitate hau bi talde handitan zatitu ohi da: Afrika-Asia-ko taldea bata, eta Europa-koa bestea. Lehenengoan, arabe herrietatik etorriak sartzen dira. “Ekialdeko juduak” izenarekin ere deitzen zaie. Proletalduak, palestinar eta beste arabiarrekin, Israel Estatuko proletalgora osatzen dute, lehen inpresio batez, gaur egun. Eta bigarrenean, “mendebaldekoenean”, Estatu horretako goi mailak betetzen dituztenak sartuko genituzke. Jatorrizko zatibiketa hau, klase fenomeno bezala Israelen luzaroan irauteko asmotan dela dirudi, eta buruhausterik handienetako bat gertatzen ari da Gobernuarentzat.

Judu “sefardi” eta “askhenazi” izenez deituei buruz, hitz eginen dugu behe-ragoko lerroetan.

Mendearen haserako sionist aitzindarien kolektibismo sozialista orokorra beherakadan dagoela dirudi, Israelgo jendetza osoaren % 2,8 bakarrik bizi bait da gaur egun “kibbutzetan”.

## 2. HEBRAIERAREN TIPOLOGI EGOERA

Hebraiera, semitar hizkuntza da.

Sakonki bereizten da, beraz, Europako hizkuntza guztietatik, eta, alderantziz, arabiar eta etiopiar tankerako hizkuntzei hurbiltzen zaie. Funtsezko baieztapen honek explikatuko dizkigu geroago gaurko hebraieraren, bai ahozkatze mailan eta bai hitzak mailegatzeko garaian dituen joerarik behinenak.

Semitar hizkuntzen sail handi bat (Mesopotamia Zaharreko akkadiar hizkuntza; feniziera, kartagotarrena, etc.) aspaldiko mendetan hilik dago. Ez dugu deus ere esanen haietaz.

Tipologiaz hebraierari gehien hurbiltzen zaizkion hizkuntzak, hauk dira gaur: arabiera, bere zenbait desberdintasunekin, eta amhariar hizkuntza, Etiopiako hizkuntza ofiziala.

Zerikusi ttipiangoarekin, berberiera, batez ere Algeria eta Marokoko alderdi menditsuetan mintzatua, eta honen adar “guantxe” hizkuntza, garai batetan Kanariar irletan mintzatua.

Duen tankera berezi honek explikatzen digu zergatik, israeldar eta arabiarren arteko etsaigoa eta guzti, arabiar hizkuntzetatik hartutako hitzek egokitu eta itsasteko posibilitate gehiago duten, Europako hizkuntzetatik mailegatuek baino.

Baina benetan hebraieraren hurbileko semitar hizkuntza bakarra eta bere modernatzeko garaian lagun liezaiokeena, *arameera* da: orain 2.500 urte, juduek, Nabukodonosorren aginduz mende erdi bateko deportapen kolektiboan, Babilonian ikasi zuten. Jesukristok ere hizkuntza hori erabiltzen zuen Bibliatik aipuetan, eta bai eta haren ikasleek ere beren Ebanjelioetan. Hizkuntza berau erabili zen, bait eta, mende osotan, Ekialde Erdiko nazioarteko hizkuntza bezala.

Hizkuntza hurbiltasun honen eredu bitxi bezala, bi hitz pare hau ekartzan ditugu (jabetzen bagara ere hitz hutsezko alorrean era horretako gonbaraketa egiteak izan dezakeen erlatibotasuna):

	arameeraz		hebra eraz
azpian .....	tat	.....	tahat
bat .....	had	.....	ehad

Baina arameera, gaur egun, hizkuntza mintzatua bezala, oso hizkuntza ahul eta guttiengoa da. Haim Rabin irakasleak “Judu kurdu” izenez deitzen dituenek bakarrik gordetzen bait dute.

Arameera hau, hiru hizkuntz irlatan, eta bata besteen gandik urrun, mintzatzzen da. Lehenengo bat, Beirut eta Damas artean, Anti-Libano mendikatean mintzatzzen da (Siriako Mendebaldean, “Ma'lula”-ko arameera izenez deitua, oraindik “zenbait milaka pertsonak erabiltzen dutena” (D. Cohen). Bigarren Eta hirugarren bat, zenbakiz garrantzitsuena, 2.000 bat bizilagunekin, “aiser” Eta hirugarren bat, zenbakiz garrantzitsuena, 20.000 bat bizilagunekin, “siser” komunitateak osatzen duena da, Persia eta SESB edo URSS-en kokatua, Urmiah aintziraren ondoko lurralde batetan.

Nola nahi ere, hebraiera egungotzeaz arduratzen diren teknikoez, maiz aski jo izan dute, hitz berriak gertutzeko asmoz, tradiziozko aramear literaturara, eta bai eta aramear mintzaira duten juduengana ere.

### 3. HEBRAIERAREN BEHERAKADAKO ALDIA

Judu herriaren goren mailako garaia David eta Salomonen erregetza aldiari kokatzen da: Kristo aurreko 1.010 eta 930 urteetan. Salomon hiltzean, bi pusketan zatitu zen herria. Israelgo Erresumak, Iparraldean, bi mendetan bakarrik iraun zuen. Asiriarrak jabetu ziren hartaz Kristo aurreko 720. urtean, eta asimilatu egin zituzten, ondoren. Judako Erresumak, Hegoaldean, (“judu” nazio deitura eman duenak) bizitza independente luzexegoa ukan zuen. Kristo aurreko 586. urtean ordea, Nabukodonosorrek bukaera eman zion honen independentziari; Salomonen Tenplua desegin, eta juduak masa osoan Babiloniara (Mesopotamian) herbesteratzea erabaki zuen. Eta han egon behar izan zuten bi mende osotan (48 urte prezeski).

Juduak gutti nahastu ziren urte horietan; baina hebraieraren eta arameeraren arteko antz handiarengatik, elebidun bilakatu ziren. Eta Judara itzultzera-koan Kristo aurreko 538an. Salomonen Tenplo sonatua eta Erresuma birrerai-kitzeko, hebraierak utzi zion judu herriaren hizkuntza *bakarra* izateari. Grekoek hartu zutenean, Alejandro eta ondorengoekin hirueledun egoera sortu zen: greko-aramer-hebraierara. Hauze dugu kristau ebanjelariet markatzen dutena. Arameerak eta grekoak batipat, hebraierak ez beste arrakasta eta abantail-iez gozatzen zuten, judu herriak azken mendeetan jasan zituen militar hondamenen ondoren. Erromatarrek egindako barreiaketa masiboaren aurretik ere, hebraiera diglosi antzeko egoeran aurkitzen zen, sasielebitasunean, hebraiera beherakako hizkuntza bezala, giza egoera azpiagokoan aurkitzen zenez gero.

Honek ez du esan nahi Salomonen bigarren Tenplu garaian, hebraiera baztertua zeukatenik. Honen froga ederra, 1947an Itsaso Hilean aurkitutako eseni papiro sonatuak ditugu, gehienbat hebraieraz idatziak daude eta . Era

berean, garai honetako beste zenbait idatzi edo grabapen ere hebraieraz eginik aurkitzen dira. Eta, batez ere, Nehemias profetaren erostek demostratzen digutenez, zenbait judu gurasok beren seme-alabei ez zietelako hebraieraz egiten, kristau haroaren urte batzu aurretik, hebraiera-arameara elebitasun egoera ezartzen ari zen herrian. Ez du ezerk bultzatzen bigarren Tenplu garaiko mendetan arameerazko elebakartasun egoera zegoenik pentsatzera.

Kristau haroko 70. urtean, sei urtetako judu matxinadaren ondoren eta sei hilabetez Jerusalem inguraturik edukiz gero, Titusek hartu zuen hiri hau eta Salomonen Tenplua, juduen erlijio muina, zeharo xahutu. Juduen barreiaketa, Erromatar Enperadoregoaren luze-zabalero osora egin zen sistematikoki. Eta 135. urtean, Bar Koshbaren gidaritzapean, Erromaren aurka azken aldiz altxa zirenean, odolezko itsaso batetan itoa izan zen Israel, Massada gazteluko azken defendatzaileek (Itsaso Hileko ertzetan) nahiago izan zuten beren buruak batera erhan erromatarren eskuetan jarri baino. Eta gelditu zen judu herria barreiatua izan zen.

Hebraierak utzi zion komunitate juduaren nazio hizkuntza izateari.

#### 4. ISRAELGO POLITIK—ERLIJIOZKO HAUSTURA SORTZEN DA

Israelen Historia ezagutzen duten askorentzat, Salomonen Tenplua bigarren aldiz desagitea (honen azken hondakin da “Erosten Harresia”), politik independentzia galtzea bera baino ere latzagoa izan zen. Ez da ahaztu behar, juduek (beste herri askok bezala, bide batez esateko), Bibliako esanetan sinesten zuten neurrian, herri berezizat jotzen zutela berena, Jainkoarekiko harreman berezietan eta eginkizun funtsezkodun bezala Historia Unibertsalean.

Tenplua desagitea, haientzat, lamaistentzat gaur Potala Llassa desagitea izanen litzatekeenaren antzeko zerbait bezala gertatu zen.

*Politik* independentzia ezin birlortu zuten zuzenean, eta barreiaketa osozko atzerrirapen hura luzarorako zihoala ikusirik, Johanan Ben Zakkai-ek, juduen militar derrotaren ondoren, erlijio hutsezko “Akademia” bat Yavne-n (Gaza ondoan) eraikitzeko eskubidea lortu zuen, Vespasiano erromatar enperadorea-  
rengandik.

Judaismoaren ideologia hutsezko planteiaketa hau onhartzeko Erromaren arrazoiek nahiko garbiak dirudite: judu arazoa, *nazio* mugimendu izatetik *erlijio* mugimendu izatera pasatu zen. Eta politik eskakizunak, pentsakizun abstraktu eta konfesional batzutan gelditzen. Inperialismo guztiek lagundu izan eta laguntzen diete nazionalist mugimenduen ideologiazko eta desbiderapen unibertsalisteri. Eta Erroma ere ez zen motzago gelditu Ben Zakkai-ren eskakizunarekiko.

Yavneko akademiak (mendetan zehar Diasporaren erlijio-ideologiazko lege-bilduma osatu zuen), oraindik sendatzeko asko falta zaion etendura bat sortu zuen. Hainbat aldiz aipatutako galdera hauetan laburtuko genuke etendura hori: Badago judu herri bat? Judu arazoan, badago erlijio konfesionaltasu-

naz aparteko beste zerbait? Zer da sionismoa: judu abertzaletasuna, ala gurutzada juduzalea?

Ezpairik gabe, hiru planteiaketa posible horiek, gaur egun, bi osagailu hauetan datzate, eta hauengan dago, bai eta, judu arazoaren soluziobidea:

A) “Judu arazo” delakoa, erlijio problemaz ezkutaturiko beste klase problema bat gehiago baizik ez da.

Sionismoa, zentzu honetan, “judu” kapitalist burjeseria handiaren interes monopolistak babestu eta disimulatzen dituen filosofia teokratiko eta obskurantista dugu. Israel, interes horien zerbitzurako bulegoa izanen litzateke, eta munduko azken Estatu teokratiko gainera. Ez dago judu arazoarekiko nazio ikuspunturik. Judu askatasuna, integrapen orokorrean datzake, arazoa klase borrokaren textuinguru orokorean sartzean, eta sozialismo zientifikoaren erdiespenean irtenbide bezala. (Hau da *marxista-leninisten postura normala*.)

B) Judu arazoa, nazio problema da.

Diaspora gehiegi luzatu batek, ustez erlijiozko arazo bat bilakarazi du judutasunaren zentzu etniko eta hebraitarra. Irlandan ere gertatu da metonimiazko mekanismo baten bidez. Judu herriaren askatasuna, nazional askatasunaren bidez bakarrik liteke posible, israeldar estatu baten sorkundeaz (Hau, *sionist ezkertiar laikoen postura* dugu.).

D) Judu herria, Jainkoak hautatutako Herria da. Judu trajedian, gizadiaren tragedia osoa agertzen da, nazio mailan. Israeli dagokion jomuga berezi bakarra, Israelgo Estatuaren birreraikuntza da, Bibliako lurraldeen baitan eta biblia konfesionaltasun zorrotz batetan. Errebelazioa izan da Israelgo historian zentzua eta, mendeak zehar, itxaropena eman diona. Israelek, konfesional iraun behar du. (*Sionist eskuinaren pentsakera*.)

## 5. HEBRAIERARI BURUZKO POSTURAK

Ez da zaila hiru talde handi hauek Israelgo hizkuntz berbizkundeari buruz luketen posturaz jabetzea:

A) *Marxista ezker ofizialarentzat*, hebraieraren berbizkundeak ez du interesik, eta ez du zentzurik ere, “sionista arrazakeriaren” adibide bezala ez bada (hari honetan agertzen zaigu, bai eta, O. N. U.-n orain berritotsu izan diren eztabaidetan, Estatu askoren postura). Baina, arazoa planteiatu zen barnean ere. XIX. mendearen azken aldera, ezker honek “*yiddish*” mintzaira (judu proletalgoarena) *hebraieraren* (rabino eta liberal burjesen mintzaira) aurka jartzen zuen, horik bait ziren judu herriko “liberatu” bakarrak. Ezker superklasista hori, hizkuntz problema (hebraiera/*yiddish*), klase kontraesan orokorren (burjeseria/proletalgoaren) alderdi bihur erazten saiatu zen; baina alferrik.

Marxista ezkerria, asimilazalea da, antisionista; eta judu arazoa antikapitalista borrokaren kapitulu batetara laburtzen du.

B) *Sionista laikoentzat*, Haim Rabin Irakasleak ongi dioenez, hebraiera da judu gutziek batera eduki zezaketan hizkuntza bakarra. *Yiddish* eta ladinoa

judu herriko sail batzu bakarrik mintzaten ziren, eta hizkuntza bi horik ezagutzen ez zituztenek ez zuten onhartuko sekulan beren judu iraganarekin loturarik gabeko beste hizkuntzarik. Ez zen posible izanen ingelesa bezalako hizkuntza bat onhartu, eta gero Herriko Sukaldera zetozen guztiei inposatzea, zeren hauk judu izateko asmoarekin bait zetozen eta ez izaera bat beste baten truk egiteko. Hebraieraren berbizkundera, horrela judu berbizkunderaren funtsezko zati bat gertatzen zen. Judu laikoentzat hebraiera zen judu guztiek onhar zezaketen hizkuntza *bakarra*, eta bai eta Israelgo herriari giza lotura eman zie-zaiokeen bakarra ere.

Postura hauxe da, besterekin batera, Alber Memmi, judu idazle ospetsuarena: “Judu naziotik kanpora hebraiera ez zen inoiz juduaren hizkuntza mitiko bat besterik... Orain, zer litzateke judutasun berezia kultura berezirik gabe? Edo eta, zer da kultura berezi bat hizkuntza berezi bat gabe? Literatura hizkuntz arazo zenbateraino gertatu ohi den pentsatzerakoan, zer da judu literatura bat judu hizkuntzarik gabe?” (*Liberation du Juif*, 167).

C) *Sionista erlijiozaleentzat*, azkenik, hebraiera hizkuntza sagaratu bat da; Biblia idatzi zutenen hizkuntza (haren zati handiena behintzat). Salomonen eta Daviden hizkuntza. Talmudeko hizkuntza eta ez Thora-koa bakarrik. Nolanahi ere, azpimarratzen dute, salatu egin beharko litzateke hizkuntza sagaratu “laiko” alorrean erabiltzea. Baina justifikatzen dute, ezpairik gabe, hebraieraren beharrezkotasuna, eta judu herri hebraieradun batena ere. Hebraierari atzea demaion judu herria, herri apostata izanen litzateke.

## 6. SIONISTA MUGIMENDUAREN JAIOTZEA

Mila Estaturen baitan mendeak zehar barreiatu eta kristau-musulman erlijioz definiturik egon den judu herri honek kupida eta zentzurik gabeko zapalkuntzak jasan behar izan ditu. Kristautentzat, Israel, “herri Jainko-erhailea” zen, Kristoren jainkotasunari uko egiten ziona; eta, haren itsukeria-rengatik, birao kolektibo eta azkengabea zen haren izate osoa. Musulmanentzat ere, Kristorengan, profeta aurpegi bat, ez besterik, ikusten dute eta, judu herria, apostaten herria zen, eta gogorkeria osoaz tratatu beharrekoa, gainera. “Les juifs arabes se méfient des Musulmans plus encore que les européens, et rêvaient d’Eretz-Israel bien avant les Russes et les Polonais”. (*Juifs et Arabes*, A. Memmi, 36. or.)

“Ghetto” hitza judu komunitateei eraxteki izan zaie, erabat hertsia zirelako; eta “pogrom” hitza, berriz, judu erhaiketa kolektibo eta bortiza adierazteko sortu zen.

Ehundaka urtetan, juduak, atzerriko etengabeko segurtasun faltaz, Israel hebraitar batetara etxeratzean amets egin izan du, han hiritar “oso”, herkidé oso (à part entière) eta ez betiko arrotz izan ahal zedin. Sinagogetan milioika juduk arrenka eskatu izan du, hiru bider egunero, Israela itzultzea, eta Jerusalem birreraikitzea. Baina, itxoinenez, itzulpen horrek halako kutsu mitiko eta



ametsezko bat hartu zuen, sekula santa batetara geroraturako zerbaiten itxura halegia.

Hala ere, XIX. mendearen azken aldeko juduen erhailketa ugariak eta nazionalitateen itzarpen mugimendu zabalaren oihartzunak entzuten hasi ziren judu komunitate ugarietan, hots, Europako Ekialdekoetan batipat. Eta, horrela, intelektualek zuzenduriko kultur mugimendu baten bidez, berarizko *sionista* mugimendua sortu zen.

Mugimendu hau, honako helburu honek definitzen zuen: “Zuzenbide Publikoak garantizaturik, babesleku bat sortu, Palestinan, juduen artean”.

1858an, Eliezer Ben Yehuda jaio zen, eta 1860an, berriz, Theodor Herzl. Bata eta bestea, judu herriaren hizkuntz eta politik alorren berbizkudearen jorratzaileak izan ziren.

Baina ez litzateke egokia izan bi mugimenduok bateratsuegi ikustea. Nahiz eta Ben Yehuda eta Herzl kidekoak izan, hizkuntz berbizkudeak aurrea hartu zion politikoari. Garbi ikus daiteke hori gertakizun honetan: Jerusalemgo Hebraierazko Unibertsitatea 1925ean sortu zen, Israelgo Estatu Librean baino 23 urtez lehenago, beraz.

1783 eta 1811 urteen artean hebraierazko lehen aldizkaria argitaratu zen Alemanian. Ez zen aldizka jakinekoa. 1856an, ordea, Ekialdeko Prusian, hebraierazko *Hamaggid* astekaria argitaratzen hasi zen intelektual talde bat.

“Argituen mugimenduak”, “Haskala”, bere aldetik, 1860az gero, hebraiera komunikabide bezala erabiltzea erabaki zuen; eta honela, azaldu zen Abraham Mapu (1867an hila), hebraierazko lehen nobelagilea.

Honekin argi gelditzen zaigu, bada, Herzl-ek Bâle-n (1897) bere lehenengo Sionista Biltzarrea eratzten duenerako (Biltzarre honen helburua hebraieraren berbizkudea zen, 1901eaz gero Israelgo hizkuntza bilaka zedin), hizkuntz mugimendua ibilian zebilela franko urtez lehenagotik.

Sionista mugimenduek, hebraiera, beren barneko lan eta komunikabideetarako hizkuntza bakartzat hartu zuten. *Radikala* zen oso Yehudaren postura: Sinagogatik kanpora ere hebraieraz egin behar zela erabaki zuen, liburu sagaratuetatik ateratako esaldi batzuek erabiliz, etsenplu gisa. “Hebraieraren berbizkudea egiteko bide bakarra, zioen, irakaskuntzako hizkuntza *bakartzat* bera hartzea da”.

Etsenplu emateko erabaki sendoa hartuz, Palestinan agertu zen 1888an. Jaffako Hegoaldean Richon-le-Sion hebraierazko eskola bat sortu eta aurrera ateratzen lehiatu zen. Osasun eskasiak (Ben Yehuda tuberkulosoaren kasua) ez zion utzi bere azken helburura iristen; baina Richon-le-Siongo eskolak, hura gabe ere, aurrera jarraitu zuen ondorengo hebraierazko lehen mailako irakaskuntza orokorraren bidez urratuz.

Bien bitartean, oso mugimendu boteretsu bat (100.000 eta gehiago sionista 1900ean) sortu zen Herzl-en inguruan. Hau bera 1904ean hilko zen, nekez, 44 urte besterik gabe. Giro honetan hasten zen, gero eta ugariago bilakatuko zen milaka judu talderen itzulera. Hauk, benetako aitzindari bezala, lurralderik kiskalienetan eta itxuraz bizitzeko gauza ez zirenetan kokatu ziren. Horrela, 1918an jadanik, “Palestinako Britainiar Agintaritzak” sortu aurretik beraz (1921ean gertatu zen eta hori), bazeuden Israelen 34.000 aitzindari.

1921ean, hebraierari ofizial titulua eman zitzaion (arabiera eta ingelesaren kidekotasunean).

Baina jo dezagun atzera, eta ager dezagun laburki bederen, Israelek hebraiera eguneroko hizkuntza idatzi eta mintzatu bezala bilakarazteko eman izan duen zenbait problema teknikoren soluziobidea.

## 7. FONETIKA ETA ELKARRULERPENAREN ALDETIKO PROBLEMAK

Juduak, mendeetan zehar, arabiera, ingeles edo turkiera bezain fonetika desberdinetara ohituak zeudenez gero, bistan zegoen ez zela aski izanen, nahiz eta hura bera nahiko zaila izan, hebraiera literario eta idatziaren batasunarekin bakarrik. Judu etorkinen fonetika ohiturak ezin zitezkeen desberdinagoak izan; hebraierazko hitz bat bera ahozkatzean alde handiak nabari ohi ziren judu batzutatik bestetara, eta, horrela, hebraierazko elkarrulerpena biziki gaitza gertatzen zen.

Honela bada, mintzaira ere batu beharrean aurkitzen ziren hizkuntzalariak, eta ez ortografia bakarrik. Sinagogetako liturgi mintzairak ere desberdinak ziren, zein errejiotako hizkera ukan, kontua, eta horrela gaizki balia zitezkeen hartaz batasunerako bide bezala.

Lehen zuzenbide bat, ezpairik gabe, arameeradun juduek eskaintzen dute, gorago esan bezala.

Bigarren zuzenbide bat, judu-arabiar dialektoek, “ekialdeko juduek”, ematen zuten.

Hirugarren bat, “sefardiek”; jatorriz espainiar-portugesek. Errege Katolikoek XV. mendearen azken aldera kanporaturik, judu “sefardiek”, Turkia, Grezia, Bulgaria eta Palestinan barrena sakabanaturik zebiltzenek, beste fonetika mota berezi bat erabiltzen zuten.

Eta laugarren fonetika mota bat, gehienbatena, “askhenazi” juduena zen. Germaniar “yiddish” mintzaira eta lehen aldiko aitzindari gehien jatorrizko hizkuntza.

Hizkuntz ikerketa sakonen ondoren, espezialistak ondoren honetara heldu ziren, hots, bertako hebraieraren fonetika, Diasporaren aurrekoarena, guttiago aldatua zegoela aramear komunitateetan, sefardietan (= ladinoetan) eta judu arabiarretan, “Yiddish” hizkuntzadunetan baino. Eta, beraz, Ben Yehuda beraren eritzitari jarraituz (poloniar yiddishduna berau) sefardien mintzaira onhartu zen, eta ofizial mailara jaso, ondoren, Hebraieraren Akademiak eta Israelgo Estatuak.

Bidezkoa dela ematen du erabakiak. Zeren, jatorrizko hebraierak, arameerarekin, arabierarekin duen kidekotasun handiagorengatik, pentsa zitekeen, hizkuntzalaritza maila hutsean, sefardierak desberdintasun ttipiagoa ukanean zuela mintzairan, askhenazik baino.

Gauzak horrela, ofizialki, /r/ fonemaren mintzaira mihi puntan egin behar

da (gaztelaniakoaren antzera, “perro”, “carro”) eta ez eztarrian (frantsesaren antzera, “horreur, verre”); eta azpimarratu izan da, era berean, /x/ (gaztelania-ko “j”: “juez, jarro”) fonemaren eta /h/ fonemaren (euskal xiberotarrean aurkitzen da, adibidez) arteko bereizketa, ez bait dira askotan askhenazi-juduak berizketa hori egiteko gauza izaten.

Jakina, erabaki hauk ez dira batasun osoarekin hartuak izan, eta horrela aurki dezakegu, esate baterako, “hebraiera batu” legal horren biziki aurkako zenbait iparramerikar. Eta, beste aldetik, askhenazien ugaritasunak ere ez dio sefardi mintzairari behar baino gehiago exijitzen. Irratian, adibidez, derrigorrezkoa da sefardi mintzaira, baina beste zenbait eginkizun ez hain ofizialetan uzten zaio lekua askhenazi mintzairari ere.

## 8. EGIN AHALEGINAK NEURTZEKO ZENBAIT DATU

Esan dugu gorago hebraieraren berbizkundera ez zela 1948ko Israelgo Estatuaren jaiotzarekin hasi, askoz lehenago baizik.

Alde batetik, juduek ez zuten inoiz “arrazoin praktikoengatik”, esate baterako, inolako elebitasunik eskatu. Ben Yehudak hebraierazko eskola elebakardunak defendatu zituen, eta berauk praktikan jarri; eta Sionista Mugimenduak, yiddish hizkuntza Israelgo hizkuntza ofiziala izatearen posibletasuna baztertu ondoren, hebraieraren elebakertasuna proposatu zuen fermuki.

Erabaki honengatik, ez zen sekula santa baieztapen teorikoen mailan gelditu. 1883. urtean bertan, hebraierazko lehen eskola sortzeko asmoz bost urte lehenagoko aurren biltzarretan, Ben Yehudak ez zuen hebraieraz beste inolako hizkuntzatan etzabaidarik aurrera eraman nahi izan, nahiz eta bere solaskide guztiak ez gauza izan “hitzetorriaz” nazional hizkuntzan mintzatzeko.

Sionista Mugimenduak, hebraiera ezarri zuen komunikabide hizkuntza bezala. 1904. urtean “Va’ad Halashon” sortu zen, eta 1953. urtean Hebraieraren Akademia bilakatu berau.

Eragozpen guztiak gaudituz, eta lehen ikasleen hezketa maila bera arriskuan jarri, 1906. urtean Jaffako Hebraierazko Lizeoa sortu zen; eta 1908an, berriz, Jerusalemgoa.

1913an Haifako Goi Mailako Teknik Eskola irekitzen da. Batzuen eritziz, ez zitekeen praktikara eraman halako erabakirik (hiztegia, liburuak, etab., falta ziren), eta egokiago izanen zen teknik gaiak alemanieraz ematea.

Asko itxaron baino lehen etorri zen kontraindarra: “milaka ikasle eta irakasle utzi egin zituen ikastetxeak, ikastaroak atarian organizatzeko erabakiz” (Haim Rabin).

“Yichuv”-ek (= judu birrerriratuen kopuruak) irabazi egin zuen hizkuntza-aren aldeko borroka honetan.

Esan da lehenago, bai eta, hebraiera, 1918an, Palestinako hiru hizkuntza ofizialetako bat dela, eta 1925ean Jerusalemgo Hebraierazko Unibertsitatea sortu zela (lau daude gaur egun).

Jerusalem Irratik 1934an, 3,5 ordu ematen zituen egunean hebraieraz, eta 1939an, 5,5 ordu eguneko. 1963an, berriz, 16,5 ordu ziren egunean.

Azken mende laurdenaz gero, Israelen 1.000tik gora liburu argitaratzen da urtean (1.420 liburu 1954ean).

Gaurko 25 egunkarietatik 17 hebraieraz ateratzen dira. Eta 70 astekarietatik, 37 hebraieraz.

Gutti gorabehera % 50 bat liburu itzulpenak dira; eta berarizko eginahal bat egiten ari da hebraiera ahuleko etorkinen haurrentzat liburuak prestaten. Judu idazle talde handi batek gero eta liburu hobeak ateratzen ditu. Gogora dezagun 1966ko Literatur Nobel Saria, Samuel Agnon idazleari eman zitzaio-  
la.

Hebraiera ikasteko mila eratako irakastetxe et metodoz gainera (kibbutz, hiritako akademiak, pertsona helduentzako ikastaroak, irratizko ikastaroak, etc.), judu erakunde berezi bat ("Ulpan" erakundea) etorkinen integrapenez arduratzen da (20.000tik gora pertsona hartu eta gertutzen ditu bere hainbat ikastetxetan). Ikastaroak 5 hilabetekoak izaten dira; eta eritzi normala ohi denez, ikasleak, ikastaro horren buruan, elkarrizketa normal eta arrunt bati jarraitzeko gauza izatera iristen dira.

Yehudaren hil geroztiko Hiztegi ikusgarriak, bere 16 bolumenez, ikusi du arria. Beste hiztegiek, garrantzi guttiagokoak badira ere, osatu eta zehaztu egi-  
ter dute egungo hebraitar hiztegia 300.000 bat hitzetaraino.

## 9. AMAITZEKO ZIFRA BATZU

Ezaguna da indar guzti horien zabalketaren ondorena: judu herria birjabe-  
tu egin da bere nazional hizkuntzaz. Miloi erdi bat israeldarrek ez du hebraiera  
beste hizkuntzarik ezagutzen.

<i>Urtea</i>	<i>Israelgo judu populazioa</i>	<i>Hebraieradunak</i>
1918	55.000	34.000
1948	650.000	520.000
1957	1.700.000	1.650.000
1961	2.000.000	1.900.000

Pentsa ohi denez, gaurko Israelgo populazioaren % 96 gauza da hebraieraz  
mintzatzeko, eta % 15-30 bat hebraierazko elebakarduna da.

Beste edozein argitasun baino esanguratsuagoak dira zifra horik, eta alfe-  
rrikako deritzagu beste eraskinik ematen hasteari, ez bada, beste behin, judu  
herriak, nazional hizkuntzaren berbizkunderako garaipenez aurrera atera duen  
borroka txalotzeko.

## 6. FINLANDIA

Finlandiar hizkuntza edo suomiera (lau milioi baino gehiagok mintzatua gaur egun) interes handiko bezala gertatzen zaigu euskaldunoi.

Alde batetik, galego eta flandestar kasuen kontraposturan, esate baterako, suomiera ia erabat bakarra eta loturarik gabe geratzen da tipologi ikuspegitik begiratzen badugu, eta horregatik, batasunaren eta egungotzearen problema teknikoak bere erraietatik konpondu behar izan ditu.

Bigarrenez, suomitar hizkuntzaren kopuru demografikoa euskaldunaren antzekoa da: Finlandiar Estatuak (Suomi/Finland), elebidun jarraitzen duelarik (suomiera-suedieradun), 4.703.000 bizilaguneko populazio osoa dauka, 337.009 Km<sup>2</sup>-zko zabalgo oso batez, baina desertu hutsa bere zatirik handienan.

Eta hirugarrenez, suomitar etnia, suediar-errusiar presio bikoitzaren menpean mendeetan egon delako, zatibiturik aurkitzen dugu gaur egun, hots: Finlandiako Errepublikak Mendebaldetik, eta Kareliako Sobiet Errepublikak, Ekialdean, 1956 arte bakarrik. Herri honek, gainera, izugarritzko populazio mugimenduak jasan behar izan ditu: atzerrirapen masiboak, bertako jendetzaren ordez beste batzuek birlandatuak egon izan diren genozidioak, barruko inmigrazioak, etab.

Hala ere, suomiera, gaur egun, finlandiar populazioaren % 94ek egiten du, eta XIX. mendean jasan behar izan zuen egoera mengel hura erabat gaititua izan da.

Irakurlea ohar daitekeenez, "finlandiar populazioak" eta "suomitar hizkuntzat" dihardugu. "Finlandiar" hitza, geografia eta administralgoari datxeko; "suomitar" hitzak, ordea, jite etniko bat darama. Era honetantxe populazio belgiarraz edo populazio suitzarraz hitz egiten da, baina ez du zentzurik izanen hizkuntza belgiarraz edo hizkuntza suitzarraz hitzegiteak.

### 1. FINLANDIAREN GEOGRAFI KOKAPENA

Finlandia, gehienbat, lurralde aintziratsu (60.000 aintzira) eta basatia delarik, Ipar Errusiaren Mendebaldean aurkitzen da, bere Iparraldean Kola penintsulaz, Hegoaldean Latokka lakuaz eta Mendebaldean Botnia itsasmuturrak (Baltiko itsasoaz) mugaturik.

Lehenago esan denez, Finlandia etengabe bere hi hauzotar garrantzitsuen politik eragipenera menperatua egon da. Bere mendebaldeko hegian Finlandiak beti Suediaren presentziarekin topo egin behar izan du (honen itsasertzetako zenbait kolonia orain mila urtetatik konuntz ezagunak bait dira); eta Ekialdean, berriz, etengabeko txoke batetan egon da errusiar nazioarekin. Ez da ahaztu behar Petrogrado (gaurko Leningrado) errusiar Enperadoregoaren zilborra izan dela orain urte gutti arte, eta hiri hau ia Finlandiarekin mugan aurkitzen dela.

Honek suomitar etniaren daturik esanguratsuenetako bat agertzen digu, hots, bere "finlandiar" lurraldea funtsean luteranoa dela (Suedia bezala), eta bere "kareliar" alderdia, berriz, ortodoxo izan dela funtsean (Errusia bezala).

## 2. FINLANDIA ETA KARELIA

Esan da nola suomitar etnia politikoki zatibitua dagoen. Alde batetik, bada-go finlandiar Estatu bat, normalean Finlandiatzat ezagutzen duguna, eta "suomiera" mintzatzen dena; eta badago Hego-Ekialdera (edo bazen behintzat 1932 eta 1940ko gertakizun latzak arte) Karelia deitu ohi dena, eta "karjala" suomitar dialektoa mintzatzen duena. Finlandiako hizkuntza ofizialaren desberdintasun ttipi batzuz.

Iparraldeko Karelia ez da sekulan Finlandiar Estatuaren parte bat izan. Baina Finlandiaren 1918ko independentziaren ondoren, bere Estatu anaiarekin elkartu nahi izan zuen, eta artean jaio berria zen marxista-leninista Estatuaren kontrajarrera bortitzarekin topo egin zuen, ez bait zitzaion horri iheste hartan "burjes azpijoko" bat besterik zegokeenik iruditzen.

Finlandiar eta Sobietar Estatuaren artean Dorpat-eko Bakea izenpetzean (1920), Moskuko gobernuak, Kareliaren apartatze-nahi posible horren arazoa, autodeterminatzeko, bozataratuko zuenaren hitza eman zuen. Baina horretarako erabakia zegoen eguna heldu baino lehen, Kareliako Sobiet Errepublikak sortu zen "bere kabuz", eta, gauza horrela, Moskuren ustez, alferrikako gauza zen herriari bere boza eskatzea.

Finlandiak ONU-ra jo zuen 1922an: alfer-alferrik ordea, Errusiak ez zuen onhartzen eta gisa horretako erakunderik. 1919-1920ko gorabeherak, bada, ez zuten ezer garbitan akabatu, eta bien bitartean errusiar etorkinek % 46ra behertzen zuten bertako jendeen kopurua. Jokabide hau bera erabili izan da geroago Letonian, bertako jende jatorrak gaur egun oso guttiengo batetan aurkitzen direlarik.

1932an beste matxinada berri bat altxa zen sobietarren aurka. Estalinek, orduan, metodo gogorak erabiltzeari ekin zion, eta populazio osoa, batera, (300.000 pertsona) Enperadorego osoan barrena sakabanatu zuen, eta, bidena-bar, errusiar etorkinez bete kareliar lurraldeak.

Kareliako Sobiet Errepublikak ezeztatua izan da geroago, 1956an.

Hizkuntzalariek diotenez (R. Austerlits) suomi-kareliar hizkuntzadunak, gaur egun, 170.000 izanen liriateke. Horra hor bada, bere ahozko literatur aberatsari esker, nazional poema "Kalevala"-ri bizia eman zion suomitar errejioaren zorigaiztoko halabeharra.

Hegoaldeko Kareliari dagokionez (Viipuri eskualdea, Viborg errusieraz), Leningrado ondoan eta Latokka lakuaren Mendebaldera, honen patua ere ez zen zori hobegokoa izan.

Stalinek 1939an agindu politiko egin bazuen ere, sobiet harmada Finlandia-ko lurretan satzen zen bi hilabete geroago. Iparraldeko herriak, beren postura neutralista zela eta, ez ziren Finlandiari laguntzera agertu, eta honen erresistentziako harmadak, bere bakardadean, berehalaxe lur jo beharra izan zuen.

Moskuk, orduan, Kareliako istmoan aurkitzen den Viipuri-ko lurralde indus-tritsua beretzako bortxaz hartu zuen. Hori zela eta, bertako jende guztiak (400.000 pertsonak) ihes egin zuen Finlandiara.

Horrela zeharo hutsik gelditzen zen lurraldea, berriz, batipat errusiar esla-boz bete izan zen. Eta Hegoaldeko suomitar Kareliak agur egiten zion bizitzari.

### 3. SUOMIERAREN EGOERA TIPOLOGI IKUSPEGTIK BEHATUTA

Suomierak, garrantzizko bi dialekto dauzka: batetik, “suomitar” dialektoa, Finlandiako hizkuntza ofiziala gaur, eta lau milioi baino lagun gehiagok mintzatua, eta bestetik, “karfala” dialektoa, bere bi subdialektoetan galtzear aurkitzen delarik.

Suomiera, euskara bezala, ez da indoeuropar hizkuntza. Ipar Errusiako izugarritzko lurraldeak estaltzen dituen Ural hizkuntz taldekoa dugu baizik.

Suomierari zerbait hurbiltzen zaion bakarria “eesti” da, Estoniako hizkuntza ofiziala, milioi bat pertsonak mintzatua.

“Erza”, “mari”, “komi” eta “ud-murt” hizkuntzak, hauk denak SESB-eko herrialdeetan eta milioi pare bat pertsonak mintzatuak, dexente urruntzen dira suomierarengandik. Eta zer esanik ez hungariar edo siberiar samoyedori buruz, ez da eta suomieraren urruneko senide bat besterik.

Laponiako “sam”-ri dagokionez, bere suomierarekiko senitasuna, arras urrunekoa da, eta hizkuntzalariek beren zalantzak aurkitzen dituzte bien artean lokarririk erabakitzekeo garaian.

Horregatik genion kapitulu honen haseran, suomira, tipologi ikuspuntutik begiratuta, hizkuntza arras bakarria dela munduko hizkuntz taldeen aurrean.

### 4. GAURKO EGOERA FINLANDIAN: SUEDIAR ALDEA ETA SUOMITAR ALDEA

XIX. mende aurretik, Norvegiak eta Finlandiak, Suediarengandiko eragipen gogor bat jasan behar izan zuten. Ez da ahaztu behar Norvegia 1905 arte ez zela apartatu Suediarengandik, eta Finlandiak, berriz, suediar lurralde ofizial izateari 1809an utzi ziola, Errusiar Enperadoregoko “Dukat Handia” izatera pasatzeko, 1918 arte, nahiz eta, hala ere, Stokolmo-ren eragipenarik ez galdu.

Suediar hizkuntza, Finlandiako hizkuntza bakarria izan bazen ere 1902 arte, 1863ko tarte ttipi batez aparte, gaur egun baztertua aurkitzen da geografikoki suomiera aspaldiko mendeetatik guttiengo baten hizkuntza bezala aurkitzen zen itsasertzeko alderdietara. Eta, soziologikoki, berriz, herriaren goi mailakoen parte bat besterik ez da mintzatzen.

Ikus dezagun orain Finlandia nola geografikoki, hiruzatitua dagoen: suomieradun zona, suedieradun zona eta elebidun zona.

Finlandian (ez Belgikan bezain zorrotz baina), populazio minoritarioaren

hizkuntza % 10 edo guttiagok mintzatua denean, herri edo lurralde hori *elebakarduntzat* hartzen da; eta guttiengoaren hizkuntza % 10etik gora mintzatzen den lurralde oro *elebiduntzat* jotzen da.

Klasifikapen hau ez da oso tinkoa. Baizik eta hamarurtero egin ohi den ize-nemate batek, gertatu aldaketen arabera, berritu eta egungotu egin ohi ditu *elebakardun* eta *elebidun* zonen zerrendak.

Hiri garrantzisuenetan, bestalde (Helsinki, Turku, Vaasa, etab.), 5.000 edo baterako, eta % 30 bakarrik suedieradun, hiri horretan, administralgoa *elebiduna* izanen da. Baina hiri berean, adibidez, % 92 bizilagun badaude suomieradunak (edo suedieradunak), orduan, administralgoa gehiengoaren hizkuntzako *elebakarduna* izanen da.

Era honetan, ahalik gehien guttiengoaren eskubidea gorde nahi da (izan ere, Finlandian, guttiengo hori suediar jatorrizko ekonomi boteretsuko giza mailak osatzen bait du).

Hiri garrantzisuenetan, bestalde (Helsinki, Turku, Vaasa, etab.), 5.000 edo gehiago suediar hizkuntzadun bizilagun badaude, hiri horietan administralgoa *elebiduna* izanen dela erabakia dago.

Planteiaketa honek gaurko Finlandian (1962) honako egoera ofizial hau eman du:

438 suomitar *elebakardun* udal.

44 *elebidun* udal.

47 suediar *elebakardun* udal.

Aski dugu gaur suediar hizkuntzadunen jendetza % 6,5koa dela gogoratzear, suediarzale hizkuntz politika honetaz jabetzeko. Ez da ahaztu behar, hala ere, orain hiru mende laurden suomitar hizkuntzak baztertua zirauenaz.

Aurkeztu den lege planteiaketak, laburtuz, honako egoera orokor hau eman du:

a) Jeneralean suomieradun *elebakardun* Estatu bat —hiri handietan izan ezik—, hauetan *elebidun* egoera dago eta.

b) Bi lurralde suediar *elebakardunak* (Botnia itsas muturreko ertzetan): Kokkola-tik Waasara doana bata, eta Turkutik Helsinkira doana bestea. 330.000 bizilagun denetara.

d) Zona berezi bat (Aaland irlak). Honako hauetan, suedieraren erabateko nausigoarengatik (% 96) eta geografi urruntasunarengatik, erdi independentziako gobernamentu berezi bat proposatu izan da, garantia antisuomitar bereziekin. Jendetza: 21.000 bizilagun.

Neurri guzti hauk eta ere, etengabeko tirabira bat nabaritzen dute behaleek *elebidun* zona guztietan. Apartatu nahian ere ibiliak izan dira Aslan Irletan (egungo konstituzional garantiak baino lehen), Suediarekin elkartzeko asmoz.

Nola heldu dira irtendibe honetara, eta zein egoeratik?

## 5. SUOMIERA, HIZKUNTZA DEBEKATUA FINLANDIAN

Finlandiako gidari mailak, gaurdaino, suediar hizkuntzadunak izan dira, eta agintea bera, 1918 arte, suediar monarkiaren zerbitzuko egon da.



Horren froga ederra bezala, herrialdeak izan duen nazioarteko deitura bera daukagu: “Finlandia” eta antzekoak. Denak suediar “Finn Land” etik ateratakoak, eta “Suomi” deitura jatorretik urrun aski gelditzen direnak. Deitura hori ez da bakarra, zeren suediar guttiengoak herrialdeko izen guztiak aldatu egin zituen alemanierazko kutsu bat emanez. Horrela, Helsinkiri, Helsingfors izena ezarri zion; Tampere-ri, Tammerfors; Turko-ri, Abo; Uusanpunkiri, Nystad; Hamina-ri, Friedrikshamm; etab.

Ganivet espainiarrak ongi aski zertzen zuen egoera hori, zera zioenean: “Finlandiarrei kendu egin zieten itsas hegia eta honen portuak oraindik berdintsu jarraitzen duten suediar hiri bilaka erazi. Ondoren, suediarrek, hiri hauetan errusiar autoritatearen aginteperatuak izan ziren... Finlandiaren Mendebaldea, Suediatik hurbilen dagoena, suediarra da ia erabat: Abo edo Hangoe bezalako portuetan, ia dena Suediaren bidez hartzen da, egunkarietatik hasita, Stokolmotik etortzen bait dira, eta bertakoak baino interes handiagoarekin irakurtzen gainera”. (*Cartas Finlandesas*, 77).

Egoera hark berdintsu jarraitzen du oraindik ere; Vaasan, adibidez, 50.000 bizilaguneko mendebal hegiko hiri honetan, 1962an, Ganiveten liburuaz gero mendi erdi bat baino gehiago beraz, artean jendeetzaren % 32,6 bat suedieraz baliatzen zen.

Suomitar mugimenduaren berbizkunde haseran (1860 ondoren halegia), suomieraren egoera oso pattala zen, giza mailan batez ere. Baina demografi mailan ere bazeuden suediera nagusi aurkitzen zen lurraldeak, *hiri giroetan* batipat:

	1880 .....	% 38,2
<i>Suediar hizkuntza</i>	1890 .....	% 33,4
	1900 .....	% 28,5
	1910 .....	% 25,3

Uusipanki-ko suedieradunen portzentaiak (% 41,1 oraindik 1910ean), suomieraren 50 urtetako aurrerapenaren ondoren, ideia argi askitan ematen digu suedierak XIX. mende erdi aldera Finlandiako hirietan egin zuen sarreraren berri. Hirietako burjeseria biziki germaniarra zen.

*Nekazari* giroan eta barruko *lakuetan*, askoz guttiago sartu ziren suedieraak, ondorengo zifra hauek agertzen digutenez:

	1880 .....	% 12,1
<b>Suediar hizkuntza</b>	1890 .....	% 11,4
	1900 .....	% 10,6
	1910 .....	% 9,3

Orain, zifrak *oro har*, gisa honetara agertzen zaigu eboluzio kuantitatiboa:

	1860 .....	% 14,3
<i>Suediar hizkuntza</i>	1960 .....	% 7,4
	1970 .....	% 6,5

Zifra hauetatik atera genezakeenez, ia 4.400.000 finlandiar suomieradunak direla; eta denetan garbi gertatzen denez, suomieraren aldeko eboluzioan doa.

Azpirarratzekoa izanen litzateke, bai eta, hiriz kanpoko populazioaren garrantzia; bada, mende honen haseran % 70koa bazen, egun % 60 baino gehixeago baizik ez dateke. Finlandiarra, bakartatera eta leku zabaletara ohitua dago, iparraldeko beste herritarren antzera.

Bozemate mailan ere, ia berdin agertzen da Estatuaren etni erlazioa: Suediar alderdiek, 1972an, denetatik % 5,3 lortu zuten. Herria, beraz, ongi definituriko bi etni komunitateetan banaturik aurkitzen da.

## 6. SUOMIERAREN 1918 AURRETIKO INSTITUZIO AURRERAPENAK

Funtsezko lehen datu bat: elebitasun ofiziala, behin betirako, iragan mendearen azken aldera Bobrikoff-ek bortxaz inposaturiko errusifikapenaren ondoren lortu zen, 1902an; suomieraren berbizkunde mugimendua nahiko aurreraturik zegoenean, beraz. Urte hortara arte, Finlandiak Suediako gobernamentua bera ezagutu zuen: suediar elebakartasunarena, halebria. Finlandiarren etorkizuna erabakitzen zuen Porvoo-ko Tratatu, esate baterako, 1809an (Suediaren soberania Errusiari pasatzean), hiru hizkuntzatan egin zen: errusieraz, suedieraz eta... frantsesez.

Lehenengo suomitar abertzaleak (Arwidson, Lönnrot, Runeberg, Snelmann), XIX. mendearen haseran jaiok, ez ziren hitz etorri mintzatzeko gauza. Eta beren lanak, bai eta antisuediar nazional baieztapenekoak ere, suedieraz idatzi zituzten.

Suomitar nortasunaz jabetze bideko lehen urratsa, funtzional mailan bederen, 1842an aurkitzen dugu. Urte horretan Luteroren Elizak bere artzaiek suomiera ezagun zezaten erabaki zuen, beren eginkizuna nekazari giroetan behar bezala bete ahal zezaten.

Kareliako baso eta aintzirak oinez eginez bere "Kalevala" nazional bilduma sonatuan 22.800 bertso herrikoi batu zituen Lönnrot suomierazaleak (1835ean argitaratu zen), Suomitar Hizkuntzaren Akademia sortu zuen 1831an.

Oraindik 1841 arte itxoin beharko da, suomitar mugimendu nazionalaren aitzindariak, inguruko hoztasun oso batetan, suomiera herriko suediar elebakardun lizeotan sartzea lor dezatenerako. Baina orain ere, hizkuntza hori, ikas-

ketetako *gai* bezala onhartzen da, eta ez *tresna* bezala. Eta 1851 arte, Historian lehenengo aldiz, suomieraren katedra bat Helsinkiko Unibersitatean sor daitekeenerako.

Nekazari giroan, eskola, XIX. mendearen erdialdera hasten da suomiera-duna izaten. Baina inizatiba pribatuarekin eta berek ordaindiz gehienbat. Estatuak suediar eskuetan jarraitzen du, eta, horregatik itxura denez, 1871ean Mikkelean (lakuen erdian aurkitzen den eta suomieradun herri batetan) Gobernuak suediar eskola berri bat irekitzen du.

Jyväskylä-ko suomitar lizeoa, 1858an sortua, aitzindarien ausardiaren eredu da, eta ez Helsingfor-eko suediar bulegokraziaren “suomierazaletasunaren” eredu.

Areago oraindik: suomitar abertzaletasunaren aurrerapenen aurrean, suediar guttiengoan organizatu egiten da, eta 1881ean Suediar Hizkuntzaren Finlandiar Akademia sortzen du.

Politik mailan, hemen ustekabeen besterik ez badugu ukitzen ere, fenomeno hori garbiago agertzen da oraindik: XIX. mendearen azkenetan, gero eta radikalago agertzen diren suomitar alderdi nazionalisten ondoren “suediar alderdiak” sortzen hasten dira, eta gero eta gogorragoak hauk ere beren antisuomitar eskakizunetan.

Zentzu honetan explikatzen da suomiera modernoaren hizkuntz batasunaren eragile izandako Stälä-ren esaldi hura. “Eskolari esker, erdi mailako klaseen suediarduntzeak XIX. mendean ondo sartu arte jarraitu zuen eta mugimenduak ez zuen bere indarrik batere galdu suediar agintea suntsitu ondoren ere” (*Lutte de Langues en Finlande*, 9). Estatuako aparatoak, errusiarren agintean ere, suediar klase gidariaren eskuetan jarraitzen zuen gehienbat. 1894 arte, esate batetarako, ez zen beharrezko suomiera ezagutzea Helsinkiko Unibertsitate Nazionalen irakasteko: aski zen suediar hizkuntza mintzatzeaz.

## 7. FINLANDIAR KLASE SOZIALAK ETA HIZKUNTZ BORROKA

Honaino idatzirik dugunaz klarki gelditzen da suediera klase gidariaren hizkuntza dela, eta bai eta mendebal hegiko herriena ere. Suomiera, berriz, herri xehearena eta lurrez barne aldeko bezala ikusi dugu. Ez zaigu batere gehiegiko iruditzen hizkuntz banaketa honek ohizko gobernamentu kolonialistena gogoratzen duela esatea.

Ez da harritzeko, ez eta, suomitar nazionalista mugimeduak eta klase borrokak etengabe elkar hartu izana, beren nortasun bila dabiltzen nazionalitateen politik borroka bihurriak sortuz: sozial-inperialismoa, nazionalismo paseista, etab.

Industriarik gabeko alderdietan, batera zetozen nazional askatasuna eta sozial askatasuna. Haietan etsaia, suediar oligarkia zen: oligarkia eta arrotza zelako.

Eta, nahiz eta oraindik XVI. mendean nobleziaren zati batek suomieraz egiten bazuen ere, berbizkunde mugimendua hasten denean, suomitar gauza nekazari gauzarekin identifikatzen da, hau bait da zeharo suomitar klase bakarra, giza egoera honek suposatzen dituen ideologi eta politik ondoren guztiekin.

Hiri eta industriadun eskualdeetan, hizkuntz alienazio handiago batekin eta burjeseria-proletalgo borroka suediar hizkuntzan (edo bai eta errusieraz ere, Kareliako Hegoaldean) erabakitzen zelarik, nazional eskakizunak jolas-joko bat iruditzen zitzaizkion ezker iraultzaileari. Eta suediar guttiengoari suomitar eskakizunak onhar ezinezkoak iruditzen zitzaizkiolako, nazional arrazoiengatik, aliantza objetibo eta *iraunkor* bat egin zen (eta egin izan da geroztik ere urtetan) suediar guttiengo atzerakoiaren eta finlandiar ezker "suediartuaren" artean, Ganivet-en hitza erabiltzeko. Beronek idazten zuen, bai eta, nazional kontzientziatze garaiko lekuko zorrotz baten gisa: "Ez daude bakarrik bi hizkuntza; bi bizitze desberdin daude: finlandiar "suediartuena" ("asuecados") bata, zilegi bazait horren hitz itsusi bat sortzea, eta finlandiar jatorrena bestea. Lehenengoek, aurren mailak dituzte gizartean; bigarrenak, esan nuen, soto eta sapaletan bizi zirela; zeren, edo barru aldean bizi dira, edo hirietako "beheko klaseak" osatzen dituzte, nahiz eta azken denbora honetan suomitar izpiritua jasotzeko eta nazio hizkuntza mintzatzeko giza joera bizi bat nabari izan". Eta jarraitzen du: "Gonbaratuz bizitze hauk, diot bada nik, (lur) sendoan daudenak orain arte behean aurkitzen direla, eta hauk egoeraren guztiz jaun eta jabe bezala goren mailatara destinatuak daudela... Herriaren izpiritua bere baitan gozatuz eta honen hizkuntza jatorrean pentsatuz hel daitezke goren gailurrera" (*Cartas Finlandesas*, 79. or.).

Baina ez da erraza izan gertakizunen ibilbidea aldatzea... Estatu librea sortu ondorentxe, 1920an, beraz, suediar eskola 8,66 markka kostatzen zen ikasle bakoitzeko; suomitar eskolak, ostera, 2,71 markka bakarrik hartzen zituen pertsona bakoitzeko.

Oraindik 1936an, suediar guttiengoak nausigotasunaz jarraitzen zuen Unibertsitate mailan, honako datu honez begien bistan jar daitekeenez: suediar populazioa nazional populazioaren aldean % 9ra besterik ailegatzen ez zen garaian, Unibertsitatean % 16,2 ikasle suedieradun zegoen. Hau da, proportzioan, suomitar estudiante halako bi estudiante suediar zegoen.

## 8. SUOMIERAREN EGUNGOTZEA

Mendeetan nekazarien artean eta mintzaturik bakarrik izatera kondenatua zegoen suomiera, elizkizunetarako eta luteranoen predikurako libururik beharrezkoenen argitalpenak salbu (ekintza hori XVI. mendeaz gerozko zenbait liburu sagaratu eta debozionarioetara labur daiteke), ia hutsetik abiatu zen. Lönnrot-en bizitzaren eta bere esan nahiaren bi funtsezko fetxa: 1831, Suomieraren Akademiaren jaiotza; 1880, bere Hiztegiaren argitalpena. Fetxa horiek ongi aski erakusten digute zein mailatan aurkitzen zen hizkuntza hori iragan mendean.

Finlandiak ere, bada, beste hainbat herrik bezalaxe, ezagutu zituen bere

nazio hizkuntzaren egungotzearekiko problemak: dialektoen batasuna, berezirik aurkitzen zen hiztegiaren bateratzea, hiztegia hiriko bizitza modernoaren mailetara zabaldu, etab. Lanak, Estatu librearen lortu baino lehen hasi ziren. Eta nahiz eta klase kontraesanik egon izan, nazio hizkuntzaren berbizkunderako borroka eta garaipena, Finlandian, sozialista ezker ofizialaren aurka eman behar izan dira: “Suediarrek, Parlamentuan, sozialista alderdiaren ezpairik gabeko laguntzaz kontatu ahal izan dute beti, ez bait du horrek, suomitar nazionalismoaren eskakizunetan, burjes txobinismoaren aurpegi bat besterik ikusten” (Perret).

Belaunaldi gazteak izan dira hizkuntz mugimendua gehienbat bultzatu dutenak, 1925ean gero batez ere; beti eta non nahi Helsinkiko Estatuaren erakundeek zeukaten “suediar inperialismoaren” astunegiaz kexaturik.

Honela, Estatu librearen azken bultzada bat eman nahi izan zion hizkuntzarekiko eginbeharrari, eta, 1924ean, Gobernuak, Batasunerako Komisia, “Sankirjasäätiö” delakoa, sortu zuen, bi Komite paraleloekin Helsinki eta Turkuko Unibertsitateetan.

Komiteak zeregin bezala literatur hizkuntzaren batasuna zuen, eta suomieraren Hiztegi Ofizialaren azken taiuketa.

Komisio horrek berak, Estatuak finantziaturik, gogor lan egin zuen 15 urtean, 1925 eta 1940 urte artean.

Lehenengo, 23 hizkuntzalari izendatu zituen beste hainbeste herrialde klabetarako (hizkuntz ikuspuntutik begiratuta noski); aipatu 23 ordezkariak, 23 herrialde horiekiko subdialektoak sakonki aztertzen ihardun zuten, etengabe, lau urtez, urtean hilabetetako oporraldiaren tartegunea izan ezik, 23 inkestaburuok, Lonnröt-en hiztegi banarekin, Unibertsitateko irakasleen maila berdinean ziren ordainduak, eta zergarik gabe gainera.

Hogeita hiru ordezkari horiek, batz bestea, hogeita hamarna mila hizkuntza fitxa bildu zituzten (700.000 bat denetara, beraz), batzuk 40.000 fitxetatik gora pasatzen zirelarik zegokien dialektoan.

Fitxa horietan, hizkuntz ikuspuntutik zegokien guztia hartzen zen: aditzak, hiztegia, fonetismoak, etab.

Aldi berean, 46 suomieradun (2 herrialde bakoitzetik), eta denak beren dialektoa ongi maneiatzen zutenak, erakarri zituzten Helsinkiko Unibertsitatean; eta hauek emandako berriak ehundaka diskotan hartuak izan ziren, behin galdekizun zerrenda sistematiko batetan ongi preparatuak izan ondoren.

Gehiago oraindik: Finlandiako egunkari guztiek inkestak egin zituzten beren irakurleen artean 10 urtez (1920-1930); honela beste 1.400.000 fitxa osagarri bilduz. Eta egunkari espezializatu bat, Sanastaje, batasun garaian, Unibertsitateko ikasleen lana (1.000 bat laguntzaile urte bakoitzeko) koordinatzeaz arduratu zen, den-denek gogo bizi batez parte hartzen zutelarik.

Langai pilo hau, ondoren, Setälä-ren zuzendaritzapean aztertuan izan zen. Eta fruitu bezala hor daukagu suomiera batu modernoa, bere 8 liburuzko Hiztegi ofizialarekin (700 na orrialde). Hiztegi hori Finlandiako Estatuak argitaratu zuen 1951n hasita.

Suomiera, horrela, ezin hobeto egungotua aurkitzen da gaur suomittar herri osoaren zerbitzurako.